



Ayuntamiento de
Pamplona

Iruñeko
Udala

**Iruñeko Udalaren 2018eko
memoria**

1.1 POLITIKIA- ETA ADMINISTRAZIO-ANTOLAMENDUA. UDALBATZA.

ĪINEGOTZIAK

UPN udal-taldea

- Enrique Maya Miranda
- Ana Elizalde Urmeneta
- María Caballero Martínez
- Fernando Villanueva Mesa
- Juan José Echeverría Iriarte
- María García-Barberena Unzu
- Fermín Alonso Ibarra
- Román Luzán Suescun
- Gabriel Viedma Moreno

EH Bildu udal-taldea

- Joseba Asiron Saez
- Patricia Perales Hurtado
- Aritz Romeo Ruiz
- Joxe Abaurrea San Juan
- Mainer Beloki Unzu

Geroa Bai udal-taldea

- Itziar Gómez López
- Esther Cremaes Mayorga
- Javier Leoz Sanz
- Iñaki Cabasés Hita
- Mikel Armendáriz Barnechea

Iruñeko PSN/PSOE Sozialistak udal-taldea

- Maite Esporrín Las Heras
- Eduardo Vall Viñuela
- Patricia Fanlo Mateo

Aranzadi udal-taldea

- Armando Cuenca Pina
- Laura Berro Yoldi
- Manuel Millera Carrera

Talde mistoa

- Edurne Eguino Sasiáin

ĀLKATETZA ETA ARDURA-ALORRAK

Alkatea

- Joseba Asiron Saez

Alkateordeak

- Patricia Perales Hurtado
- Aritz Romeo Ruiz
- Joxe Abaurrea San Juan

ARDURA-ALORRAK

Zinegotzi ordezkariak	Ardura-alorra
Patricia Perales Hurtado	Economía Local Sostenible
Aritz Romeo Ruiz	Transparencia, Innovación y Política Lingüística
Itziar Gómez López	Seguridad Ciudadana y Convivencia
Joxe Abaurrea San Juan	Ciudad Habitable y Vivienda
Maider Beloki Unzu	Cultura y Educación
Mikel Armendariz Barnechea	Participación Ciudadana y Empoderamiento Social
Joxe Abaurrea San Juan	Ecología Urbana y Movilidad
Esther Cremaes Mayorga	Desarrollo Comunitario
Esther Cremaes Mayorga	Acción Social

Gardentasuna, Berrikuntza eta Hizkuntza Politika

- Zuzendaria: Arturo Ferrer Arriazu
- Idazkari teknikoa: Sandra Parra Guillén

Gizarte Ekintz

- Zuzendaria: Idoia Saralegui San Sebastian
- Idazkari teknikoa: Jesús María Pascal Mendioroz

Komunitate Garapena

- Zuzendaria: Ana Goia Arive
- Idazkari teknikoa: Nuria Goñi Oiz

Kultura eta Hezkuntza

- Zuzendaria: Maitena Muruzábal Olló
- Idazkari teknikoa: Víctor Piñero Larrasoña

Herritarren Partaidetza eta Gizartea Ahalduntzea

- Zuzendaria: Antso Fernández Oregi
- Idazkari teknikoa: María José Garín Asensio

Ogasuna, Merkataritza eta Turismoa

- Zuzendaria: Cristina Arregui Gonzalo
- Idazkari teknikoa: Javier Barace Egaña

Herritarren Segurtasuna eta Elkarbizitza

- Zuzendaria: Xabier Ibáñez Sagardoi
- Idazkari teknikoa: Eva Etxarri Osinaga

Hirigintza eta Etxebizitza

- Zuzendaria: Gerardo Hurtado Jáuregui
- Idazkari teknikoa: Maite Catalán Oiz

Giza Baliabideak

- Giza Baliabideetako Zuzendaria: Íñigo Anaut Peña
- Idazkari teknikoa: Arantxa Campo Mayo

Hirigintza eta Etxebizitza

- Zuzendaria: Vicente Taberna Irazoqui
- Idazkari teknikoa: Fermín Bacaicoa Barno

Hiri Ekologia eta Mugikortasuna

- Zuzendaria: Camino Jaso León
 - Idazkari teknikoa: Carlos Eguizábal Villanueva
-

Alkatetza Kabinetea, Protokoloa eta Komunikazioa (Alkatetza)

- Alkatetza Kabinetea: Olaia Aldaz Fueyo
- Protokoloa eta Irudi Instituzionala: Amaia de Esteban Garbayo
- Komunikazio Baliabideak: Alberto Gil Pérez Nievas

Hirigintzako Gerentzia

- Zuzendari Kudeatzailea: Vicente Taberna Irazoqui

Hiria Zaharberritzeko Bulegoa

- Zuzendaria: Alberto Calvo Azagra

Haur Eskolen Erakunde Autonomoa

- Gerentea: Alfredo Hoyuelos Planillo

ANIMSA

- Gerentea: Txema Aguinaga Pérez

Iruña Biziberritzen sozietatea

- Gerentea: Alberto Calvo Azagra

Comiruña

- Ahalordeduna: Gerardo Hurtado Jaúregui

Auzo-zinegotitzak

Utzitako zinegotziak	Erantzukizun-lekua
Patricia Perales Hurtado	Rochapea
Artiz Romeo Ruiz	San Jorge, Etxabakoitz
Joxe Abaurrea San Juan	Txantrea
Maidier Beloki Unzu	Erripagaña-Beloso-Bidezar, Mendillorri
Itziar Gómez López	Segundo Ensanche, Casco Antiguo
Esther Cremaes Mayorga	San Juan, Ermitagaña – Mendebalde
Javier Leoz Sanz	Lezkairu – Santa María la Real, Milagrosa Arrosadia, Azpilagaña
Iñaki Cabasés Hita	Iturrama
Mikel Armendáriz Barnechea	Buztintxuri

̄TOKIKO GOBERNU BATZARRA

Joseba Asiron Saez (presidenteA)
Joxe Martin Abaurrea San Juan (idazkaria)
Aritz Romeo Ruiz
Patricia Perales Hurtado
Maider Beloki Unzu
Itziar Gómez López
Esther Cremaes Mayorga
Mikel Armendáriz Barnechea
Javier Leoz Sanz

̄BATZORDEAK

Izena	Izaera
Lehendakaritza	Arrunta
Herritarren Aferak	Arrunta
Hirigintza	Arrunta
Kontuak	Berezia
Kontratazioak zaintzekoa	Berezia
Iradokizunak eta erreklamazioak	Berezia

̄UDAL-ERAKUNDE AUTONOMOAK

- Hirigintzako Gerentzia
- Haur Eskolak

UDAL-PARTAIDETZAKO ENPRESAK

MENDEKO SOZIJETATEAK (udal-partaidetzakoak)

Comiruña S.A.	100%
Pamplona Centro Histórico S.A.	100%
Asociación Navarra de Informática Municipal S.A. – ANIMSA	78%
Mercairuña S.A.	51%

UDAL-FUNDAZIOAK (estatutu juridiko berezi baten menpekoak)

Gayarre Antzokia Fundazioa

Erruki Etxea

2.0. GOBERNU ORGANOAK.

OSOKO BILKURA.

Iruñeko Udalaren Osoko Bilkura alkateaz eta 26 zinegotzi hautetsiez osatua dago. Alkatea da bilkura-burua. Udalaren osoko bilkurak hil bakoitzeko lehen ostegunean egiten dira, 16:30ean. Abuztuan ez da osoko bilkurarik egiten. Osoko bilkurak jendaurrekoak dira; horrenbestez, nahi duen jende oro joan daiteke bilkuretara. Osoko bilkurak, gainera, Iruñeko Udalaren webgunearen bidez ematen dira (www.pamplona.es), eta aurreko bilkurak kontsultatzeko aukera ere badago.

Bilkurak	2013	2014	2015	2016	2017	2018
Ohikoak	12	17	9	11	11	10
Bereziak	7	1	8	4	6	5
Konstituziogileak	-	-	1	-	-	-
GUZTIRA	19	18	18	15	17	15
Hartutako erabakiak	241	189	168	163	157	123

2018AN IZAPIDETUTAKO UDAL-ORDENANTZAK

Aldaketa Aparkatze mugatu eta murriztuko eremuak arautzen dituen Ordenantzan, 2018ko sanferminetarako

Aldaketa Aparkatze mugatu eta murriztuko eremuak arautzen dituen Ordenantzan

Ordenantza, bide publikoan kioskoak instalatzea eta alokatzea arautzen duena

Ordenantza, Iruñeko Udalaren eta haren sektore publiko instituzionalaren esparruan euskararen erabilpena eta sustapena arautzen dituena

Zentro komunitarioen Ordenantza

Berdintasunerako Ordenantza

Araubide juridikoaren eta zehapen-prozeduraren xedapen orokorrak arautzen dituen Osasuneko Ordenantza onestea

ĀLKATETZA.

	2013	2014	2015	2016	2017	2018
Ebazpenak	1.104	906	889	821	748	796
Dekretuak eta xedapenak	36	37	58	49	37	74
Bandoak	1	1	1	1	1	1
GUZTIRA	1.141	944	948	871	786	871

GOBERNU BATZARRA

	2013	2014	2015	2016	2017	2018
Ohiko bilkurak	44	47	44	46	42	39
Bilkura bereziak	1	-	1	-	1	-
Presazko bilkura bereziak	27	24	27	30	29	42
GUZTIRA	72	71	72	76	72	81
Hartutako erabakiak	467	511	584	552	594	690

ZINEGOTZIGO ORDEZKARIAK

Ebazpenak

Zinegotzigo ordezkariak		
PAE	Herritarren Partaidetza eta Gizartea Ahalduntzea	176
GPE	Gardentasuna, Berrikuntza eta Hizkuntza Politika	637
ALE	Alkatetza	35
EME	Hiri Ekologia eta Mugikortasuna	977
GEE	Gizarte Ekintza	552
KGE	Komunitate Garapena	449
TEE	Tokiko Ekonomia Jasangarria	479
HEE	Herritarren Segurtasuna eta Elkarbizitza	5925
BZE	Berdintasuna eta LGTBI	72
KHE	Kultura eta Hezkuntza	952
HEE	Hiri Bizigarria eta Etxebizitza	2631

Alorretako zuzendaritzak		
AJE	Aholkularitza Juridikoa	41
EME	Hiri Ekologia eta Mugikortasuna	23
AGE	Alkatetza, Gardentasuna, Berrikuntza eta Hizkuntza Politika	241
OGE	Ogasuna	1865
GBE	Giza Baliabideak	2404

2.1.1 GOBERNU ORGANOAK. ALKATETZA. HERRITARRENDAKO PROIEKTUAK

— ESTRATEGIA BULENGOA.

Berriki eratu den zerbitzua da Estrategia Bulegoa (2017). Estrategia Bulegoaren funtzioetako bat da Hiriko Plan Estrategiko bat (2030 Estrategia) diseinatu, prestatu eta kudeatzea, epe luzerako hiri-eredua, helburu estrategikoak, jardun-ildoak eta proiektu estrategiko eraldatzailerak zehazte aldera. Estrategia Bulegoak baditu beste eginkizun batzuk ere, besteak beste: Europako funtsen laguntzen deialdiak identifikatzea, eta proiektuak prestatu, aurkeztu eta kudeatzea; proiektu transbertsalak bultzatzea; auzoko plan integralak koordinatzea; ikerketa soziologikoa egitea eta kanpo-lankidetzak sustatzea.

2030 ESTRATEGIA

2018an, Estrategia Bulegoak abian jarri zuen 2030 Estrategia egiteko prozesua. Estrategia horrek bilatzen den hiri-eredua definituko du, bai eta hiriko errealitateak eredu horretara eraldatzeko proiektuak ere. Hainbat ekintza egin ziren, hala nola oinarri metodologikoak diseinatu ziren, gobernamentu eta parte-hartze ereduak jarri zen abian, eta lehen fasea (aurrediagnostikoa) egin zen, zeinak bildu baitzituen azterketa historiko bat, herritarrei egindako inkesta bat, adituei egindako elkarrizketak eta joeren azterketa bat. Aurreikusita dago prozesuak aurrera egitea 2019an, 2030 Estrategia egiten amaitzeko.

EUROPAKO PROIEKTUAK

2018an, Estrategia Bulegoak 3 proiektu aurkeztu zituen Europako laguntza-deialdietarako, eta, azkenik, 2 onetsi ziren: URBACT programako Making Spend Matter, kontratazio publiko estrategikoari eta gastuaren azterketari buruzkoa, eta, INTERREG EUROPE programako POTEnT, energia-trantsizioari buruzkoa.

Horrez gain, aurreko urteetan onetsitako 6 proiektu koordinatzen eta kudeatzen jarraitu zuen Estrategia Bulegoak: STARDUST, CREACITY, JACOB@CCESS, KINTOAN BARNA eta SPAGYRIA.

STARDUST

Proiektu honek –H2020 SCC1 Europako programak kofinantzatua– barne hartzen du Smart Cities direlakoei buruzko hiru proiektu pilotu egitea Europako hiru hiritan (Iruña, Trento eta Tampere), eta bertan parte hartzen dute, halaber, emaitzak transferi behar zaizkien beste hiri batzuk (follower cities). Iruñeko Udalaren zeregin nagusia da askotariko erakundeak biltzen dituen tokiko partzuergoaren buruan jardutea, pilotua garatzeko. 2018an, ekintza-plana definitzen egin da lan nagusiki –eta hor sartzen dira hasierako proiektuari egindako zenbait aldaketa–, hura 2019. eta 2020. urteetan gauzatzeko, eta 2021. eta 2022. urteetan monitorizatzen.

Ekintza-planaz gain, honako hauek egin dira: tokiko partzuergoaren 3 bilera antolatzea; Europako partzuergoaren 3 bileratan parte hartzea; Europa mailan askotariko lan sortei ekarpena egitea (WP7: negozio-ereduak, WP8: komunikazioa, eta WP9: kudeaketa); urteko jarraipenaren lehen txostena egin da; eta hainbat bilera egin dira proiektuaren bazkideekin eta udal-zerbitzuekin, 2019-2020 aldian ezarri beharreko jarduketak teknikoki definitzeko (estalki fotovoltaikoa, datu-prozesaketa guneetako beroa berreskuratzea, argiteria adimenduna, kargagune fotovoltaikoa, ibilgailu elektrikoak kargatzeko sarea, mikrosare adimenduna, gaming tool...).

CREACITY

CREACITY Europar Batasunak INTERREG POCTEFA programaren bidez kofinantzatutako proiektua da, eta haren helburua da eskaintza turistiko erakargarri eta kalitatezkoa garatzea, Hondarribia-Baiona-Iruñea mugaz gaindiko hiri-eskualdeko ondare harresituaren balorizazioari lotuta. Proiektuak erronka du hiru hiriek hartzen duten lurraldea ongi kokatutako helmuga bihurtzea, kulturaren eta negozioen arloetako turismoa erakartzeko urteko urtaro guztietan. Horretarako 4 estrategia bateratu ezartzen ditu irizpide jasangarrien arabera zaharberritzearen, sormen artistikoaren, berrikuntza turistikoaren eta gastronomiaren sustapenaren alorretan. 2018an, Estrategia Bulegoak garatu ditu Iruñeko Udalarari, proiektu honen buru den aldetik, dagozkion kudeaketako zereginak (bilerak kudeatzea, harremanak POCTEFAko Idazkaritzarekin, ekintza guztien egitekoak berrikustea, txostenak, gastuaren aitortpenak eta abar). Horrez gain, Bulego honek koordinatu ditu inplikaturako udal-alor/-unitate guztiak (Kultura, Turismoa, Proiektuak eta Obrak, Komunikazioa eta Ogasuna).

JACOB@ACCESS

Europar Batasunak INTERREG POCTEFA programaren bidez kofinantzatutako proiektua da, eta haren helburua da desgaitasunak dituzten pertsonen kulturara eta ondarrera iristeko orduan dituzten desabantailak gutxitzea, eta haiek gizarteratzen laguntzea. Proiektuaren bazkideek mugaz gaindiko azpiegitura-sarea sortzea proposatzen dute, desgaitasuna dutenak mugaz gaindiko lurraldeetako kulturara hobeto iritsi ahal izan daitezen diseinaturik. Donejakue bideari loturiko ondarea izanen da partekatutako gai nagusia. Proiektuko bazkideak honako hauen inguruko lankidetzak izanen dute: irisgarritasun materiala (higiezinak eta higigarrien banaketa) eta immateriala (desgaitasuna duten pertsonen erabiltzeko diseinaturiko museo- eta bizipen-soluzio berritzaileak). 2018an, proiektuaren koordinazioan egin da lan, eta, horrez gain, lan egin da askotariko proiektuen exekuzioa –proiektua osatzen duten obrak– koordinatzen, eta Iruñeko Donejakue bidearen Interpretazio Zentroaren (Ultreia) oinarritutako musealizazioa egiteko agiriak definitzen eta idazten. Orobat, bilerak egin dira gainerako bazkideekin, bai eta jardueraren urteko txostena eta gastuen aitortpena ere.

KINTOAN BARNA

KINTOAN BARNA Europar Batasunak INTERREG POCTEFA programaren bidez kofinantzatutako proiektua da, eta haren helburua da eskaintza turistiko kalitatezkoa eta erakargarria garatzea. Eskaintza erakargarri horren ardatza izanen dira baliabide natural eta identitarioen balioa, ondarea, historia komuna eta gastronomia, Garazitik Iruñera zabaltzen den korridorean, Baigorriko, Garaziko eta Esteribarko ibarrak zeharkatuz eta muinean Kintoa duen mugaz gaindiko eskualde txiki bat osatuz. Proiektuaren asmoa da lurralde-korridore hori helmuga turistiko bihurtzea, eta produktu integral gisa posizionatzea turismoa erakartze aldera, bai eta bertako garapen sozioekonomikoa bultzatzea ere, hartara, egungo despopulazio-joerari aurre eginda. Aldaketa horrek lotura zuzena du Garazi-Iruña lurralde berri bat sortzearekin, turismo kulturala eta naturala sustatzeko hainbat aukera emango dituena: mendi-ibilaldiak, naturako kirola, bertako produktuen eskaintza zabala, kalitatezko ostatuak eta identitatearekin zein historia komunarekin zerikusia duten jarduerak. 2018an, jarduketan plangintza eta koordinazioa landu da bazkideen artean. Horretarako, askotariko lan-bileratan parte hartu da Turismo alorrekin lankidetzan.

SPAGYRIA

Europar Batasunak INTERREG POCTEFA programaren bidez kofinantzatutako proiektua da, eta haren helburua da, mugaz gaindiko lankidetzak bidez, produktu kosmetiko ekologikoak ikertu eta garatzea. Horretarako, kideek berrikuntza- eta teknologia-arloko sare bat sortuko dute, enplegurako zentro berezietan, eta ikerketa- eta eraldaketa-zentroez osatuta. Lan-ildo berri bat ezarriko da proiektuaren bazkide diren enplegurako zentro berezietan; lan-ildo horren barruan, sendabelarrak landatuko dira, eta horiek izanen dira abiapuntua produktu kosmetikoen inguruan ikertzeko eta horiek garatzeko. Horrekin batera, proiektuak arau bat garatuko du, izaera ekologikoa ziurtatzeko/egiaztzeko; proiektuko kideek, ondoren, ziurtapen/egiaztapen horren erabilera partekatua izanen dute, eta ildo berean lan egin nahi duen edozein ekoi-ze ekologikori transferitzen ahalko diote. Iruñeko bazkideak dira. 2018an, Iruñeko Udalaren ahaleginak 3. ekintzan (Garapen agronomikoa) ardatzu dira, zehazki 3.2 jardueran (Egokitze agronomikoa). Horren barnean Udalak, batetik, proiektuari lursail ekologiko egiaztatu bat utzi dio Aranzadiko meandroan eta, bestetik, negutegi-idortegia gauzatzeko proiektu teknikoaren definizioan lan egin du. Exekuzio-proiektuak zenbait fase izan ditu: premiak definitzea, lurraldera egokitzea (EKHren baimenak) eta Elkarkiderek koordinatzea; proiektuaren enkargua espezializatutako ingeniari talde bati ematea; proiektua onestea eta hari oniritzia ematea; eta, azkenik, obrak lizitatzea. Orobat, bilerak egin dira gainerako bazkideekin, bai eta jardueraren urteko txostena eta gastuen aitortpena ere.

MAKING SPEND MATTER

Europar Batasunak INTERREG POCTEFA programaren bidez kofinantzatutako proiektua da. Ingalaterrako Preston hiriko jardunbide egoki batean dago oinarrituta, eta haren helburua da gastuaren azterketa erabiltzea kontratazio publiko estrategikoa bultzatzeko tresna gisa, tokiko ekonomia, berdintasun soziala, ingurumena eta bizi-kalitatea hobetzeko. 2018an, proiektuaren 1. fasean (apirila-urria), jardunbide egokia transferitzeko metodologia zehazten duen transferigarritasun-azterlana garatzen egin da lan. Urrian, URBACT programari eskatu zitzaion 2. fasea onetsi zezala. Azkenean, onetsi zen, eta abenduan abiatu. Bi urteko iraupena izanen du.

EDUSI Pamplona Sur

Iruña Hegoaldeko Hiri Garapen Jasangarri eta Integratuko Estrategia (EDUSI) 2016an egin zen, eta EEGF funtsen laguntza-deialdi batera aurkeztu zen. Onartu ez bazen ere, Udalak EDUSI gauzatzeko bost urteetan (2017-2021) 2,5 milioi euro inbertitzeko konpromisoa hartu zuen. Helburu hauek ditu estrategia horrek: Azpilagaña, Milagrosa eta Santa María la Real auzoak eraberritzea ikuspegi integratu eta parte-hartzaile baten bidez. 2018an, EDUSI estrategiaren koordinazio tekniko eta administratiboan egin du lan Estrategia Bulegoak, besteak beste: udal-alorrekin lankidetzan, proiektuak zehazten, bai eta aurrekontua kontrolatzen ere; 2018-2021 aldirako jarduketak biltzeko eta lehenesteko parte-hartze prozesu bat egiten (Partaidetzako alorrarekin lankidetzan); auzoko elkarbizitza hobetzeko sendotze-programa bat zehazten; etorkizuneko ekintzen plangintza egiten; Hirigintza Jarduketako Plan Berezia koordinatzen... Horrez gain, babesa eman zaio proiektu berriak martxan jartzeari: inkubagailu gastronomikoa, mikroinformatikako teknikari laguntzailea, elkarbizitzarako esku-hartze sozialeko proiektua, merkatarien elkarteari bultzada emateko plangintza...

2.1.2. GOBERNU ORGANOAK. ALKATETZA. ERAKUNDEEN EKITALDIAK ETA PROTOKOLOA

– Udalak honako erakunde-ekitaldi hauetan parte hartzen du urtean zehar:

Bost Zaurien funtzioa

San Ferminen bezperak

San Ferminen prozesioa

San Ferminen Zortziurrena

Batasunaren Pribilegioa

San Saturnino

– EZKONTZA ZIKILAK

2018an, 210 ezkontza zibil egin dira Iruñeko udaletxean; horietatik 22 bi hizkuntzatan izan dira, eta 24, sexu bereko pertsonen artean. Ezkontza zibilak ostiraletan (18:30etik 20:00etara) eta larunbatetan (12:00etatik 13:30era) izaten dira, baina maiatzetik urrira bitartean zerbitzuak txanda bikoitza du larunbatetan; 18:30etik 20:00etara ere ezkontzeko aukera dago.

Urtea	2013	2014	2015	2016	2017	2018
Ezkontza kopurua	200	204	255	223	220	210

BISITA GIDATUAK UDALETXERA

Urtean zehar, 147 taldek bisitatu dute udaletxea (ikastetxeetatik datoz gehienbat); hori horrela, herritarrei doan eskainitako zerbitzu horren bitartez, 3.700 pertsonak bisitatu dituzte udaletxeko aretoak.

Udalak kalitate-sistema bat ezarri du, gogobetetzeari buruzko inkesten bidez, bisitaren edukia, erreserba eta hartutako tratua neurtzeko, besteak beste.

Urtea	2016	2017	2018
Talde kopurua	124	145	147
Pertsonak, guztira	3.200	3.600	3700

HARRERA-EKITALDIAK.

2018an, alkatea buru izan den 26 harrera-ekitaldi egin dira, eta udalbatzak ere hartu du parte horietan.

Urtea	2016	2017	2018
Harrera-ekitaldi kopurua	14	12	26

2.1.3. GOBERNU ORGANOAK. ALKATETZA. KOMUNIKAZIO-ZERBITZUA

Iruñeko Udaleko Komunikazio Zerbitzuak 1.891 prentsa-ohar igorri zituen 2018an, aurreko urtean baino % 1,2 gutxiago (1.913 udal-informazio igorri zituen orduan). Martxoan, maiatzean eta urrian bidali da informazio gehien (170 prentsa-ohar baino gehiago hilabete horietako bakoitzean). Kultura da prentsa-ohar gehien egin dituen alorra; igorritako informazioen heren bat, zehazki. Urtean, 287 deialdi baino gehiago egin zitzaizkien hedabideei, besteak beste ekitaldi, inaugurazio, erakusketa eta prentsaurrekoetarako.

	2014	2015	2016	2017	2018
Prentsa-oharrak	1.582	1.636	1.844	1.913	1.891
Hedabideen deialdiak	215	187	281	270	287

OSOKO BILKUREN, BATZORDEEN ETA PRENTSAURREKOEN ZUZENEKO ETA AURREZ GRABATUTAKO EMANALDIETARA SARTZEA

	2017		2018	
	Zuzenekoa	Aurrez grabaturik	Zuzenekoa	Aurrez grabaturik
Osoko bilkurak	12.891	816	22.054	1.651
Batzordeak	17.361	1.232	15.772	2.602
Prentsaurrekoak	9.298	9.597	12.303	15.322

Sanferminek erreferente mediatiko eta informatibo bat izaten jarraitzen dute. Mundu osoko 130 komunikabidetako 400 profesional grafiko eta kazetari baino gehiago etorri dira Iruñera 2018an, jaietako entzierroen berri ematera. Freelance argazkilariek, Estatuko zein nazioarteko agentziek, hainbat herrialdetako egunkariak, irratiek, zinema- eta telebista-ekoiztetxeek eta beste zenbaitek interesa agertu dute entzierroen inguruan. Iruñeko Udalak akreditatutako profesionalak hamar bat herrialdetatik etorri dira: Estatu Batuak, Erresuma Batua, Frantzia, Argentina, Txina, Mexiko, Alemania, Italia, Txekiar Errepublika eta Kroazia.

—
**2018KO SANFERMINETAKO AKREDITAZIOAK: TXUPINAZOA, ENTZIERROA
ETA GAIXOA NI**

	2018	
	Akreditatu kopurua	Hedabide kopurua
Txupinazoa	160	45
Entzierroa	400	130
Gaixoa ni	90	35

2.1.4. GOBERNU ORGANOAK. ALKATETZA.

MEMORIA HISORIKOA

— INTSUMISIOAREN PARKEA IZENDATZEA, MONOLITOA EZARTZEA INTSUMISIOAREN MUGIMENDUAREN OMENEZ

2018ko urriaren 2an, Iruñeko alkateak ebazpen bat izenpetu zuen, zeinaren bidez, intsumisioaren mugimenduaren omenez, iraganean Iruñeko espetxea zegoen orubeari Intsumisioaren parke izena eman baitzitzaion. Udalak monolito bat ezarri zuen, halaber, parke horretan, eta lankidetzan aritu da intsumisioen kolektiboari parke horretan egindako omenaldia prestatzeko.

— ELÍO EPAILEAREN PLAZA IZENDATZEA ESPAZIO BAT, ETA JARDUNALDIETAN PARTE HARTZEA

2018ko urtarrilaren 25ean, Iruñeko alkateak ebazpen bat izenpetu zuen, zeinaren bidez Elío epailearen plaza izena eman baitzitzaion Iruñeko Justizia Jauregiaren fatxadaren aurreko espazioari. Aitortza horren bidez, Iruñeak plaza bat eskaini zion 1936ko uztailaren 19an atxilotu zuten Luis Elío Torres epailearen memoriari, haren heriotzaren 50. urteurrenean.

Horrez gain, Iruñeko Udala lankidetzan aritu zen Gerra Zibilean eta frankismoan Nafarroako Justizia Administrazioaren errepresioari buruzko jardunaldi batzuetan –hor ere egin zitzaion omenaldia nafar epaile horri–.

— ETA-REN BIKTIMEN OMENEZKO PLAKAK JARTZEA

2018ko urtarrilaren 18an, ETAREN biktimen omenezko plakak jartzen hasi zen Udala Iruñean, Nafarroako Parlamentuaren eta Bozeramaileen Batzarraren mandatuak betetzeko.

Jarritako lehen bi plakak biktima hauen omenezkoak ziren: Alfredo Aguirre Belascoáin, 14 urteko ikasle gaztea, 1985eko maiatzaren 30ean eraila Xabier kalean; eta Ángel Postigo Mejías polizia, 1980ko ekainaren 15ean eraila Arrotxapean.

Xabier kaleko 16 zenbakian eta Marcelo Celayeta etorbidea Bernardino Tirapu kalearekin gurutzatzen den lekuan jarri ziren plaka horiek.

IRUÑEKO UDALAREN ETA SANFERMINES 78 GOGOAN ELKARTEAREN ARTEKO LANKIDETZA-HITZARMENA

2018ko maiatzaren 2an, ebazpen bat izenpetu zuen Alkatetzak, zeinaren bidez onetsi baitzen Iruñeko Udalaren eta Sanfermines 78 Gogoan elkartearen arteko lankidetzahitzarmena, 1978ko sanferminetako gertakarien 40. urteurrenaren harira antolatutako jarduera-jardunaldiak egiteko.

EGIAREN BATZORDEA

2018ko martxoaren 8an, Nafarroako Unibertsitate Publikoari enkargu bat egin zitzaion: 1978ko sanferminetako gertakariei buruzko txosten tekniko dokumental bat egitea, eta adituen batzorde bat eratzea txosten horri buruzko irizpena eman zezan, 2017ko azaroaren 2ko Osoko Bilkuraren mandatua betetzeko. Mandatu horren arabera:

«Osoko Bilkurak adierazten du bere konpromisoa 2017. urte hau amaitu baino lehen batzorde bat eratzeko, arlo akademiko zein juridikoko eta memoria historikoaren arloko prestigio handiko adituek osatua, 1978ko sanferminetako gertakarien harira garatzeko egia, justizia eta ordaina oinarri dituen prozesu bat, non zehaztuko baitira festa haietan izandako giza eskubi-deen urraketak eta horien ondoriozko erantzukizunak».

2018ko ekainaren 5ean, Adituen Batzordeak irizpena helarazi zion Iruñeko Udalari, eta ekainaren 8an Udalak 1978ko sanferminetako biktima guztien omenezko jardunaldi bat egin zuen, non Adituen Batzordearen irizpenaren ondorioak jendarteratu baitziren.

1936KO GERRAKO ETA FRANKISMOKO NAFARROAKO BIKTIMEN ERREKLAMATU GABEKO GORPUZKINAK EHORZTEKO NAFARROAKO GOBERNUAREN ETA IRUÑEKO UDALAREN ARTEKO LANKIDETZA-HITZARMENA ALDATZEA

2014ko azaroaren 13an izenpetutako 1936ko Gerra Zibileko biktimen erreklamatu gabeko gorpuzkinak ehorzteko Nafarroako Gobernuaren eta Iruñeko Udalaren arteko lankidetzahitzarmenean egindako aldaketak onetsi zituen Tokiko Gobernu Batzarrak otsailaren 20an. Hitzarmena aldatuta, aukera dago panteoian ehorzteko giza gorpuzkinak, identifikatu baina familiei entregatu ezin zaizkienean edo familiek haien kargu egin ezin dutenean.

3.1.1. UDALERRIAK. GARDENTASUNA, BERRIKUNTZA ETA HIKUNTZA-POLITIKA. BIZTANLERIA.

—
(2018ko abenduaren 31ko datuak)

IRUÑEKO BIZTANLEAK, GUZTIRA

ADINA	Gizonak	%		%	Guztira	%
0 A 4	4.292	4,4	4.319	4	8.611	4,2
5 A 9	4.827	4,9	4.586	4,2	9.413	4,6
10 A 14	5.132	5,3	4.699	4,3	9.831	4,8
15 A 19	5.324	5,5	5.207	4,8	10.531	5,1
20 A 24	5.479	5,6	5.723	5,3	11.202	5,4
25 A 29	5.548	5,7	5.776	5,3	11.324	5,5
30 A 34	5.961	6,1	6.388	5,9	12.349	6
35 A 39	7.082	7,3	7.150	6,6	14.232	6,9
40 A 44	7.936	8,1	7.987	7,4	15.923	7,7
45 A 49	7.815	8	7.958	7,4	15.773	7,7
50 A 54	7.398	7,6	7.920	7,3	15.318	7,4
55 A 59	6.638	6,8	7.331	6,8	13.969	6,8
60 A 64	5.626	5,8	6.551	6,1	12.177	5,9
65 A 69	5.082	5,2	6.273	5,8	11.355	5,5
70 A 74	4.777	4,9	6.083	5,6	10.860	5,3
75 A 79	3.536	3,6	4.681	4,3	8.217	4
80 A 84	2.588	2,7	4.047	3,7	6.635	3,2
85 A 89	1.725	1,8	3.273	3	4.998	2,4
90 A 94	613	0,6	1.724	1,6	2.337	1,1
95 A 99	132	0,1	497	0,5	629	0,3
más de 99	17	0	85	0,1	102	0
TOTAL	97.528	100	108.258	100	205.786	99,8

IRUÑEKO BIZTANLERIA ETORKINA

2018ko abenduaren 31n

ADINA	Gizonak	Emakumeak	Guztira
0 A 4	614	658	1.272
5 A 9	554	553	1.107
10 A 14	480	447	927
15 A 19	650	697	1.347
20 A 24	1.032	1.266	2.298
25 A 29	1.253	1.423	2.676
30 A 34	1.561	1.724	3.285
35 A 39	1.705	1.590	3.295
40 A 44	1.484	1.186	2.670
45 A 49	1.109	918	2.027
50 A 54	757	725	1.482
55 A 59	529	588	1.117
60 A 64	352	416	768
65 A 69	194	259	453
70 A 74	82	137	219
75 A 79	59	89	148
80 A 84	33	46	79
85 A 89	17	29	46
90 A 94	6	5	11
95 A 99	2	2	4
más de 99	2	1	3
TOTAL	12.475	12.759	25.234

ADIERAZLEAK	2018	%
Gizonak	97.528	47,4
Emakumeak	108.258	52,6
0-14 urte bitarteko biztanleak	27.855	13,5
15-64 urte bitarteko biztanleak	132.798	64,5
65 urtetik gorako biztanleak	45.133	21,9
Gazteria-tasa*	33.057	16,1
Mendekotasun-tasa**		54,9
Zahartze-indizea***		162
Atzerritarrak	25.234	12,3
BIZTANLEAK, GUZTIRA	205.786	

* 15 eta 29 urte bitarteko biztanleen ehunekoa, biztanleria osoan

** Biztanleria > 65 urte + biztanleria < 0-14 urte bitartekoak / 15tik 64 urtera

*** Biztanleria > 65 urte / biztanleria < 0-14 urte bitartekoak

AUZOA	Gizonak	Emakumeak	Guztira
Azpilagaña	3.603	3.929	7.532
Buztintxuri - Euntzetxiki	4.330	4.636	8.966
Casco Viejo/Alde Zaharra	5.483	5.753	11.236
Ensanche/Zabalgunea	11.518	13.758	25.276
Ermitagaña - Mendebaldea	7.978	9.205	17.183
Etxabakoitz	2.587	2.684	5.271
Iturrama	10.808	12.664	23.472
Mendillorri	5.442	5.725	11.167
Milagrosa - Arrosadia	8.250	9.160	17.410
Rochapea/Arrotxapea	12.687	13.320	26.007
San Jorge - Sanduzelai	6.018	6.038	12.056
San Juan/Donibane	9.170	11.135	20.305
Txantrea	9.654	10.251	19.905
GUZTIRA	97.528	108.258	205.786

3.1.2. UDALERRIAK. GARDENTASUNA, BERRIKUNTZA ETA HIKUNTZA-POLITIKA. HERRITARRENDAKO ARRETA ZERBITZUA.

HERRITARRENDAKO ARRETA BULEGOA

Iruñeko Udalaren Herritarrendako Arreta Bulegoak 47.033 jarduketa egin zituen guztira 2018an, aurreko urtean baino % 6 gutxiago, neurri batean auzo-unitateetan ere egin zituztelako erroldatze-bolanteak. 2017ko ekainetik, Gizarte Ekintzako alorreko auzo-unitateek beren izapideak egiteko behar dituzten erroldatze-bolanteak egiteko aukera dute. 2018an 15.100 bolante baino gehiago egin zituzten, aurreko urtean horretarako aukera izan zuten 6 hilabeteetan baino ia 10.000 gehiago; horri esker, erabiltzaileek ez dute Herritarrendako Arreta Bulegora joan behar izan haiek eskatzeko.

Jarduketak,	2014	2015	2016	2017	2018
Errolda	66.900	61.308	53.270	46.205	43.425
Erregistroa	8.832	6.412	4.218	3.848	3.608
Beste batzuk	2.500	2.000	512	-	-

010 HERRITARRENDAKO ARRETA-TELEFONOA

010 Herritarrendako Arreta Telefonoaren bidez 820.462 kontaktu egin ziren guztira, 2017an baino % 0,64 gehiago, alegia. Arreta eman zaien kontaktuen kopuru osoa pixka bat jaitsi da, baina ikastaro eta jardueretan izena eman dutenen kopuruak gora egin du (batez ere, Civivoxerako), baita jasotako ohar, kexa eta iradokizunen kopuruak eta Zerbitzuan posta elektronikoz jasotako eta izapideturiko kontsulten kopuruak ere. Irteera-kontaktuek –hau da, Udalak berak egindakoek– ugaritzera jo zuten; posta elektronikoa eta SMS bidezko komunikazioak izan ziren batez ere (Udaleko alorrek eskatutako zerbitzuak dira, eta Herritarren Partaidetzako eta Gizartea Ahalduztzeko Alorrak eta Gaztediaren Etxeak erabiltzaileekin harremanetan jartzeko egindakoak nabarmentzen dira).

PAMPLONA.ES WEBGUNEA

Udalaren webguneak –<https://www.pamplona.es/eu>– 2,6 milioitik gora bisita jaso zituen 2018an, egunean 7.287 bisita batez beste. Bisiten batez besteko iraupena 3 minutu eta 47 segundokoa da, eta gehien bisitatzen diren orriak udaleko prentsa-oharrekin lotutakoak dira, informazioarekin, udal-agendarekin eta turismo-informazioekin lotutakoez gain. Gehien ikusten diren orrialdeen artean, gardentasunarekin, herritarrendako arretarekin, herritarren parte-hartzearekin eta Joaquín Maya Musika Eskolarekin loturikoak ere nabarmentzekoak dira.

Orotara, 2018an 9.884.624 orri ikusi ziren, egunean 27.081 batez beste. Uztailean izan zen webgunea gehien ikusi zen hila: 274.915 bisita egin, eta 780.978 orrialde ikusi ziren.

WEBGUNEKO KONTSULTA NAGUSIAK, MOTA ETA URTEAREN ARABERA

Herritarrendako Arreta Zerbitzua (HAZ)	2013	2014	2015	2016	2017	2018
Aurrez aurreko harrera – Kondestablearen Jauregia	79.960	79.300	70.647	58.000	50.053	
Telefono bidezko arreta – 010	148.586	161.486	160.971	198.535	265.944	284.571
Arreta telematikoak – www.pamplona.es/eu	2.912.212	3.082.831	3.085.699	3.240.745	3.090.543	2.660.055

3.1.3. UDALERRIAK. GARDENTASUNA, BERRIKUNTZA ETA HIKUNTZA-POLITIKA. BERRIKUNTZA

— TEKNOLOGIA ETA BERRIKUNTZAKO PROIEKTUAK

Berrikuntza arduratzen da sistemak eta informazioaren teknologia berriak erabiltzeko estrategia koordinatzeaz. Azken helburua hau da: herritarrei, kanpoko erakundeei eta Administrazioari berari eskura jartzea beren beharrak betetzeko behar dituzten bitarteko teknologikoak, modu eraginkor eta seguru batez eta araudiari jarraikiz. ANIMSA proiektu eta zerbitzu gehienak gauzatzeko erakunde instrumentala da, eta proiektu horizontalen bitartez betetzen du bere eginkizuna, edo, bestela, beste alor batzuekin lankidetzan, proiektu zehatzago batzuen bidez.

Gainera, 2018ko martxoan, sistema informatikoaren arduradun bat sartu zen udal-plantillan, Iruñeko Udalaren eta ANIMSAren arteko harremana kudea eta SmartCity estrategia gara zezan. Zenbait egitura-aldaketa egin dira, hala nola Informazioaren eta Komunikazioen Teknologietarako eta haien Segurtasunerako Batzordea –IKTen Batzordea– eta Datuak Babesteko Batzorde Eskuordetua eta Segurtasunaren Batzorde Arduraduna berreratzea, Iruñeko Udalak horri dagokionez dituen beharrak antolatzeko.

Hona hemen haren zeregin nagusiak: zerbitzari eta komunikazioen azpiegituren mantentze-lanak egitea, erabiltzaile-hardwarea eta -softwarea kudeatzea, Iruñeko Udalak eskatutako ziurtagiri digitalak izapidetzea. Gaur egun, honako hauen euskarri gisa dihardu:

- 158 software-aplikazio edo -produktu, merkatuan erositakoak edo ekoizpenean Iruñeko Udalaren neurria sortuak.
- 1.300 erabiltzaile-postu baino gehiago.
- 137 ziurtagiri berri egin dira. 2018aren amaieran, askotariko 613 ziurtagiri kudeatu ziren, eta horietatik 578 «enplegatu publiko» motakoak dira.

2018an zehar, ANIMSA 69 teknologia- eta berrikuntza-proiektu planifikatu ziren; horietatik 55 zeharkako proiektuei zegozkien, eta gainerako 14ak, berriz, udal-alorretako behar espezifikoiei erantzun zieten. ANIMSAk zehaztutako ildo estrategikoen arabera, proiektuak sei talde handitan sailkatu daitezke, eta hauek nabarmentzen dira bereziki:

Barne-kudeaketako aplikazioak:

- Dokumentu Elektronikoaren Plan Zuzentzailearen ezarpenaren bilakaera gauzatzea.
- Alde Zaharrerako sarbideak kudeatzeko proiektua amaitzea.
- Civivox zentroak kudeatzeko tresna hautatzea.
- Iruñeko Udalaren aplikazio-ekosistemaren bilakaera eta mantentze-lanak egitea.

Zerbitzu elektronikoa:

- Iruñeko Udalaren webgune berria ekoizten hasteko lan gehienak esleitzea eta egitea; azkenean, 2019ko otsailean hasi zen ekoizten.
- Iruñeko Udalaren egoitza elektronikoa berritzea.
- Inguruko beste administrazio publiko batzuekin elkarreragingarritasun-proiektuak gauzatzea.
- Informazio Geografikoko Sistema (Iruskan) abian jartzea.
- ANIMSA hodei pribatuan sinadura digitala egiteko aukera garatu da, eta konfiantzazko zerbitzuen hornitzailez aldatzea eskatzen du horrek.
- Hiria plataforman lanak hastea, H2020 Stardust proiektuaren barruan.
- Gardentasunaren webgunea bultzatzea.

Azpiegituren segurtasuna eta eskuragarritasuna:

- Suebaki perimetral berriak prest jartzea.
- Telefonía finkoko zerbitzuak lote horren hornitzaile esleipendunari migratzea 2017. urtearen amaieran (Vodafone).
- Sare korporatiboaren eta erabiltzaile-lanpostuen mantentze-lanak eta bilakaera gauzatzea.

Araudiak eta Kalitatea

- Egokitzapen-lanak egitea, batetik, informazioaren segurtasunaren esparruan (Segurtasunaren Eskema Nazionalaren arabera), eta, bestetik, Datu Pertsonalak Babestearen esparruan, Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko Lege Organikoa eta Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra indarrean jarri ondoren.
- ANIMSAren enkarguaren jarraipena eta kudeaketa egitea eta negozio-arloen eta tekniken arteko harremana finkatzea.

Erabiltzaileendako arreta, Prestakuntza eta Komunikazioa

- 010 zerbitzua ematea.
- Erabiltzaileendako arreta.

Berrikuntza teknologikoko beste proiektu batzuk:

- Helmuga turistiko adimendunak.

Plangintza horren betetze-mailari dagokionez, jarraipen-bilera xehatuak egin ziren Berrikuntza Arloaren eta ANIMSAko arduradun nagusien artean, eta bilera horietatik ondorioztatzen da betearazpen ekonomikoa eta zerbitzu-mailako akordioen betearazpena oso handiak izan zirela.

3.1.4. UDALERRIAK. GARDENTASUNA, BERRIKUNTZA ETA HIKUNTZA-POLITIKA. AHOLKULARITZA JURIDIKOA

Iruñeko Udaleko Aholkularitza Juridikoa Alkatetzari, Tokiko Gobernu Batzarrari eta zuzendaritza-organoei aholkularitza juridikoa emateaz arduratzen den administrazio-organoa da. Egin-kizun hauek ditu esleiturik: aholkularitza juridikoa ematea, bai eta Iruñeko Udala eta haren erakunde autonomoak epaiketetan defendatu eta ordezkatzera ere.

2018an, udalaren aholkularitza juridikoan bi administrari (osoko bilkuraren idazkariarentzat ere lan egin zuten), Zuzenbideko zazpi lizentziadun eta hamar legelari izan ziren. Hirigintza Gerentziaren aholkularitza juridikoan, berriz, bi legelari eta Zuzenbideko lizentziadun bat izan ziren, baita aholkularitza juridikoko zuzendaria ere. Halaber, aholkularitza juridikoko langileen artean zuzendaritza ere hartu behar da kontuan, organo hori beharrezkoa baita, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 130.1.B.d) artikulua araber.

Aholkularitza juridikoak zeregin nagusi hauek izan zituen 2018an:

- a) Iruñeko Udalak eta haren organismo autonomoek esleitutako kontratuei buruzko nahi-taezko legezketasun-txostenak egitea; kontratuen ezaugarriak idaztea; parte hartzea, idazkari-lanak eginez, prozedura negoziatuetako kasuan kasuko kontratazio-mahaietan eta negoziatuzio-batzordeetan.
- b) Iruñeko Udalaren besterentzeak, administrazio-emakidak, erabilera-lizentziak eta ondatsunen errentamenduak arautu zituzten baldintza-plegu eta kontratuak prestatzea eta txosten juridikoak egitea, eta, gainera, kontratazio-mahaietan parte hartzea idazkaritza-eginkizunetan.
- c) Dirulaguntzetarako deialdien oinarriak idazteko lanetan parte hartzea, dirulaguntzetarako deialdien gaineko legezketasun-txostenak prestatzea eta balorazio-batzorde batzuetan parte hartzea diru-laguntzak emateko proposamenak egiteko.
- d) Lankidetzeta-hitzarmenen prestaketan parte hartzea, eta Iruñeko Udalak onetsi zituen hitzarmenen gaineko legezketasun-txostenak egitea.
- e) Herritarrendako lege-aholkularitzaz arduratzea emakumeendako arreta-zerbitzuan.
- f) Hirigintza-lizentzien espedienteetan txosten juridikoak egitea, hirigintza-legezketasuna babestea eta arlo horretako zehapen-espedienteak egitea.
- g) Iruñeko Udaleko hiria birgaitzeko bulegoak kudeatu zituen birgaitzeko laguntzen espedienteetan aholkularitza juridikoa ematea.
- h) Herritarrei aholku ematea eraikinak zaharberritzearekin lotutako alderdi juridikoen gainean, jabeen erkidegoen akordioek eraikinak zaharberritzeari dagokionez izan behar duten edukiaren gainean, bai eta akordio horiek baliozkoak izateko izan behar dituzten betebeharrak juridikoen gainean ere. Bestalde, hiria birgaitzeko bulegoan bertan egindako jabeen erkidegoen batzarretan ere parte hartzen du.

- i) Txosten juridikoak egitea, plangintza- zein birpartzelazio-dokumentuak eta urbanizazio-proiektuak onesteko, bai eta Iruñeko Udalak onetsitako hirigintza-plangintzako eta -ku-deaketako hitzarmenetan ere.
- j) Txosten juridikoak egitea zirkulazioko, ingurumeneko, hiri-ekologiako eta osasuneko zehapen-espedienteetan.
- k) Txosten juridikoak egitea langileekin zerikusia duten gaietan, eta langileak hautatzeko prozeduretan parte hartzea.
- l) Txosten juridikoak egitea ondare-erantzukizuneko espedienteetan eta udal-ondasunei egindako kalteak erreklamatzeko espedienteetan.
- m) Teknikariek elkarlanean ordenantzak idaztea, eta horiei buruzko legezkotasun-txostenak egitea.
- n) Aholkularitza juridikoa ematea erroldatze, udal-erregistro, ezkontza zibil eta izatezko bikoteen gaineko espedienteekin lotuta.
- o) Udal-alarretako idazkari teknikoek eta Osoko Bilkuren idazkariaren ordezkapen-lana egitea, haiek oporretan, baimen-egoeretan eta aldi baterako lanerako ezintasun-egoeretan daudenean.
- p) Aholkularitza juridikoa eta idazkaritza-eginkizunak egitea Haur Eskolen erakunde autonomoarentzat, Gayarre Antzokia udal-fundazioan eta Emakumearen Kontseiluan.
- q) Laguntza ematea, idazkari- eta mahaikide-eginkizunak betez, honako merkataritza-sozietate hauetako akziodunen batzarretan eta administrazio-kontseiluetan: Iruña Biziberritzen SA, ASIMEC SA, Comiruña SA, Mercairuña SA eta Asociación Navarra de Informática Municipal SA.
- r) Zinegotzigoek, alorretako zuzendaritzek, idazkaritza teknikoek eta Iruñeko Udaleko langileek hitzez egindako hainbat kontsultari erantzun zitzaizkien.
- s) Iruñeko Udala defendatzea jurisdikzio-ordena guztietako epaitegi eta auzitegietan.

2018an, zerbitzu juridikoak administrazio-fasean honako errekurtsio hauek defendatzeaz arduratu ziren:

- Berraztertze 1.704 errekurtsio izapidetu ziren, eta 1.620 ebatzi dira.

Ebatzitako errekurtsioen emaitzari dagokionez, honako hauek dira xehetasunak: 38 ez dira onartu (% 2,35); 888 ezetsi egin dira (% 54,81); 652 baietsi egin dira (% 40,25); eta 42 partzialki baietsi dira (% 2,59).

84 errekurtsio geratu dira ebatzeko.

Gora jotzeko 1.234 errekurtsio izapidetu ziren, eta, guztira, haietako 721 ebatzi.

Gora jotzeko errekurtsio ebatzien emaitza honako hau izan da: 33 onartu gabe geratu dira (% 4,58); 20 artxibatu egin dira (% 2,77); 2 atzera eginda geratu dira (% 0,28); 357 ezetsi egin dira (% 49,51); 81 baietsi egin dira (% 11,23); eta 166 partzialki baietsi dira (% 23,02).

83 geratu dira ebatzeko.

2018an, zerbitzu juridikoak Iruñeko Udala eta haren erakunde autonomoak defendatzeaz arduratu ziren administrazioarekiko auzien ordenako, ordena zibileko, merkataritza-ordenako, zigor-ordenako eta lan-ordenako epaitegi eta auzitegietan jarraitutako 246 prozeduratan (auto nagusiak eta intzidentalak zenbatu dira).

Prozedura motaren arabera, auto nagusi eta intzidentaletako defentsa egin zen administrazioarekiko 183 auzitan, ordena zibil eta merkataritza-ordenako 32tan, zigor-ordenako 14tan eta lan eta gizarte-segurantzaren arloko 17tan.

Gainera, legelari-laguntza ere eman zen udal-langileek zigor-prozeduretan ikertu gisa emandako deklarazioetan.

Defendatutako administrazioarekiko auzien prozeduretatik, prozedura zibiletatik eta zigor-prozeduretatik 126k zenbateko zehaztugabea zuten.

Gainerako 103k zenbateko zehaztua zuten: 30.466.043,44 euro izan zen prozedura horien zenbatekoa.

2018an, administrazioarekiko auzien arloan, arlo zibilean eta zigor-arloan 120 prozedura amaitu ziren (administrazioarekiko auzietako 99 prozedura, 16 prozedura zibil eta 5 zigor-prozedura), eta horietatik 67 prozedura nagusiak izan ziren.

Amaitutako prozeduretatik, 61 (% 50,83) udal-interesen aldekoak izan ziren, eta gainerakoak –59 (% 49,17)–, aurkakoak.

3.1.5. UDALERRIAK. GARDENTASUNA, BERRIKUNTZA ETA HIKUNTZA-POLITIKA. EUSKARA-ZERBITZUA

— EUSKARA SUSTATZEKO JARDUERAK ETA PROGRAMAK EGITEKO DIRULAGUNTZAK

DIRULAGUNTZA JASO DUTEN ERAKUNDEAK ETA HERRITARREN EKIMENAK	IMPORTE
EUSKALDUNON BILTOKI ELKARTEA	3.118,07 €
HIZKUNTZ ESKUBIDEEN BEHATOKIA	2.147,58 €
DINDAIA FUNDAZIOA	26.674,68 €
EUSKARAREN GIZARTE ERAKUNDEEN ELKARTEA (KONTSEILUA)	7.896,76 €
KARRIKIRI ELKARTEA	15.808,48 €
UDAKO EUSKAL UNIBERTSITATEA ELKARTEA	6.348,48 €
EUSKARAZ KOOP ELKARTEA	3.653,89 €
NAFARROAKO BERTSOZALE ELKARTEA	4209,22 €
GOIZARGI, DOLUAN DIREN FAMILIEN ETA LAGUNEN ELKARTEA	1.154,40€
NAFARROAKO KAZETARIEN ELKARTEA	1.063,70€
NAFARROA RETINA ELKARTEA	1.658,53 €
SORTZEN	7.449,56 €
GUZTIRA	81.183.35€

BESTELAKO EKIMENAK

JARDUERA	ZENBATEKOA
Udal haur-eskoletako euskarazko matrikulazioa sustatzeko kanpaina.	2.220,65 €
«Kuxkuxeroak» programa (euskararekiko motibazioa nerabezeroan, erreferentziazko pertsonen bidez).	11.035,2 €
Herritarrek euskara ikasteko ikastaroak egiteko bekak (16 urtetik gorakoendako)	38.000 €
«Atsedendiak euskaraz» programa (aisialdiaren dinamizazioa euskararen erabilera nabarmentzeko)	1202,4 €
Mintzakide hizkuntza-boluntarioen programa	12.859,35 €
Euskararen Nazioarteko Eguna: Governors eta Modus Operandiren kontzertua	11.847,57 €
Erraldoi eta Buruhandien Konpartsaren sanferminetako ibilbideei buruzko informazio-triptikoa	2566,66 €
Euskarazko kultura-produktuen katalogoa argitaratzeko zereginean parte hartzea	807,98 €
Helduek euskara ikasteko matrikulazio-kanpainen parte hartzea	Kosturik gabe €
Euskarabidearen kanpainen laguntzea, D ereduko matrikulazioak sustatzeko	Kosturik gabe
ERANAFARROA.EUS webgunean parte hartzea	704 €
Civivox zentroetan antolatutako euskarazko jardueren programazioa argitaratzea eta berariaz hedatzea	435,6 €
Euskaraz ez dakiten gurasoendako informazio-hitzaldia. «Ez dakigu euskaraz. Nola lagun diezaiekegu gure»	250 €
Euskarazko kanpalekuei buruzko informazio-triptiko bat argitaratzea eta zabaltzea	5,38 €
Etxepare literatura-saria	125 €
Euskararen ahozko erabilera aktibatze eta Euskaraldian parte hartzeko programa	20.944,86 €
Euskaraldiak hizkuntza-ohiturak aldatzean duen eraginari buruzko inkesta	2.100,56
Lankidetzaren hitzarmena Sortzen-ekin, elkarte horren jaiari buruzkoa	9.497,16 €
Lankidetzaren hitzarmena Euskaltzaindiarekin	12.000 €
Hizkuntzaren familia-transmisiorako plana: Familiendako informazio-materialak argitaratzea	4.524,29 €
Udal-langileek euskara ikasteko plana	Kanpoko kosturik
GroupShare instalatzea TRADOS itzulpen-sisteman eta dagokion prestakuntza ematea.	5.747,50 €
Udalaren inprimakiak, kartelak eta bestelako agiriak ele bitan egitea:	Kanpoko kosturik
Zerbitzuan egindako itzulpen idatziak (3.250) eta osoko bilkura eta batzordeetako interpretazio-lanak, testu eta udal-material elebidunen zuzenketak eta udaleko alor eta zerbitzuendako hizkuntza-aholkularitza	Kanpoko kosturik gabe

3.2.1. UDALERRIAK.

TOKIKO EKONOMIA JASANGARRI. MERKATARITZA.

— MERKATARITZA DINAMIZATU ETA SUSTATZEKO KANPAINAK.

STOCKAREN AZOKA 2018. 2007tik lehen aldiz, Iruñeko Udalak ez zuen Stock Azoka antolatu, baina lankidetzan jardun zen: finantzaketan eta hura zabaltzen lagundu zuen, hainbat bitartekoren bidez, udalekoez gain. 51 firma komertzialek parte hartu zuten, eta, guztira, 69 stand jarri ziren.

LIBURUAREN ETA LOREAREN EGUNA. Urtero, apirilaren 23an, eta Liburuaren Mundu Eguna ospatzeko, Iruñeko 15 liburu-dendak % 10eko beherapena eta 4.000 lore banatzen dituzte Karlos III.ak eta Orreaga etorbideak bat egiten duten tokian. Liburuaren eta lorearen egunaren hamaikagarren edizioa izan zen.

«**IRUÑEKO MERKATARITZA**» **MARKAREN SORRERA ETA AURKEZPENA.** Merkataritza Zerbitzuak uste du garrantzitsua dela bere identifikazio-marka propioa izatea, hurbileko merkataritzaren kontzeptua bateratzeko herritarren, bezeroen eta bisitarien buruan.

Lau proposamen jaso ziren, eta aukeratutako marka ekainaren 6an aurkeztu zen jendaurrean, prentsaurrekoan, Merkataritzarekin, hiria, hiriago ekimenaren programazioarekin batera.

MERKATARITZAREKIN, HIRIA, HIRIAGO. Ekainean, jende guztiarendako jarduerak eskaini ziren, hala nola kaleko atrakzioak, haurrentako tailerrak, sustapen bereziak, antzerkia eta musika. Alde Zaharrean, jada ohitura bilakatu den «Gau Zuri Gorria» ekitaldia egin zen; hau da, ia 100 saltokik moda-desfileak, lantegiak, erakusketak, kalejirak, dastatzeak, kontzertuak eta deskontu bereziak eskaini zituzten, eta zabalik egon ziren gaueko hamarrak arte.

Hiriko 9 merkataritari-elkarte elkarlanean jardun ziren Iruñeko Udalarekin, 5 asteburutan jarraian jarduera guztiak abian jartzeko, eta, horrela, haien merkataritza-guneak animazioz eta edukiz bete ziren.

SANFERMINETAKO KARTEL-LEHIAKETA. Merkataritza Zerbitzuak antolatu zuen sanferminetako erakusleihen lehen lehiaketa. Iruñeko erdialdeko eta auzoetako 24 saltokik hartu zuten parte, eta, guztira, 3 sari zeuden, 500, 300 eta 200 eurokoak. Sari horien zenbatekoa irabazleen erakusleihoak apaintzeko da, lehiaketaren oinarrietan ezarritakoaren arabera.

HIRU BURGUEN ERDI AROKO AZOKA. Batasunaren Pribilegioaren oroitzapenezko ekitaldien barruan, irailaren 7an, 8an eta 9an egiten da, eta 120 postu jartzen dira Alde Zaharreko kale nagusietan. Erdi Aroko Iruñeko bizimodua, oro har, eta merkataritza, bereziki, erakusten duen ekitaldi horretan antzinako lanbideen erakustaldiak, antzezpenak eta kaleko musika ere izaten dira.

MERKATARITZARI PRESTIGIOA EMATEKO KANPAINA. Iruñeko Merkataritza marka ezagutzarazteko, erosketak baino gehiago, marka horren komunikazio- eta prestigio- kanpaina garrantzitsu bat egin zen; hiriko 600 saltokitan 40.000 poltsa banatu ziren, logoa protagonista duten poltsak, eta bezeroei ematen zitzaizkien, egindako erosketekin batera.

Joseba Asiron alkateak eta Patricia Perales alorreko zinegotzi ordezkariak aurkeztu zuten kanpaina, Nafarroako hainbat arlotako pertsona ezagunek lagunduta: Miguel Indurain, Enrique Martín, Iñaki Andradas, Koldo Rodero, Adriana Eransus, Susana Rodríguez, Maite Sota eta Sagrario Aleman. Kulturaren, kirolaren, arteen, gastronomiaren, literaturaren eta irakas-kuntzaren mundua han egoteak herritarren eta bizitza osoko merkataritzaren arteko lotura ere irudikatu zuen.

ZABALGUNEA LA NUIT ekimenak 1980ko hamarkada aukeratu zuen bederatzigarren edizioaren ardatz izateko. Iruñeko Udalak eta Zabalguneko Merkatarien Elkarteak, merkataritza eta ostalaritzako 80 saltokirekin batera, ekitaldi bat egin zuten iraileko azken asteburuan, sasoi berriaren hasiera bezeroekin eta bisitariekin ospatzeko. Pintura, musika, dantza, kontzertuak, promozioak eta deskontuak izan ziren, besteak beste, eta Zabalguneko merkataritza-gunea herritar eta bezeroendako festa handi bilakatu zen.

TOKIKO PRODUKTUEN III. ASTEA. Lau egunez egin zen ekitaldi hau, eta harrera ona izan zuen herritarren zein, urriaren 12ko zubiaz baliatuta, Iruñera etorritako bisitarien aldetik. Gazteluko plazan Nafarroako Elikagai Artisauen Elkarte, NNPEK eta INTIAko ekoizleen 40 postu izan ziren. Hirirako eta Nafarroarako, oro har, bertako produktuak zer garrantzi duen erakusteko ekimenaren osagarri, erakustaldiak, dastatzeak, hitzaldiak, lantegiak eta txangoak ere egin ziren. Saltzera eta ekoizlearen eta azken kontsumitzailearen arteko harremana sustatzera bideratutako postuez gain, tamaina desberdineko bi karpa handi jarri ziren (15x15 eta 10x10 metro), taberna eta hitzaldietarako, dastatzeak egiteko eta erakustaldietarako gunekak dituztenak, hurrenez hurren.

Hotelek, «Tokiko produktua» markako gosariekin, eta Santo Domingoko udal-azokak bat egin zuten ekitaldiarekin.

Bi jardunaldi tekniko egin ziren Geltokin:

«Elikadura, lurraldea eta landa-garapena»

Iruñeko turismo gastronomikoari buruzko I. jardunaldia

BLACK FRIDAY. 2018ko azaroaren 23an sustapen-kanpaina honen bosgarren edizioa egin zen; eta Iruñeko 6 merkataritza-gunetako ia 200 saltokik bat egin zuten kanpainarekin. Udalak eskaintza eta beherapen handien berri emanez parte hartu zuen sustapen honetan, Eguberrietako erosketak bultzatzeko.

EGUBERRIETAKO KANPAINA 2018-2019

EGUBERRIETAKO ARGIAK. Blachere Illumination enpresa da argi-kontratuaren adjudikazioduna, eta argiak piztuta edukitzeaz arduratu zen 2018ko azaroaren 29tik (San Saturnino, Eguberrietako kanpainaren inauguraziorako ohiko eguna Iruñean) 2019ko urtarrilaren 6ra arte. Kaleetan 193 arku jarri ziren, eta 140 apaindura-motibo faroletan. Horrez gain, argiztapen berezia ere jarri zen bost plaza hauetan: Merindadeena, Vianako Printzearena, Askatasunaren plaza, Gazteluko plaza eta Udaletxe plaza. Gainera, Karlos III.eko oinezkoendako pasealekuan neurri handiko Eguberrietako bi zuhaitz jarri ziren eta Gayarre antzokiko fatxada argiztatu zen.

EGUBERRIETAKO DEKORAZIOA SALTOKIEN ATARIAN. Alde Zaharreko eta Zabalguneko hainbat tokitan zuhaixken eta dekorazio-irudien banaketa handituz joan da urtez urte, eta, horrela, hiriko eremu gehiagotara iritsi da. Merkataritza Zerbitzuak Eguberrietako 408 irudi kudeatu, banatu eta bildu zituen kalean bertan, 8 merkataritza-gunetako beste horrenbeste establezimendutan.

66 irudi konpondu eta 46 zuhaizti berri erosi ziren Eguberrietako parkea berritzeko.

EGUBERRIETAKO AZOKA ETA BESTE ANIMAZIO-GUNE BATZUK. 2018ko abenduaren 14an hasi zen Eguberrietako Azoka, eta 2019ko urtarrilaren 6ra arte egon ziren irekita artisauen 27 postu. Bi animazio-gune handi ezarri ziren Iruñeko erdialdeko bi merkataritza-gune nagusietan: 400 metro koadroko karpa bat Gazteluko plazan, eta 225 metro koadroko beste bat Karlos III.aren etorbidean. Bi gune horietan era guztietako jarduera erakargarriak ezarri ziren, familiei eskainita oro har. Hainbat ekitaldi tradizional ere egin ziren hurbileko merkataritzarako urteko animazio- eta dinamizazio-eskaintzarako hain garrantzitsuak diren Eguberrien osagarri, hala nola Eguberrietako ibilaldi gozoak, herri txokolate-jana eta gabon-kantak, Sarasateko pasealekuko joko-pista eta auzoetako animazioak.

ZABALGUNEKO ETA ERMITAGAÑAKO UDAL-MERKATUAK

Iruñeko Udalak eta Zabalguneko eta Ermitagañako udal-merkatuek jarduera batzuk egiten dituzte urtean zehar (dagoeneko aski finkatuta ekitaldi-egutegiaren barruan), Udal Merkatuak produktua eta marka, produktu freskoen eta kalitatezkoen erreferente gisa, sustatze aldera.

2018ko urrian, Santo Domingoko Merkatua Udal Merkatuen Marketin Planari atxiki zitzaion.

Urtarrila: Zabalgune eta Ermitagañako azoketan irabiaki osasungarriak egitea eta dastatzea, nutrizionista baten esku-hartzearekin. Nutrizionista horrek, dastatzeaz gain, elikadura-ohitura onei buruzko aholkuak ematen zituen.

Otsaila: Hamarna euroko 225 erosketa-txekeren zozketa, udal-merkatuetan erabiltzeko.

Martxoa eta azaroa: Merkatuen erruleta 2009tik abian jarritako sustapen-ekintza bat da, zeinaren bidez, herritarrek, merkatuan erosteagatik, postuetako ehunka produkturen zuzeneko zozketan parte hartzen duten.

Martxoa, ekaina, iraila eta abendua: Lantegi bereziak, oporraldietan (Aste Santuan, udan eta Eguberrietan) eta eskolara itzultzeko garaian (iraila). 8 eta 12 urte bitarteko umeendako, 2 euro pertsonako. Ia 200 umeek parte hartu zuten lantegi horietan.

Apirila eta urria: Ahogozatu Udaberria eta Ahogozatu Udazkena. Merkatuetako produktuez eginiko 900 pintxo dastatzea. Iruñeko sukaldari ezagunek egin zituzten pintxoak, eta euro bat ordainduta jan ahal izan zituzten, Nafarroako ardoaz lagundurik. Udal-merkatuek, beti bezala, helburu sozial edo solidario baterako erabiltzen dute bildutako zenbatekoa, eta 2018an Nafarroako Parkinson Elkarteari eta Adacen elkarteari eman zitzairen bildutako zenbatekoa.

Maiatza: Nafarroako produktuak dastatzea: 450 arkume errazio banatu ziren bezeroen artean, produktu hori sustatzeko.

Ekaina: Merkataritzarekin, Hiria Hiriago – Bizi uda Iruñeko merkatuetan: egun horretan merkatuetan erosten dutenei loreak (gerberak) ematen zaizkie, udari ongietorria emateko. 3.000 lore banatu ziren.

Ikasturte osoan: Iruñeko ikastetxetarako bisitak «Elikatu ongi bertako produktuekin», Lehen Hezkuntzako laugarren, bosgarren eta seigarren mailetako ikasleendako. Merkatuko postuak ezagutzea, nutrizioari zein ohitura osasungarriari buruzko informazioa eta errezetak zuzenean egitea, umeei hamaiketakoan jan ditzaten. 15 eskola-taldek eskatu zuten bisita, eta ia 400 ikaslek baliatu.

Ia 400 lagunek parte hartu zuten prestakuntza horietan ikasturtean zehar.

Abendua: Eguberrietako kanpaina, eta Merkatuen egutegia ohi bezala bezeroen artean banatzea. Guztira, 11.800 ale banatu ziren.

LAGUNTZA EKINTXAILEEI ETA ENPRESEI

Denda Naiz. Proiektuak bizkortzeko ekimen bat, negozio-idea berritzaileak garatzen laguntzeko, Iruñean negozio bereizgarri berriak abian jar daitezten. 2018an, 20 ekintzailek parte hartu zuten programan, 15 proiektuekin.

Merkataritzarendako Joeren Jardunaldiak. Iruñeko merkatariei zuzenduta, helburua da parte-hartzaileak hurbiltzea, hala nola, tokiko merkataritzaren etorkizuneko joera eta aukeretara, merkataritza-motibaziora eta sare sozialetara, denda fisikoa sustatzeko. 352 lagun bertaratu ziren.

Iruña, ekintzaile. Kooperatiboa eta soziala. Gizarte-ekonomian enpresa-ekimen berriak sor daitezten bultzatzeko, programa honen helburua izan da parte-hartzaileak gaitzea kooperatibismoaren eta gizarte-ekonomiaren esparruan ekiteko, gizarte-premiei eta gizarte parte-hartzaileago eta kohesionatuago baten garapenari erantzun berritzaileak eman diezazkiekeen sektore diren aldetik. Programa bi ekintza nagusiren bidez garatu zen: batetik, «Ekintzailtza, Gizarte Berrikuntza eta Kooperatibismoa» izeneko kongresua, sektore horretako aukeren eta erronken ikuspegi globala eskaintzen ziena bertaratutako 70 pertsoneri; eta, bestetik, «Ekintzailtza, Gizarte Berrikuntza eta Kooperatibismoa» izeneko ikastaroa, gizarte-ekonomiaren sektorean ekiteko interesa dutenei zuzendua, bai eta kooperatibetan eta gizarte-ekonomiako ekimenetan diharduten eta hainbat konpetentzia (ekintzailtza, proiektu berriak sortzea, berrikuntza) eskuratu nahi dituztenei zuzendua. Hasiera batean 74 pertsonak eman zuten izena ikastaroan, eta, batez beste, 22 lagun bertaratu ziren.

Emakumeen Ekintzailtzari buruzko Zikloa. Ziklo horrek hiru jardunaldi izan zituen, eta horietan finantzaketa, enpresek beren enpresa-kudeaketan sortutako gizarte-inpaktuaren integrazioa eta Marketin Digitala jorratu ziren, eta 58 pertsona bertaratu ziren.

CEIN-Pamplona zentroak, gainera, Iruñeko Udalak bideratutako 62 ekintzaileri eman zien arreta.

IRUÑEKO MERKATARITZAKO PLAN ESTRATEGIKOA 2017-2021 (IMPE 2017-2021)

2017an, Merkataritzako Plan Estrategiko bat egitea erabaki zen, hiria Nafarroako merkataritza-buru gisa indartzeko, ekonomia eta enplegua sortzeko, Iruñeari lurraldean eskaintza anitza eta orekatua emateko, eta, azken batean, merkataritza lehiakorra, berritzailea, erakargarria, modernoa, kalitatezkoa, benetakoa eta bezeroengandik gertukoa lortzeko. Dokumentuaren xedea da funtsezko tresna izatea hiriarendako, sektorearen diagnostikoa egiteko eta erabakiak hartzeko egin daitezkeen ekintza eta politikari dagokienez. 2017an eta 2018an, Iruñeko Merkataritzako Plan Estrategikoa egin zen, Ikertalde Grupo Consultor SA enpresarekin batera, hura izan baitzen horretarako deitutako kontratazio-prozesuaren esleipenduna.

Merkataritzaren Plan Estrategikoa egiteak Iruñean merkataritza jardueraren esparrua xehetasunez aztertzea izan zuen helburu, bai eta auzo bakoitzeko eskaintza bertako eskariari nola doitu zehaztea eta plana bera antolaketa-plan gisa ezartzea, batetik, hiriaren erdialdea sendotuz eta sustatuz, eta, bestetik, auzoetako merkataritza-eremu eta -ardatzak garatuz. Halaber, planak baliagarri izan behar zuen jarduketa-proposamen egokiak diseinatzeko merkataritza, enpresa eta turismoaren eremuetan, eta jarduketak zehazteko, halakoak non Udalak eman nahi duen merkataritza bizi eta dinamikoaren irudiarekin bat etorriko diren.

Iruñeko Merkataritzako Plan Estrategikoa (IMPE) bi lan-fasetan egin zen. Diagnostikoaren lehen fasea: zegoen informazioa optimizatzea, elkarrizketa-txandak egitea, sektorea zuzenean behatzea eta online ekarpenak egitea. Hori guztia amankomunean jarrita, hausnarketarako eta eztabaidarako. Bigarren fasea ekintza-planarekin lotuta dago, eta ahuleziak, mehatxuak, indarguneak eta aukerak aztertu zituen (AMIA). Hortik eratorri zen lehen zirriborro bat, eta berriro eztabaidatu zen lan-jardunaldietan eta online ekarpenekin, plana behin betiko egin arte.

IMPE hiru alderditatik partekatutako lanean oinarritu zen: alde batetik, Merkataritza Mahaia, planaren hausnarketa publiko-pribatuaren ardatz gisa; bestetik, sektoreko eragileekin harreman zuzena eta partikularra izatea; eta, azkenik, proiektu honetarako sortu zen webgune bat, lan-esparru arin eta partaidetzari irekia.

2017-2021 aldiko Iruñeko Merkataritzako Plan Estrategikoaren jarduketa planak bost ardatz nagusi ezartzen ditu (Hiri-eremua, Bezeroa, Ekintzailletza eta lehiakortasuna, Asoziazionismoa suspertzea eta Gobernantza), 15 jarduketa-ildo eta 50 ekintza.

MERKATARITZA-BISOREA IRUSKAN

Iruñeari buruzko informazio geografikoa eskuratzeko IRUSKAN izeneko atarian, bi web-tresna berri jarri dira herritar guztien eskura: hiri-bisorea eta merkataritza-bisorea.

Merkataritza-bisorea ekintzaileendako nahiz lehendik dauden jardueretarako tresna bat da, aukera ematen duena hiriko enpresa-ehunduran dauden jarduera ekonomikoei buruzko informazioa kontsultatu eta ikusteko, bai eta eskuratu daitezkeen lokalak aurkitzeko ere.

IRUÑEKO MERKATARITZAREN MAHAIA

2018an, hiru aldiz bildu zen, Iruñeko merkataritza-markaren diseinua egiteko laguntza-kontratuan parte hartu zuten proposamenak aurkezteko, 2018rako IMPEren garapena eta egutegia azaltzeko, IMPE nola gauzatu zen azaltzeko, Merkataritza Zerbitzuko burua hautatzeko prozesuari buruzko informazioa emateko, 2018ko aurrekontu-gauzatzeari buruzko informazioa emateko, Atsegin Egiteko Planaren eraginari buruz egin beharreko azterlanaren edukiak lantzeko, merkataritza-sektoreak eskatutako azterlana eta merkataritza-sektoreko elkarteek 2019ko aurrekontuei buruz egindako proposamenak jasotzeko.

3.2.2. UDALERRIAK. TOKIKO EKONOMIA JASANGARRI. OGASUNA.

2018KO AURREKONTUA

Iruñeko Udalak 2018ko urtarrilaren 16an onartu zuen 2018ko ekitaldirako Aurrekontu Orokor Bakarra. Hona hemen Udalaren eta haren erakunde autonomoen aurrekontuak:

Erakundea	Gastuak / diru-sarrerak
Iruñeko Udalaren aurrekontua	204.543.681 euros
Hirigintzako Gerentziaren erakunde autonomoaren aurrekontua	8.617.200 euros
Udaleko haur-eskolen erakunde autonomoaren aurrekontua	9.294.964 euros

GASTUAK

KAPITULUA eta IZENA	IZENBATEKOA (€)		
	UDALA	HIRINGITZAKO GERENTZIA	HAUR ESKOLAK
A. ERAGIKETA ARRUNTAK			
1- Langileria-gastuak	84.249.828	1.338.000	7.295.000
2- Ondasun arrunt eta zerbitzuetako gastuak	73.122.918	418.600	1.269.906
3- Finantza-gastuak	1.260.000	25.000	
4- Transferentzia arruntak	22.457.708	9.000	
B) 5.- KONTINGENTZIA-FUNTSA	50.000		
C) KAPITAL-ERAGIKETAK			
6- Inbertsio errealak	11.593.427	5.125.600	730.000
7- Kapital-transferentziak	4.296.600	1.000	
8- Finantza-aktiboak	397.200		
9- Finantza-pasiboak	7.116.000	1.700.000	
GASTUEN AURREKONTUA, GUZTIRA	204.543.681	8.617.200	9.294.964

DIRU-SARRERAK

KAPITULUA eta IZENA	ZENBATEKOA (€)		
	UDALA	HIRINGINTZAKO GERENTZIA	HAUR ESKOLAK
A. ERAGIKETA ARRUNTAK			
1- Zuzeneko zergak	53.836.000		
2- Zeharkako zergak	6.073.573		
3- Tasak, prezio publikoak eta bestelako diru-sarrerak	27.005.000	153.600	1.775.000
4- Transferentzia arruntak	100.623.408	3.336.000	6.789.964
5- Ondare-sarrerak	2.929.500	1.000	
B) KAPITAL-ERAGIKETAK			
6- Inbertsio errealak besterentzea	4.297.000		
7- Kapital-transferentziak	576.000	5.126.600	730.000
8- Finantza-aktiboak	387.200		
9- Finantza-pasiboak	8.816.000		
DIRU-SARREREN AURREKONTUA, GUZTIRA	204.543.681	8.617.200	9.294.964

INBERTSIO NAGUSIAK

PARTIDA	AZALPENA	PARTIDA
INFORMATIKA ETA PROZESU-EKIPOAK		233.110,00
INFORMATIKA ETA INFORMATIKA-APLIK. BERRIAK		613.890,00
TURISMOA, BESTE ERAIK. KONP.		234.330,00
TURISMOA, ONDARE HISTORIKOA		100.000,00
TURISMOA, INF. PROZESATZEKO EKIPOAK KONP.		150.000,00
HIRIGINTZAKO KUDEAKETA. ETXEBIZITZAK		300.000,00
HIRIGINTZAKO GERENTZIA. KAPITAL-TRANSF.		1.171.600,00
Arantzadi parkea (T)	335.000,00	
Eraisketa eta urbanizatzea, Trenbideko kalea (T)	121.000,00	
Urbanizazio-kuotak L23 (T)	129.000,00	
Arrosadia HJPB (EDUSI)	193.600,00	
Ideien lehiaketa, Askatasunaren plaza	40.000,00	
Eraisketa, Argal/Talluntxe	350.000,00	
Altzariak eta Ekipoak	2.000,00	
Berrostatzeak	1.000,00	
ETXEBIZITZA ETA ONDARE-LURSAIL. BIRG.		324.808,00
ETXEB. ETA BIRG.: TRANSF. FAMILIEI		2.215.000,00
BIDE PUBLIKOA, AZPIEG. ETA ERAB. PUBLIKOKO ONDASUNAK		2.430.000,00
Pio XII.a	2.000.000,00	
Oinezkoen pasabideak	180.000,00	
Asfaltatzea	250.000,00	
BIDE PUBLIKOA. BERREZAR. BEST. INB.		854.571,00
CNP frontoia	84.946,00	
Uholde-arriskua	20.000,00	
Santa Teresa plaza	200.000,00	
Trinitarios	200.000,00	
Jarauta	198.300,00	
Espaloiak berritzea	151.325,00	
BIDE PUBLIKOA AZTERLANAK ETA PROIEKTUAK		196.000,00
Haur-parkeen irisgarritasuna	6.000,00	
Ideia-lehiaketa, Sarasate	50.000,00	
Proiektuak	50.000,00	
EDUSI	90.000,00	
BERDEGUNEAK. ERAB. PUBLIKOKO ONDAS. ETA AZPIEG.		263.465,00
Arantzadi eta beste batzuk	149.000,00	

PARTIDA	CONCEPTO	PARTIDA
Apeztegia, altzariak	114.465,00	
BERDEGUNEAK, AZPIEGITURAK KONP. INB.		300.000,00
BERDEGUNEAK, MAKINERIA ZERB. KONP. INB.		130.000,00
ERAIKIN OROKORRAK ETA/EDO ETXEBIZITZAK		300.000,00
MUGIKORTASUNA, ERAB. PUBLIK. ONDASUNAK ETA AZPIEG.		597.440,00
MUGIKORTASUNA, ERAB. PUBL. AZPIEG. BERREZAR. INB.		140.000,00
HAUR ESKOLAK, KAPITAL-TRANSF.		730.000,00
Eraikinak birgaitzea	630.000,00	
Altzariak eta ekipoak berritzea	90.000,00	
Ekipamendu informatikoak	10.000,00	
IKASTETXE PUBLIKOAK, ERAIKINAK		375.513,00
LIBURUTEGIAK, FUNTS BIBLIOGRAF.		81.500,00
KULTUR INSTALAZIOEN BABESA ETA KUDEAKETA		197.776,00
UDALTZAINGOA, BESTE INSTALAZIO BATZUK		150.000,00
MUGIKORTASUNA, ZIRKULAZIOA ETA SEMAFORO-INSTALAZIOAK		200.000,00
HARRERA ETA GARAPENA, INSTAL. KONP. INB.		285.000,00
PROGRAMAK, ZENTROAK ETA INSTAL. KONP. INB.		225.200,00
ARRETA GAR. HERRIALDEEI, TRANSFERENTZIAK KANPORA		180.000,00
ENPLEGU SOZIALA IBILGAILUAK BABES		100.000,00
KIROL INSTALAZIOAK, INST. KONP. INB.		130.000,00
HERRITAR. PARTAIDETZA, INST. KONP. INB.		1.588.537,00
Obrak. Redín y Cruzat	720.000,00	
Salestarren ekitald. aretoa + laguntz. teknikoa	523.439,00	
Salestarrak II. fasea + laguntza teknikoa	345.098,00	

Urtean barna, zenbait aurrekontu-aldaketa onetsi ziren, udalaren aurtengo aurrekontuko partidak igotzea eragin zutenak. Iruñeko Udalaren Osoko Bilkurak 8,97 milioi euroren aldaketak onartu zituen; hori horrela, 2018ko behin betiko aurrekontua 213,51 milioi eurokoa izan zen.

BEHIN BETIKO AURREKONTUAREN BILAKAERA

(milioi euro)

2013	2014	2015	2016	2017	2018
192,4	191	198,8	205,6	220,7	213,5

2017KO KONTU OROKORRA ETA AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

2018an, 2017ko aurrekontu-likidazioa eta ekitaldi horretako kontu orokorra onartu ziren. Iruñeko Udalaren tokiko sektore publikoak (Udalak berak, Hirigintzako Gerentziak, Haur Eskolek, Iruña Biziberritzen SAK, ASIMECEk, ANIMSAk eta Gayarre Antzokia fundazioak osatuta), kontabilitate nazionalaren balioetan, 8,35 milioi euroko aurrekontu-superabit edo finantzaketa-gaitasunarekin itxi zuen 2017. urtea. 2017. urtearen amaieran diruzaintzako gastu orokorretarako geldikin kontsolidatua 15,1 milioi eurokoa zen; hala bada, 8,8 milioi euro baino gehixeago jaitsi zen 2016koarekin alderatuta (24 milioi).

Udalak, 2017an, hornitzaileei 34,1 eguneko epean ordaindu zien batez beste, ia lau eguneko igoera 2016koarekin alderatuta (30,2 egun).

Hiruhilekoa	Hornitzaileei ordaintzeko batez besteko epea
Lehenengoa	3,02
Bigarrena	2,56
Hirugarrena	12,65
Laugarrena	7,64

GASTUAK, BIZTANLEKO

Kontzeptua	GA	Behin betiko aurreikuspena	Aitortutako obligazioak	Biztanleko zenbatekoa
Zor publikoa	0	16.116.755,39	14.623.996,65	74,18
Oinarrizko zerbitzu publikoak	1	84.836.385,06	70.830.739,13	359,30
Gizarte-babeseke eta -sustapeneko jarduketak	2	49.582.234,72	47.153.621,38	239,19
Lehentasunezko ondas. publ. ekoizpena	3	42.041.123,41	39.904.972,39	202,42
Jarduketa ekonomikoak	4	4.959.240,62	4.454.184,30	22,59
Izaera orokorreko jarduketak	9	24.192.849,00	22.652.500,76	114,91
Gastuak, guztira		221.728.588,20	199.620.014,61	1.012,59

DIRU-SARRERAK, BIZTANLEKO

Kontzeptua	Kap.	Behin betiko aurreikuspena	Aitortutako eskubideak	Biztanleko zenbatekoa
Zuzeneko zergak		52.125.000,00	51.908.402,14	263,31
Zeharkako zergak	2	5.850.000,00	6.076.237,36	30,82
Tasak eta bestelako diru-sarrerak	3	28.751.600,00	32.226.848,99	163,47
Transferentzia arruntak	4	97.673.027,00	98.115.172,47	497,70
Ondare-sarrerak	5	2.835.500,00	2.742.663,18	13,91
Inbertsio errealak besterentzea	6	3.994.775,00	5.181.706,76	26,28
Kapital-transferentziak	7	6.653.653,00	2.541.305,64	12,89
Aktibo finantzarioak	8	16.865.095,20	168.513,92	0,85
Pasibo finantzarioak	9	6.979.938,00	0,00	0,00
Diru-sarrerak, guztira		221.728.588,20	198.960.850,46	1.009,25

ORDENANTZA FISKALAK ETA PREZIO PUBLIKOAK

Iruñeko Udaltzako, 2018ko abenduaren 17ko Osoko Bilkuran, behin betiko onetsi zituen 2019ko urtarrilaren 1ean indarrean sartu ziren Ordenantza Fiskalen eta Prezio Publikoak erregulatzen dituzten Arauen artikuluen eta tarifa-eranskinen aldaketak.

Honako hauek dira Ordenantza Fiskaletan eta Prezio Publikoak erregulatzen dituzten Arauetan aldatu diren artikulua eta tarifa-eranskinak, 2019ko urtarrilaren 1ean indarra hartuko dutenak:

- 1. ordenantza.- Hiri-unitateen karga-tasa aldatu da.
 - 4. ordenantza.- 6. artikulua eta tarifa-eranskina aldatu dira
 - 8. ordenantza.- I. epigrafea, 2. apartatua aldatu da tarifa-eranskinean.
 - 21. ordenantza.- I.4 epigrafea aldatu da ordenantzaren testuan eta tarifa-eranskinean.
 - 1. araua.- 3. artikulua aldatu da, eta 8., 9. eta 10. artikulua gehitu dira. Tarifa-eranskinean gehitu dira hauek: V. epigrafea, lerro bana I. eta IV. epigrafeetan
 - 3. araua.- Arauaren titulua aldatu, 6. eta 7. artikulua kendu eta 8. artikulua aldatu da.
- Tarifa-eranskinean, 2. epigrafea aldatu eta 3. epigrafea kendu da.

Ordenantza Fiskalen eta Prezio Publikoak erregulatzen dituzten Arau guztien testu osoa eta eguneratua Udalaren webgunean kontsultatu daiteke, hemen: www.pamplona.es

INBENTARIOAREN BALIOA, GUZTIRA

2013. urtea	795.155.430,85€
2014. urtea	799.380.216,96€
Korporazio-aldaketa: (2015/06/12)	793.784.739,44€
2015. urtea	809.318.719,81€
2016. urtea	814.241.335,51€
2017. urtea	820.921.246,90€
2018. urtea	807.786.311,85€

VALOR TOTAL DE EDIFICIOS Y LOCALES MUNICIPALES

	2014	12/06/215	31/12/2015	31/12/2016	31/12/2017	31/12/2018
Bulego-eraikina	13.441.411,47	13.441.411,47	13.441.411,47	13.475.863,56	13.517.667,26	13.621.922,76
Merkataritza- eraikina	6.772.371,57	6.772.371,57	6.772.371,57	6.772.371,57	6.772.371,57	6.772.371,57
Kultura- eta/edo gizarte-instalazioa	52.986.252,78	52.986.252,78	53.087.764,89	53.151.693,54	53.781.940,17	56.423.940,89
Irakaskuntza- eraikina	90.273.260,61	90.293.248,61	90.663.074,92	91.342.158,64	91.635.341,20	92.524.181,60
Kirol-instalazioa	42.503.220,72	42.503.220,72	42.511.497,02	42.631.056,95	42.648.963,93	42.970545,44
Osasun-eraikina	11.105.765,41	11.105.765,41	11.124.822,30	11.369.458,65	11.480.195,07	11.542.723,00
Bestelako zerbitzuak	19.740.149,17	19.740.149,17	19.775.723,17	19.889.291,83	20.627.240,92	20.687.862,24
Zerbitzu-galeria	14.602.340,36	14.602.340,36	14.602.340,36	14.602.340,36	14.602.340,36	14.602.340,36
Etxebizitza	31.044.755,54	31.076.342,10	31.610.600,93	32.052.096,73	32.592.007,09	33.736.782,29
Lokala	19.064.057,07	19.093.057,07	19.077.911,56	19.873.946,15	19.758.978,19	21.326.426,65
Trastelekua	383.507,35	383.507,35	383.507,35	383.507,35	383.507,35	383.507,35
Garajea	2.207.868,77	2.207.868,77	2.207.868,77	2.207.868,77	2.207.868,77	2.207.868,77
Kioskoak	21.629,37	21.629,37	21.629,37	21.629,37	21.629,37	21.629,37
Beste eraikuntza batzuk	6.221.499,51	6.221.499,51	6.251.711,48	6.356.499,51	6.367.994,51	6.375.836,54
ERAIKUNTZAK, GUZTIRA	310.368.089,70	310.448.664,26	311.532.235,16	314.129.782,98	316.398.045,76	323.197.938,83

3.2.3. UDALERRIAK. TOKIKO EKONOMIA JASANGARRI. GIZA BALIABIDEAK.

UDAL-PLANTILLA

PLANTILLAREN BILAKAERA

	2014	2015	2016	2017	2018
IRUÑEKO UDALA					
Funtzionarioak	936	901	890	877	887
Kontratu administratiboa duten langileak	315	372	369	411	361
Langile kontratudunak					180
GUZTIRA	1251	1273	1259	1288	1428
HAUR-ESKOLAK ERAKUNDE AUTONOMOIA					
Funtzionarioak	66	60	54	49	43
Kontratu administratiboa duten langileak					79
Langile kontratudunak					71
GUZTIRA	133	182	182	¿?	193
HIRIGINTZAKO GERENTZIA					
Funtzionarioak	17	14	15	14	14
Kontratu administratiboa duten langileak	12	8	9	9	11
GUZTIRA	29	22	24	23	25

Iruñeko Udaleko eta haren erakunde autonomoetako 2018. urteko langileak kalkulatzeko, honako hau hartu da kontuan:

- Funtzionarioak: 2018ko abenduaren 31n, nominan jardunean zeuden funtzionario guztiak.
- Kontratu administratiboa duten langileak: Lanpostu huts bat betetzen duten langileak edo lanpostu hutsa duen funtzionario edo administrazio-kontratudun bat nominan benetan ez egotea ordezten dutenak.
- Langile kontratudunak: Kontratu mugagabea edo kontratu mugagabe ez-finkoak dituzten langileak.

2018an egindako hautaketa-prozesuei dagokienez, honako hauek nabarmendu behar dira:

- Jarduera fisikoaren eta kirolaren zientzietako graduduna. 2017an hasia.
- Desinfekzioko profesional-ofiziala. 2017an hasia.
- Biolako irakaslea.
- Ganbera-musikako irakaslea.
- Fagoteko irakaslea.
- Kantuko irakaslea.
- Langileen kudeaketako administraria, NEZren bidez.
- Mekanikaria, NEZren bidez.
- Mekanika-arduraduna, NEZren bidez.
- Lorategietako zerbitziburua.
- Ekonomialaria.
- Tubako irakaslea.
- Tronboiko irakaslea.
- Marrazketako irakaslea.
- Administrari-ofiziala.
- Merkataritzako zerbitziburua.
- Kulturako goi-mailako teknikaria. Euskal Kulturako espezialitatea.
- Komunitate-teknikaria.
- Udaltzaina.
- Polizia-inspektorea.

2018an hasi eta 2019an amaituko diren beste deialdi batzuk:

- Elikagaien industriako goi-mailako teknikaria. 2017an hasia.
- Ingurumeneko goi-mailako tituluduna. 2017an hasia.
- Hiriarte – Kultura Garaikideko Zentroko koordinatzailea.
- Zuzenbideko lizentziaduna.
- Pianoko irakaslea.
- 1. mailako ofiziala, elektrikaria.

- Ganbera-musikako irakaslea.
- Langileriako administrari-ofiziala.
- Kabo-mailara igotzeko lehiaketa.
- Inspektore-orde izateko lehiaketa.
- Partaidetzako teknikaria, lanpostu finkoa.
- Ekonomialaria, lanpostu finkoa.
- Laneko harremanen arduraduna.
- Udaltzaingoko lekualdatzeak, Kaboa eta Inspektore-ordea.

LAN-ESKAITZA PUBLIKOA

Udalak eta haren erakunde autonomoek 2018. urterako lan-eskaintza publikoa onartu zuten, Estatuko aurrekontu-araudiarekin bat etorriz, horren barruan honako lanpostu hauek sartuta:

Iruñeko Udala

- 7 udaltzain
- 1 ekonomialari
- 1 kontu-hartzaile ordezkari
- 1 tributu-ikuskatzaile
- 1 industria-ingeniari tekniko
- 1 arkitekto
- 2 partaidetza-teknikari
- 1 gazteria-teknikari
- 1 berdintasun-teknikari

Haur Eskolak

- 10 hezitzaile

Hirigintzako Gerentzia

- 1 ekonomialari

PRESTAKUNTZA

Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioaren bidez, Iruñeko Udaleko eta haren erakunde autonomoetako langileek 93 prestakuntza-ekintzatan parte hartu zuten, 76 espezialitate desberdinekin. Hona hemen ekintza horiek:

Udaleko 465 langilek (Udalekoak eta Erakunde Autonomoetakoak) egin zuten prestakuntza; horietatik 280k ikastaro bat egin zuten, eta 185ek, bat baino gehiago. Guztira, 813 bertaratze prestakuntza-ikastaroetara. Prestakuntzako 9.790,50 orduren baliokidea da hori guztia.

Bestalde, prestakuntza-ekintza horietako batzuk Udaleko Prebentzio Alorraren ekimenez egin ziren; hala, 2018. urtean, guztira, 12 ikastaro antolatu ziren, eta horietan Udaleko 174 udal-langilek parte hartu zuten.

LANEKO ARRISKUEN PREBENTZIOA

Istripuen ikerketa.

2018an zehar, Iruñeko Udalean 96 lan-istripu gertatu ziren, baja medikoa behar izan zutenak, eta 62 lan-istripu, laguntza medikoa behar izan zuten arren, baja medikorik behar izan ez zutenak. Baja medikoa eragin zuten 96 istripuetatik, 56 lan-jardueran zehar gertatu ziren, 15 Udaltzaingoko langileen lan-istripuak izan ziren herritarrekiko erasoan edo borroken ondorioz, edo giharretako arazoak eta/edo polizia-jarduketetan izandako erorikoen ondorioz, 9 «in mission» istripuak izan ziren, eta 16, «in itinere» istripuak.

2018an, % 15 jaitsi zen baja eragin duten istripuen kopurua, eta, % 29,50, baxarik gabeko istripuen kopurua, aurreko urteekin alderatuta. Larritasun-indizeak bere horretan jarraitu zuen, eta baje iraupenak gora egin zuen; izan ere, 2017an 6 istripu gertatu eta 2018ko zati handi batean baje mantendu ziren.

Osasun-azterketak.

2018an, osasun-azterketa egiteko 893 hitzordu egin zitzaizkien udal-langileei, eta 712 langile joan ziren; hau da, deitutakoen % 80.

Eraikuntzen azterlanak eta autobabeserako planak.

2018an larrialdiko ebakuazioko 13 simulazio egin ziren 12 udal-eraikinetan. 13 udal-eraikinetako larrialdi-neurriak berrikusi ziren.

ANTOLAKETA ETA GIZA BALIABIDEAK

Giza Baliabideen Alorrak antolaketa-azterlan batzuk egin zituen, udal-zerbitzuak aztertzeko eta berrantolatzeko.

2018. urtean, hauek egin ziren:

- Eskoletako zerbitzua. Urtarrilean hasia eta apirilean amaitua.
- Herritarrendako Arreta Bulego Zerbitzua. Urtarrilean hasia eta apirilean amaitua.
- Ordenantzen zerbitzua. Martxoan hasia eta maiatzean amaitua.
- Ibilgailu Parkeko Zerbitzua. Maiatzean hasia eta uztailean amaitua.
- Zoonosi eta Elikadura Ikuskaritzako Zerbitzua. Abenduan hasia eta 2019ko maiatzean amaitzeko aurreikuspena.

Gainera, barne-prozesuak egin ziren langileen mugimendua errazteko eta denboran zehar iraunarazi diren interinitate-egoerak konpontzeko. Horrela, lekualdatze-lehiaketa bat egin zen administrazioko langileendako (laguntzaileak eta ofizialak), eta, ondoren, sustapen-deialdi bat, plazak areagotu gabe, administrari laguntzaileek administrari-ofizialaren lanpostura igotzen ahal izateko.

Era berean, eta Hiri Kontserbazioko alorreko zerbitzuen eraginkortasuna hobetzeko helburuarekin, lekualdatze-deialdiak egin ziren. Horrela, Hiri Kontserbazioko Mantentze Lanen Ardurdunaren eta Ikuskari Laguntzailearen postuen interinitateak erregularizatu ziren, gero, zerbitzuen funtzionamendu egokirako dauden eta beharrezkoak diren plaza guztiak bete ostean, aipatutako postuetarako sustapen-deialdiak egiteko, langileen lanbide-sailkapena eta/edo sailkapen ekonomikoa erregularizatze aldera.

Orobat, Giza Baliabideen Alorrak udaleko hainbat zerbitzuek edo langileek egindako eskaera guztiei erantzun zien, zalantzak argitzeko edo sortutako gatazka-egoerak konpontzeko, lan-baldintza hobekia lortze aldera.

3.2.4. UDALERRIAK.

TOKIKO EKONOMIA JASANGARRI. TURISMOA.

JARDUERA NAGUSIAK

2018. urtea hiriaren Turismoko 2017-2019 aldiko Plan Estrategikoarekin hasi zen, zeina sei ekintza-ildotan egituratuta baitago: Gobernantza, Helmuga egituratzea, Helmugako informazioa, Jasangarritasuna, Produktua eta Marketina. Dokumentuak berak definitzen ditu Turismo Zerbitzuaren lan-helburuak. Horien artean, Iruñeko irudi turistikoaren posizionamendua zehaztearen garrantzia nabarmentzen da, bai helmuga propio gisa hiri estrategiaren barruan, bai Nafarroako turismoaren irudi orokorrean integratuta. Sanferminak alde batera utzita, hiriaren marka-irudi bat eskatzen da jasangarritasunean, bizi-kalitatean (ongizatea, osasuna eta irisgarritasuna), gastronomian, berrikuntzari lotutako tradizioan, garapenean eta nazioartekotzean, eta soziabilitate-, harrera- eta abegi-balioetan oinarritutako turismoari begira.

Ildo horretan, Iruñeari nortasun berezia eman nahi zaio, bere elementu identitarioetan oinarrituta, lehiakortasun turistikorako faktore gisa. Horretarako, sanferminen rola, elementu bakar, unibertsal eta berezile gisa, berrikustearen aldeko apustua egin da; eta festaren turismo-estrategia eta urte osoan zehar produktua mantentzeko lana zehazteko beharra planteatzen da. Jaiaren ospea hobetzearen alde lan egitea eta gastronomia, lorategiak eta Donejakue bidea bezalako beste baliabide batzuk txertatzea azpimarratzen du planak.

LAN-MAHAIK

LAN-MAHAIK

2018an bi bilera egin ziren Sanferminetako Mahaiaren barruan, eta hiriko 7 turismo-elkarte bertaratu ziren. Gastronomia Mahaiaren barruan ere hiru bilera egin ziren, eta hiriko 7 turismo elkarte hartu zuten parte. Eta, azkenik, Ostatuen Mahaian, hiru bilera egin ziren, eta horietan 10 enpresa parte-hartzailerik egin zitzaizkien parte hartzeko deia.

Bestalde, Osasun Klusterrak eta Mice Mahaiak lehendik zituzten mahaietan jarraitu zen lanean. 2018ko azaroan, Mice mahai berrantolatzekeo prozesuari ekin zitzaion.

Honako proiektu hauek abiarazi ziren:

- Iruña berdea da: lorategi eta hiri-ekologiako zerbitzua.
- Ekitaldien eragin turistikoen azterlana: Kultura Alorra
- Behin-behineko ostatuen ordenazioa aldatzea: Hirigintza

Turismo-elkarteendako laguntzen deialdiak aldaketa handiak izan zituen 2017-2018 aldian, turismoa sustatzeko jarduerak egiteari dagokionez, aurreko urtearekin alderatuta, 2017-2019ko Iruñeko Turismoko Plan Estrategikoaren helburuetara egokitzeko. 2017-2018ko deialdira 7 elkarte aurkeztu ziren, 31 jarduerarekin, guztira, eta horietatik 10 ezetsi ziren. Onartutako gastu guztiak 146.650,22 eurokoak izan ziren, eta aurreikusitako diru-sarrerak kendu ondoren, defizita 89.745,32 eurora iritsi zen. Guztira, 31.088,60 € banatu ziren.

HELMUGA EGITURATZEKO PROGRAMAK

UDAL-ESKUMENEN TURISMOARI BURUZKO ARAUDIA GARATZEA

Alde Zaharreko Udal Plana eta BEBPB aldatzeko arau-zirriborrea otsailaren 1ean onartu zen Osoko Bilkuran. Herritarren parte-hartze prozesu bat egin zen, eta, bertan, auzo-elkartek, merkataritza-elkartek eta turismo-elkartek hartu zuten parte. 2018. urtearen amaieran, Osoko Bilkuran onartzeke zegoen arau-proposamena.

Legez kanpoko eskaintzaren aurka borrokatzeko asmoz, azterketa bat egin, eta legez kanpoko 50 ostatu turistiko baino gehiago hauteman ziren. Informazio horrekin salaketa bat aurkeztu zitzaion Nafarroako Gobernuari 2018ko abenduaren 23an.

IRISGARRITASUN INTEGRALA SUSTATZEA

Seinaleztapen turistikoari dagokionez, batez ere KIO espazioei eragiten dien interpretazio-seinaleztapenaren azterketa bat egin zen. Ez zen gauzatu, Vianako Printzearen oniritziaren zain.

AUTOKARABANENDAKO EREMUA

Trinitariosen gaitutako autokarabanendako zerbitzuguneak % 49,21eko batez besteko okupazioa izan zuen 2018an. Hala ere, erabatekoa izen zen okupazioa abuztuan. Uztailean eta irailean % 60 gainditu zuen okupazioak; urtarrilean eta otsailean, berriz, okupazioa doi-doi izan zen % 15ekoa. Guztira, 64.900 euro bildu ziren.

PARKING AUTOCARAVANAS. PAMPLONA. Inicio jul 2017							
	RECAUDACIÓN 2018			OPERACIONES2018			PLAZAS: 33
	TELPARK	CAJEROS +TC	TOTAL	TELPARK	CAJEROS +TC	TOTAL	OCUPACIÓN
ENE 18	8,00	1438,00	1.446,00	2	145	147	14,37%
FEB 18	40,00	1544,00	1.584,00	12	156	168	16,42%
MAR 18	54,00	3556,00	3.610,00	11	332	343	33,53%
ABR 18	48,00	4830,00	4.878,00	7	475	482	47,12%
MAY 18	74,00	5868,00	5.942,00	16	554	570	55,72%
JUN 18	30,00	4808,00	4.838,00	2	457	459	44,87%
JUL 18	48,00	10028,00	10.076,00	5	684	689	67,35%
AGO 18	2,00	10.204,00	10.206,00	1	1029	1030	100,00%
SEP 18	12,00	7.294,00	7.306,00	6	709	715	69,89%
OCT 18	20,00	6.302,00	6.322,00	1	602	603	58,94%
NOV 18	16,00	3.790,00	3.806,00	1	360	361	35,29%
DIC 18	52,00	4.834,00	4.886,00	15	467	482	47,12%
TOTAL 2018	404,00	64.496,00	64.900,00	79,00	5.970,00	6.049,00	

TURISMO-SEKTOREKO ELKARTEENDAKO LAGUNTZAK

Turismo-elkarteendako laguntzen deialdiak aldaketa handiak izan zituen 2017-2018 aldian, turismoa sustatzeko jarduerak egiteari dagokionez, aurreko urtearekin alderatuta, 2017-2019ko Iruñeko Turismoko Plan Estrategikoaren helburuetara egokitzeko. 2017-2018ko deialdira 7 elkarte aurkeztu ziren, 31 jarduerarekin, guztira, eta horietatik 10 ezetsi ziren. Onartutako gastu guztiak 146.650,22 eurokoak izan ziren, eta aurreikusitako diru-sarrerak kendu ondoren, defizita 89.745,32 eurora iritsi zen. Guztira, 31.088,60 € banatu ziren.

TURISMOA DINAMIZATU ETA SUSTATZEKO PROGRAMAK

CREACITY (Harresiak eta gastronomia)

Creacity egitasmoaren esparruan, Turismo Zerbitzuak hiru hirietako (Iruña, Baiona eta Hondarribia) liburuxka turistiko komun baten lanketan hartu zuen parte. Produktu turistikoan oinarritutako bisita gidatu bat egin zen Iruñeko harresietara, eta produktu turistiko merkaturagarri bat garatzeari ekin zitzaion, non hiru hirietara bisitak egitea barne hartzen baita. Produktu turistiko hori garatzeko, beste hirietako produktu turistikoa prestatzeko eta ezagutzeko jarduerak egin ziren, sektore hartzaileari zuzenduta. Bisitak egin ziren Baionara eta Hondarribira. Iruñeak Baionako Xingarraren Azokan eta Hondarribiko tokiko produktuaren azokan parte hartu zuen. Horrez gain, proiektua koordinatzeko bileretan hartu zuen parte. Creacity proiektuaren barruan, «Harresia kantatu, kontatu eta dastatu» bisita gidatu berri bat sortu zen, harresiaren historia ikuspegi historiko, arkitektoniko eta sozial batetik kontatzea helburu duena, betiere espazioa Hondarribiko eta Baionako hiriekin lotuz. Hiru bisita egin ziren udan. Horrez gain, dinamizazio-jarduerak egin ziren harresiaren inguruan: karrikadantzak uztailearen bigarren hamabostaldian, eta «Harresia kandelen argitan» jarduera, Virgen de la O plazan.

JACOB@CCESS (Donejakue bidea)

Proiektua koordinatzeko eta Iruñeko Donejakue Bidearen Interpretazio Zentroa egokitzeko obraren jarraipena egiteko bileretan parte hartu zuen Iruñeak. Jacob@ccess proiektuaren esparruan, Ultreia, Donejakue Bidearen Interpretazio Zentroa, martxan jartzeko behar diren obrak egin ziren. Kultura pertsona guztiei hurbiltzea da zentroaren helburua, irisgarritasun unibertsala landuz.

KINTOAN BARNA (natura eta kultura)

Proiektua abiarazteko bileretan hartu zen parte.

PAMPLONA IRUÑA CARD

2018an, aldatu egin zen hitzarmenaren enuntziatua, eta amaitu egin zen administrazio-izapidetzea. Hitzarmena 9 enpresa gehiagok sinatu zuten, eta, guztira, 29 enpresa daude atxikita. 339 txartel jaulki ziren. Turismo Zerbitzuko, turismo-bulegoko, edikuluetakoko eta abarretako euskarri guztietan ekin zitzaion komunikazioari. Halaber, flyer batzuk jarri ziren proiektuari atxikitako establezimenduetan.

IRUÑA BERDEA DA

2018an, hiriko parkeen eta lorategien balorizazio turistikoari buruzko azterlan bat egin zen. Produktua garatzeko ildoak ezarri ziren, eta produktu berri hori garatutako sustapen-euskarri guztietan sartu zen.

BESTE EKINTZA BATZUK

- **Ekitaldiak:** hiriko jaialdi eta ekitaldi handien sektorea aztertzeko azterlan bat egin zen, lan-ildoak ezartze aldera. Lehen hartu-emanak egin ziren Nafarroa Arenarekin, ekitaldi handietan parte hartzen duen bezeroaren harrera hobetzeko asmoz. Hiririari buruzko hiru gida turistikokultural argitaratu ziren: urtarrila – ekaina, uztaila – urria eta azaroa – Abendua.

- **Baratzetik mahaira:** produktu turistiko horren barruan sartzen dira Zerbitzuak garatutako ekintza guztiak. Udan, hiriko hoteletan egiten diren dastatzeak sustatu ziren zehazkiago, eta, horrela, Descalzos kaleko aretoan egiten ziren dastatzeak ordezkatu ziren. Tokiko Produktuaren Astea egin zen Merkataritza Zerbitzuarekin, Iruñeko baratzei eta Nafarroako tokiko produktuei lotutako esperientzia turistikoak eskaintzeko.

- **Mice Mahaia:** Euskadiko eragileendako merkataritza-ekintza bat egin zen.

- **Osasun Klusterra:** Osasun Klusterrarekin batera joan zen Benidormera azaroan, helmuga Errusiako merkatuari aurkezteko.

- **Pilota produktua:** ekainaren 11n eta 12an egindako pilotaren inguruko mintegi bat babestu zen. Mintegi horretan, pilotarekin lotutako zenbait alderdi sentikor (arkitektura, historia, balio soziala ...) aztertu ziren, produktu turistiko den aldetik.

MARKETINA ETA KOMUNIKAZIOA

2018an, Turismo Zerbitzurako komunikazio-plan bat definitzeko egin zen lan. Hasteko, kontaketa, produktuak eta haien ezaugarriak zehaztu ziren, bai eta bitartekoak eta 2019ko ekintzen egutegia ere. ANIMSArekin elkarlanean, Turismo zerbitzuaren webgunearen edukia landu zen, eta webgune hori udalaren www.pamplona.es/turismo webgunean sartu zen. Urteko lehen seihilekoan, sanferminoficial.com webgunearen informazio turistikoa hobetzeko ekarpenak egin ziren.

Zatoz Iruñera marka garatu zen. Apirilean egin zen markaren aurkezpena sektorearen eta he-dabideen aurrean. Ondoren, mezuak, kontaketa, produktuak, produktu bakoitzaren kontaketa eta markari lotutako balioak garatzen jarraitu zen. Elkarte sektorialen aurrean aurkeztu zen urteko azken hiruhilekoan.

PARTICIPACIÓN EN FOROS Y FERIAS

- Urtarrilaren 17tik 19ra bitartean, FITUR Turismoko Nazioarteko Azokan.
- Iruñea-Nafarroa MICE Helmuga Munich eta Dusseldorf hirietan aurkeztu zen, 2018ko martxoaren 21ean eta 22an.

TURISMOKO INFORMAZIO-ZERBITZUAK

Aldaketa sakona egin zen turismo-bulegoko eta San Bartolome gotorlekuko bisitariendako Informazio Zerbitzuaren eskudantzietan, 2017. urtearen amaieran egindako lizitazioaren ondorioz, zeina, azkenean, 2018. urtean ebatzi baitzen. Lehenik eta behin, San Bartolome gotorlekuak turismo-bulego funtzioak beteko ditu. Turismo-bulegoak funtzio gehiago garatzen ditu komunikazioan, merkaturatzean eta PIC txartelaren sustapenean, eta horrek bultzada handia ematen dio zerbitzuari eta haren eraginkortasuna hobetzen du. Horren ondorioz, handitu egin dira tokiko harrerako turismo-enpresek partikularrei egindako bisita gidatuak, eta nabarmen hobetu da komunikazioa.

TURISMO BULEGOA

2018an zehar, Iruñeko Udaleko Turismo Bulegoak 126.509 turistari eman zien arreta, eta aurreko urtean, 139.377 turistari. Estatistika-datuetan ikus daitekeen bezala, bisitarien guztizkoaren beherakada txiki bat egon zen 2018an, 2017arekin alderatuta. Beherakada hori bisitari nazionaletan zein nazioartekoetan gertatu zen, baina nabarmenagoa izan zen bisitari nazionalen artean. Turismo-bulegoan arreta gutxiago jasotzeko arrazoiak turistak alde aurretik informazio-materialarekin etortzen direlako izan daitezke (ostatuetan edo beste turismo-bulego batzuetan jasota) edo, une jakin batzuetan, bulegoan ilara ikustean, ez itxarotea erabakitzen dutelako eta alde egiten dutelako. Abuztua izan zen kontsulta gehien erregistratu ziren hilabetea.

	AÑO 2018	AÑO 2017
Total visitantes nacionales	79.175	90.259
Total visitantes internacionales	47.334	53.121
TOTAL VISITANTES	126.509	139.377

BISITARIAK, HILABETE BAKOITZEKO

	Nacional	Internacional	TOTAL
Enero	2.229	574	2.803
Febrero	2.268	565	2.833
Marzo	6.155	1.310	7.465
Abril	6.048	3.833	9.81
Mayo	5.084	7.261	12.345
Junio	6.369	5.669	12.038
Julio	9.998	6.859	16.857
Agosto	17.689	8.469	26.158
Septiembre	8.182	7.154	15.336
Octubre	6.658	4.211	10.869
Noviembre	4.393	879	5.272
Diciembre	4.102	550	4.652
TOTAL	79.175	47.334	126.509

BISITARI NAZIONALAK, JATORRIAREN ARABERA

País	Nº PERSONAS
Andaluzia	6.597
ARAGOI	3.526
Asturias	1.421
Kantabria	567
Gaztela eta Leon	4.712
Gaztela-Mantxa	3.177
Katalunia	13.203
Ceuta	14
Euskadi	6.860
Extremadura	838
Galizia	1.775
Balear Uharteak	732
Kanariar Uharteak	1.137
Errioxa	819
Madril	13.050
Melilla	21
Murtzia	2.346
Nafarroa	8.902
Euskadi	6.860
Valentzia	9.478

Datu horietatik ondoriozta daiteke zein hiru autonomia-erkidegotatik etorri ziren bisitari gehien:

-Katalunia: 13.203 pertsona (bisitari nazionalen % 16,67)

-Madril: 13.050 pertsona (bisitari nazionalen % 16,48)

-Valentziako Erkidegoa: 9.478 pertsona (bisitari nazionalen % 11,97)

NAZIOARTEKO BISITARIAK, HERRIALDEAREN ARABERA

HERRIALDEA	PERTSONA KOP.
Alemania	6.069
Andorra	44
Argentina	2.130
Australia	1.140
Austria	381
Bélgica	884
Brasil	401
Canadá	748
Chile	208
China	144
Colombia	376
Corea	433
Dinamarca	230
EEUU	3.675
Francia	14.532
Grecia	114
Holanda	2.216
Hungría	87
India	33
Irlanda	1.024
Israel	222
Italia	3.482
Japón	437
México	589
Nueva Zelanda	169
Países Nórdicos	437
Polonia	284
Portugal	531
Reino Unido	3.348
República Checa	111
Resto África	41
Resto América	665
Resto Asia	154
Resto Europa	680

Datu horietatik ondoriozta daiteke zein hiru herrialdetatik etorri ziren bisitari gehien:

- Frantzia: 14.532 pertsona (nazioarteko bisitarien % 30,70)

- Alemania: 6.069 pertsona (nazioarteko bisitarien % 12,82)

- Italia: 3.482 pertsona (nazioarteko bisitarien % 7,35)

HARRESIEN INTERPRETAZIO-ZENTROA: SAN BARTOLOME GOTORLEKUA

San Bartolome gotorlekuan arreta eman zitzaien pertsona gehienak nazionalak izan ziren (bisitarien % 71,98); bisitari atzerritarrak, berriz, % 15,43 izan ziren. Profilari dagokionez, gehienek familiarekin egin zuten bisita (bisitarien % 35,67).


2018. urtean, San Bartolome gotorlekuaren edukiak berritzeko azterlan bat egin zen, espazio hori hiriaren historiaren interpretazio-zentro bihurtzeko. Azterlana egin ondoren, azaroan musealizazio-azterlan bat egitea eskatu zen, bai eta azken edukiak garatzea ere, irisgarritasunaren premisapean. Urtea amaitzean, musealizazio-aurreproiektua entregatu zen.

	Att.	Fam.	Pareja	Indiv.	Pereg	Amigo	Trab.	Grupo	Nac.	Inter.	Total
Enero	CERRADO POR OBRAS										
Febr.											
Marzo	306	372	152	41	9	169	4	155	804	101	905
Abril	403	305	278	71	8	236	-	234	747	385	1.132
Mayo	423	316	308	67	12	240	-	255	700	498	1.198
Junio	217	168	150	37	3	126	-	343	427	406	833
Julio	335	401	222	47	10	159	-	110	617	348	965
Agosto	708	883	586	75	13	343	-	22	1.348	586	1.934
Sept.	455	664	400	84	9	232	7	-	703	413	1.116
Octu- bre	310	259	3312	57	14	195	-	143	732	248	980
Nov.	460	474	378	58	1	332	-	8	1.058	193	1.251
Dic.	357	345	276	41	3	225	-	177	1.314	110	1.424
TOTAL	3.974	4.187	3.062	578	82	2.257	11	1.447	8.450	3.288	11.738

DONEJAKUE BIDEKO ERROMESAK HARTZEKO ZERBITZUAK

JESUS ETA MARIAREN ATERPETXEA

2018. urtean, Jesus eta Mariaren aterpetxean lo egin zuten erromesen kopuruak gora egin zuen apur bat 2017. urtearekin alderatuta (20.208); abuztua, iraila eta urria izan ziren bisita gehien izan zituen urteko aldia, eta, ondoren, apirila eta maiatza. Jatorri nazionaleko erromesen artean, madrildarrak eta bizkaitarrak nabarmendu ziren; nazioartekoaren artean, berriz, Korea eta Italiakoak.



PEREGRINOS 2018	
ENERO	251
ESPAÑÓLES	60
EXTRANJEROS	191

PEREGRINOS 2018	
MARZO	1267
ESPAÑÓLES	490
EXTRANJEROS	777

PEREGRINOS 2018	
FEBRERO	399
ESPAÑÓLES	63
EXTRANJEROS	336

PEREGRINOS 2018	
ABRIL	2554
ESPAÑÓLES	454
EXTRANJEROS	2100

PEREGRINOS 2018	
MAYO	3028
ESPAÑOLES	417
ESXTRANJEROS	2611

PEREGRINOS 2018	
SEPTIEMBRE	3082
ESPAÑOLES	519
EXTRANJEROS	2563

PEREGRINOS 2018	
JUNIO	2490
ESPAÑOLES	514
ESXTRANJEROS	1976

PEREGRINOS 2018	
OCTUBRE	1886
ESPAÑOLES	428
EXTRANJEROS	1458

PEREGRINOS 2018	
JULIO	1691
ESPAÑOLES	480
EXTRANJEROS	1211

PEREGRINOS 2018	
NOVIEMBRE	626
ESPAÑOLES	194
EXTRANJEROS	432

PEREGRINOS 2018	
AGOSTO	3092
ESPAÑOLES	1145
EXTRANJEROS	1947

PEREGRINOS 2018	
DICIEMBRE	241
ESPAÑOLES	142
EXTRANJEROS	99

TOTAL PEREGRINOS 2018	20607
------------------------------	--------------

PADERBORNEKO ERROMESEN ATERPETXEA

Paderborneko erromesen aterpetxeak 4.702 erromes jaso zituen 2018an, eta horietatik heren bat Alemaniatik etorri zen. Aterpetxea 2006tik dago martxan eta Paderborneko Donejakue Bidearen Lagunen Elkartearen laguntzarekin kudeatzen da.

3.3.1. UDALERRIAK. HERRITARREN SEGURTASUNA ETA ELKARBIZITZA. EREMU PUBLIKOAREN KUDEAKETA.

ACTIVIDADES EN LA VÍA PÚBLICA

Baimendutako jarduerak	2013	2014	2015	2016	2017	2018
Kirol-jarduerak	64	52	61	68	68	66
Eskeko mahaiak eta mahai informatiboak	51	54	67	59	68	81
Kultura-jarduerak	12	5	15	12	27	17
Erakusketak eta publizitate-kanpainak	40	33	43	39	47	51
Informazio- eta publizitate-autobusak	27	48	33	17	11	7
Merkataritza-jarduerak	20	33	38	31	25	17
Festa-ekitaldiak	235	274	254	271	201	186
Desfileak	50	59	90	68	83	88
Filmaketak	15	17	19	24	24	19
Auzoetako festak	11	11	12	11	12	12
Askotariko baimenak	9	54	30	28	53	86
Terrazak	117	147	174	168	110	104
Jarduerak sanferminetan	91	44	48	44	89	83
Guztira	742	831	907	840	818	817

TERRAZAK ETA ELEMENTUAK BIDE PUBLIKOAN

2018ko amaieran, 696 lizentzia zeuden emanda bide publikoan terrazak jartzeko, eta 96 lizentzia beste era batzuetako okupazioetarako (loreontzi-euskarriak, erakustokiak, etab.).

— MANIFESTAZIOAK ETA ELKARRETARATZEAK

Bilera Eskubidea arautzen duen eta apirilaren 21eko 9/1999 Lege Organikoak aldatu zuen uztailaren 15eko 9/1983 Lege Organikoa betez, Herritarren Segurtasuneko eta Elkarbizitzako Alorrak txostena eman du Gobernu Ordezkaritzak Iruñean baimendutako elkarretaratze eta manifestazio guztiei buruz, eta, gero, zirkulazioa kontrolatu du haietan, normaltasunez egin ahal izateko. Guztira, 885 ekitaldi egin ziren; 776 elkarretaratze eta 109 manifestazio.

— GANADU-FERIAK

Sanferminetako ganadu-feria tradizionala, uztailaren 7an egiten da, San Fermin egunean, Iruñeko Agustindarren industrialdeko 14.300 m²-ko lursail batean; Espainiako iparraldeko garrantzitsuenetako bat da. Zaldi-aziendarena da feria: zaldiak, zaldikumeak, astoak eta mandoak. Autonomia-erkidego desberdinetako abeltzainak, tratulariak eta zaldi-zaleak joan ohi dira. 133 eskorta eta hipodromo bat, abereak erakusteko, jarri ziren, eta 56 abeltzain joan ziren, guztira 510 abelburu eramanda.

Urteko bigarren ganadu-feria sanmigeletakoa da, irailaren 29an egiten dena, hori ere Agustindarren industrialdean. Orduan, 91 eskorta arrunt, 12 bikoitz eta hipodromo bat, abereak erakusteko, jarri zituen Udalak.

— OBJEKTU GALDUAK

3. KATEGORIA: Lanbide Heziketako ikastetxeetako proiektuak

Lehiaketako kategoria bakoitzerako, honako sari hauek ezarri dira, proiektua hirian inplementatzea ahalbidetzeko:

Lehen saria: 1.500 €

Bigarren saria: 1.000 €

Lehiaketara 7 proiektu aurkeztu ziren, eta 2018/2019 ikasturteko bigarren hiruhilekoan garatu dira (2019ko urtarriletik martxora).

DIRULAGUNTZEN DEIALDIAK

ESKOLA-LIBURUTEGIAK ETA IKASMATERIAL SUNTSIKORRAREN GASTUAK. Hiriko Lehen Hezkuntzako ikastetxe publikoetarako laguntzen urteko deialdia, liburutegien funtsa handitzeko eta ikastetxeek egoera ekonomiko txarrean dauden ikasleei familiek eman ezin dieten materiala eman ahal izateko. Ikastetxe publikoetan guztira 9.091 ikasle egon ziren matrikulatuta 2017/2018 ikasturtean, eta Iribarren Helduen Oinarrizko Hezkuntzarako Ikastetxeko 930 lagun; banaturiko dirulaguntzen zenbatekoa 110.330 eurokoa izan zen guztira: 38.175 euro, eskola-liburutegietarako, eta 72.155 euro, ikasmaterialerako.

Lehen Hezkuntzako ikastetxe publiko eta itunduetako **ESKOLAZ KANPOKO JARDUERA ETA JARDUERA OSAGARRIETARAKO DIRULAGUNTZAK**, eskola-eskaintzaren kalitatea hobetzen laguntze aldera. 2018an, eskolaz kanpoko jarduerengatik, 175.760 euro eman ziren dirulaguntzetan, guztira; zehazki, Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako 19.000 ikasle dituzten Iruñeko 44 ikastetxeren artean banatu ziren.

GURASOEN ELKARTEETARAKO DIRULAGUNTZAK, gurasoek Haur eta Lehen Hezkuntzan antolatutako programa eta jarduerak gara daitezen errazteko. 2017/2018 ikasturteko deialdira 32 elkarte aurkeztu ziren, eta 78.625 euro eman zitzaizkien, guztira.

SUBVENCIONES PARA LAS ASOCIACIONES DE PADRES Y MADRES para facilitar el desarrollo de programas y actividades organizadas por los padres y madres en Educación Infantil y Primaria. A la convocatoria del curso 2016/17 concurren 39 asociaciones a las que se les concede un total de 65.000 euros.

3.5.0. UDALERRIAK. KOMUNITATE GARAPENA.

LAN-ILDO NAGUSIAK

Gizarte Ekimenterako Zentro Komunitarioak (GEZK)

Prebentzio Ekintza Komunitarioko Zerbitzua (PEKZ)

Gazteria

Kirola

GIZARTE-EKIMENETARAKO ZENTRO KOMUNITARIOAK

Helburuak:

- a) Elkartegintzaren mugimenduari babes-estrategiak eskaintzea, mugimenduok herritarren parte-hartzea bideratzeko elementua direlako haien beren identitatearen adierazgarriak bilatu, barneko bitartekoen formulazioa egin eta gatazkak beren kabuz konpontzeko garaian.
- b) Gizarteko taldeak eta belaunaldiak beren artean biltzea, eta beren arteko elkarbizitza eta solidaritatea sustatzea, arriskurik handiena duten pertsona edo taldeen bereizkeria-prozesuak zuzentzeko eta prebenitzeko.
- c) Auzoetako udalaren herri-zerbitzuen maila handitzea, hurbiltasun eta kudeaketa hainbanatzeko irizpideekin, eta bertako biztanleen interes zehatzetara egokitzeke.
- d) Biztanleen inplikazio eta erantzunkidetasuna sustatzea, jardueren martxari eta erabakiak hartzeari eta lehentasunak hautatzeari dagokionez.
- e) Udalaren prestazio tekniko eta ekonomikoen osagarria izatea, lokalen oinarrizko sare bat eskainiz.
- f) Iruñeko Udalak antolatzen dituen Gizarte Ekintzen Egitaraua garatzeko esparru fisikoak eskaintzea.
- g) Udalaren beste arlo batzuetatik auzoetan sustatzen diren prebentziozko ekimen soziokulturalak osatzea eta koordinatzea.

Jarduera nagusien laburpena:

Auzoetako auzo-elkartek erabili dituzte komunitate-zentroak, eta auzook bezain askotari-koak izan dira horietan egindako jarduerak. Jarduera horien artean hauek daude, besteak beste: auzoetako jaiak, musika- eta dantza-entseguak, prestakuntza-jardunaldiak eta aisialdiko ekintzak nerabeekin.

Arrosadia auzoak 2018ko urriaren 19an sinatu zuen Iruñeko Udalaren eta Ilargienea GEZK erabiltzen duten taldeen ordezkarien arteko lankidetzaz hitzarmena, komunitate-esparruko erabilera eta funtzionamendua arautzeko.

PREBENTZIO-EKINTZA KOMUNITARIOKO ZERBITZUA

Helburuak:

Helburu orokorra: Haurren eskubideak sustatu eta defendatzea bere jardun-esparruan (auzo hauek: Sanduzelai, Alde Zaharra, Txantrea, Arrotxapea, Etxebakoitz, Arrosadia, Azpilagaña, Mendillorri, Erripagaina eta Buztintxuri): ume eta nerabeei zuzendutako prebentzioa eta babesa, haur eta gazteen auzo-elkarteen eta beste baliabide soziokomunitario batzuen aldetik.

1. Babes komunitariorako lehen mailako prebentzio-egitura bat garatzea, auzoaren testuinguruetara egokitua.
2. Bigarren mailako prebentzio-jarduerak egitea, auzoan gizarte-egoera zaila duten ume eta nerabeen komunitate-babesaren ikuspegia aintzat harturik. Maila guztietan babesik gabe gelditzeko arrisku-adierazleak dituzten adingabeen kasuei buruzkoa da babesa.

Jarduera nagusien laburpena:

2017an, zortzi izan dira auzoetan jarduerak egin dituzten prebentzio-taldeak, Buztintxurikoa gehitu baita. Talde horrez gain, auzo hauetan ere baziren lehendik: Arrotxapea, Txantrea, Sanduzelai, Alde Zaharra, Etxabakoitz, Arrosadia-Azpilagaña eta Mendillorri-Erripagaina. Nabarmentzekoa da zerbitzu horiek zer-nolako gaitasuna duten nerabeek jardueretan boluntario gisa parte har dezaten sustatzeko. Aurten 676 gaztek egin dute. Gainera, aldi berean 461 nerabe eta gaztek komunitate-hezitzaile izateko prestakuntza jaso dute (293 neska eta 168 mutil).

3.5.1. UDALERRIAK. KOMUNITATE GARAPENA. KIROLA.

— SARRERA

Kirol Unitatea Komunitate Garapeneko Arloaren barruan dago, eta kudeaketa-lan guztiak egi-teko, teknikari koordinatzaile bat, kirol-instalazioen zerbitzuko buru bat, administrari laguntzaile bat eta udal-kiroldegiei atxikitako 25 funtzionamendu-laguntzaile ditu.

Arantza-diko Kirolgunearen, Sanduzelaiko Kirol-hiriaren (Aquavox) eta Mendillorriko kiroldegi eta trinketaren funtzionamendua sektoreko merkataritza-entresa batekin egindako laguntza teknikorako kontratu baten bidez eramaten da aurrera.

Labrit pilotalekuaren funtzionamendua Nafarroako Pilota Federazioaren esku dago, zerbitzu publikoa kudeatzeko kontratu baten bidez.

Mantentze Gimnastikarako eta Aerobicerako programak, 50 urtetik gorakoendako yoga eta Areto Futboleko Haurren Liga merkataritza-sozietate espezializatuekin egindako kontratuen bidez kudeatzen dira.

Arantza-diko Kirolguneko eta Sanduzelaiko Kirol-hiriko (Aquavox) taberna-jatetxeak zerbitzuak emateko bi kontraturen bidez kudeatzen dira.

Aurrekontuetan, kirol-unitateak bi azpiprograma ditu, guztira 5.439.774,00 eurokoak: 1.706.400,00 euro programa eta dirulaguntzetarako, eta 3.733.374,00 euro udalaren kirol-instalazioetarako.

— UDAL-PROGRAMAK

Udalak kirolaren esparruan dituen jarduera-ildoetako bi dira, batetik, kirola sustatzea, eta, bestetik, biztanleria-sektore guztietan jarduera fisikoa bultzatzen duten proiektuak abian jartzea.

HELDUENDAKO MANTENTZE-GIMNASTIKA ETA AEROBICA. 2017-2018ko denboraldian 1.121 pertsonak parte hartu zuten jarduera horietan (1.039k mantentze-gimnastikan eta 82k aerobicean), eta hiriko zenbait kiroldegitan eta ikastetxetan eman ziren eskolak.

50 URTETIK GORAKOENDAKO YOGA. 2017-2018ko denboraldian 956 pertsonak eman zuten izena eskola horietan.

ARETO FUTBOLEKO HAURREN LIGA. 2017-2018ko denboraldian 63 taldek eman zuten izena liga horretan (horietatik 60 talde 9 urte haurrez osatuta zeuden, eta beste hirurak, 10-11 urtekoek); 693 parte-hartzaile izan zituen ligak guztira.

LAGUNTZAK ETA DIRULAGUNTZAK

Udalak kirola sustatzeko udal-dirulaguntzetarako lau deialdi egin zituen 2018an; guztira, 1.421.000 euro banatu zituen. Liga nazionaletako lehenengo hiru kategorietan parte hartzen duten taldeendako, kirol amateurretarako, kirol-eskolendako eta kirol-alorreko ekitaldiak, ikuskizunak eta jarduerak antolatzeko deialdiak dira.

LIGA NAZIONALETAN PARTE HARTZEKO LAGUNTZAK

Udalak 436.000 euro eman dizkie 2018an lehenengo hiru kategorian absolutuetako liga nazional ofizial arruntetan parte hartzen duten 46 kirol-talderi. Oraingo honetan, 17 kirol-modalitateetako taldeak izango dira onuradunak: eskubaloi-talde bat, areto-futboleko bi talde, bost futbol-talde, abiadura-patinajeko sei talde, hiru igeriketa-talde, sei pilota-talde, hiru piraguismo-talde, bi beisbol-talde, hiru tenis-talde, bi padel-talde, bi triatloi-talde, hegal-igeriketako bi talde, mahai-teniseko talde bat, irristailu-hockeyko bi talde, bi atletismo-talde, bi waterpolo-talde, gimnastika erritmikoko talde bat eta ezpata-talde bat.

EKITALDIAK, IKUSKIZUNAK ETA BESTELAKO JARDUERAK ANTOLATZEA

Ariketa fisikoan eta kirolean diharduten beste 49 entitatek udal-laguntza jaso zuten, kirol-emanaldiak, kirol-ikuskizunak eta bestelako kirol-jarduerak antolatzeko denboraldian: 60 guztira. Guztira, 617.000 euro banatu dira kirol-modalitate hauen artean: igeriketa, futbola, adinekoendako jarduera fisikoa, saskibaloia, txirrindularitza, triatloia, errugbia, eskrima, urpeko jarduerak, hipika, judoa, gimnastika, tiro olinpikoa, squasha, karatea, tenisa, abiadura-patinajea, piraguismoa, arrantza, taekwondo, beisbola, atletismoa, kirol egokituak, mendia eta eskalada, mahai-tenisa, halterofilia eta orientazio-igeriketa eta -lasterketa.

IRAKASKUNTZAKO KIROL-ESKOLAK

Federazioek eta klubek antolatutako irakaskuntzako kirol-eskolei dagokienez, 16 erakundek jaso zuten dirulaguntza 2018an; zehazki, 230.000 euro banatu ziren honako federazio hauen artean: piraguismoa, pilota, saskibaloia, xakea, eskubaloia, igeriketa, errugbia, mahai-tenisa, padela, kirol egokituak eta Oberena Kluba (areto-futbola), Ermitagaña Txirrindulari Taldea (txirrindularitza), Navarvoley Kirol Kluba (boleibola), Club Pamplona Atlético (atletismoa), Club Deportivo Bádminton Azpilagaña (badminton) eta Nafarroako Atletismo Taldea (atletismoa).

KIROL AMATEURRA

Azkenik, kirol amateurretarako laguntzen deialdiaren bidez, 2018an 138.000 euro banatu ziren 40 kirol-erakunderen artean. Eskaerak baloratzeko, hiru atal hartzen dira kontuan: kategoria absolutua, kirol-sustapena eta instalazioen alokairua.

INSTALAZIO PROPIOAK DITUZTEN KIROL-ELKARTEAK

75.000 euro banatzen dira instalazio propioak dituzten eta 2018rako ustiaketa-kontuan defizit ekonomikoa izan zuten kirol-elkarteen artean. Hiru elkartek jaso dute laguntza hori.

DIRULAGUNTZA

U.D.C. Rochapea	25.000 €
S.D.C. Echavacoiz	25.000 €
U.D.C. Txantrea KKE	25.000 €

KIROL-INSTALAZIOAK

POLIDEPORTIVOS MUNICIPALES

Udalak bederatzi udal-kiroldegi ditu, eta denboraldian zehar % 84ko okupazioa dute batez beste. Udal-kiroldegiek astean irekita ematen dituzten 761 orduetatik 654 erreserbatuta egoten dira klub, ikastetxe edo kirol-programentzat, erabil ditzaten. Udal-instalazioak hauek dira: Arantzadiko kirol anitzeko pista estalia, Arrosadia, Azpilagaña, Ermitagaña, Ezkaba, Jose Maria Iribarren, Arrotxapea, Mendillorri eta Sanduzelai.

Klub, ikastetxe edo kirol-programen erreserbei dagokienez, okupazio handiena duten kiroldegiak Ermitagañakoa (erreserbatuak dituen 83 orduen % 95), Azpilagañakoa (erreserbatuak dituen orduen % 90) eta Mendillorrikoa (79 ordu ditu okupatuak, erabilgarri dituen 88 orduen % 90) dira, hain zuzen. Sanduzelaiko kiroldegiak erabilgarri dituen orduen % 83 okupatuak ditu; Ezkabakoak, % 61; Arrotxapekoak, % 73; Arrosadikoak, % 72; eta Jose Maria Iribarren kiroldegiak, azkenik, % 54. Arantzadiko kiroldegi estaliko okupazioa ez da % 45era iristen; zehazki, % 41 da. Zortzi kiroldegiak astelehenetik ostiralera egoten dira irekita, 08:30etik 22:30era, eta larunbatetan, 08:30etik 21:30era. Hala ere, Arantzadiko kiroldegia da ordutegi desberdina duen pista bakarra, egokiagoa kirolguneko instalazioetarako. Astelehenetik larunbatera egoten da zabalik, 09:00etatik 21:00etara. Igandean Arrosadia, Ezkaba, Arrotxapea, Sanduzelai (08:30etik 14:00etara) eta Mendillorri (10:30etik 14:00etara) baino ez dira egoten irekita.

Erreserben esleipendunak honako hauek dira: 19 ikastetxe, Gorputz Hezkuntzako irakasgaiaren curriculum lantzeko eta eskolaz kanpoko kirol-jarduerak egiteko; Nafarroako Kirolaren eta Gazteriaren Institutua, Nafarroako Kirol Jokoak egiteko; 18 kirol-talde, beren entrenamendu eta partida ofizialeterako; eta 6 elkarte, kirol-jarduerak egiteko. Normala denez, erabileraren ehuneko handiena duten kiroldegiek hartzen dituzte, goizez, ikastetxeetako gorputz-hezkuntzako eskolak.

ARANTZADIKO ETA SANDUZELAIKO KIROLGUNEAK

Arantzadiko Kirolguneak eta Sanduzelaiako Kirol-hiriak 70.947 sarrera eman zituzten 2018an. Urteko abonamenduei dagokienez, hamabi hilabeterako, udako denboraldia barne, herritarrek 1.697 erosi zituzten. Bestalde, udako abonamenduak –hiru hilabete inguruko iraupena dute– 3.120 izan dira. Neguko 8 abonamendu ere saldu ziren; urtarrilaren 1etik ekainaren 15era eta irailaren 16tik abenduaren 31ra bitarteko iraupena dute neguko abonamenduek. Azkenik, hiru hileko 463 abonamendu eta hileko 1.473 abonamendu eman ziren.

	Arantzadi	Sanduzelai
SARRERAK:	43.286	27.661
Abonamenduak:	Arantzadi	Sanduzelai
Urtekoak	776	921
Negukoak	6	2
Udakoak	2.368	752
180 egunekoak	673	549
90 egunekoak	177	286
30 egunekoak	661	812

LABRIT PILOTALEKUA

2018an, Nafarroako Euskal Pilota Federazioak kudeatu eta ustiatu zuen udal-jabetzako Labrit pilotalekua, kontratu baten bidez; kontratu horren barruan ondasunak, makinak eta instalazioak garbitu, mantendu, kontserbatu eta zaintzeko lanak sartzen dira. Kontratuak 160.783,47 euroko kostua izan zuen.

Eskuzko eta erremintako modalitateak sustatzeko kirol-eskolak, pilota-selekzioen entrenamenduak eta afizionatuen lehiaketa ofizialak programatu zituen federazioak. Nafarroako, Espainiako eta Herriarteko Txapelketako finalak ere jokatu ziren bertan. San Fermin Txikito Nazioarteko Torneoa eta Nafarroa-Reunion uhartea Nazioarteko Torneoa jokatu ziren, baita pilota profesionaleko beste hainbat jaialdi ere. Noiz edo noiz, jarduera sozial edo kulturalak ospatzeko ere erabili zen pilotalekua.

BESTE GUNE BATZUK

CAPARROSOKO ERROTA. Nafarroako Piraguismo Federazioak, Iruñea Piraguismo Klubarekin batera, Caparrosoko Errota izeneko udal-lokala kudeatu eta ustiatu zuen piraguismorako gune eta jatetxe-taberna gisa. Udalak 57.499,20 euro ordaintzen ditu zerbitzu horrengatik, eta askotariko jarduerak egiten dira, hala aisialdikoak nola entrenamendukoak eta kirol-errendimendukoak.

BELAR ARTIFIZIALEKO UDAL FUTBOL-ZELAIK. Halaber, Sanduzelai, Lezkairu eta Arrotxapea auzoetako belar sintetikoko futbol-zelaiak ere kudeatu ziren. Oinarri-kiroleko futbol-taldeen entrenamenduak eta partidak egiteko erabili ziren batez ere; ordutegi hauetan okupatu ziren: astelehenetik ostiralera, 16:00etatik 21:30era bitartean; larunbatetan, 09:30etik 14:30era eta 14:00etatik 21:30era bitartean, eta igande eta jaiegunetan, 09:30etik 14:00etara.

KIROL-EKITALDIAK

Salbuespen gisa, zenbait motatako laguntzak eman zitzaizkien hirian egindako ekitaldiei; honako kopuru hauetan balioetsita daude laguntza horiek:

KIROL-EKITALDIETARAKO LAGUNTZAK 2018AN

Harresietako Lasterketa	3.694,67 euros
Euskadiko Aizkora Txapelketa	3.999,99 euros
Zubiri-Iruña Maratoi Erdia	5.999,18 euros
Pilota Tailerra	2.494,00 euros
Euskal Jai Erremonte Fundazioa	7.260,00 euros

KIROL ARI

SANFERMINAK. Sanferminen barruan, aisialdiko programazio espezifikoko bat egin zen 8 eta 14 urte bitarteko neska-mutilentzat, Komunitate Garapenerako arloak eta Kultura Arloak bultzatuta eta Nafarroako kirol-federazioen laguntzarekin. Helburua zen kirol-jarduera sustatzea festa-giroan, diskriminaziorik gabe, eta parte-hartzaileek, jokoaren bidez, eskaintzen ziren kirol-modalitateekin kontaktua izatea. Jarduera Medialuna parkeko hobietan egin zen, uztailaren 6tik 14ra, 11:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:00etara, uztailaren 6an izan ezik, egun hartan arratsaldez bakarrik ireki baitzen.

Arku-tiroa, xake erraldoia eta aldi bereko partidak, taekwondo, golfa, 3x3 saskibaloia eta tre-bezia-jokoak, eskrima, badmintona, hipika poney-ibilaldiekin, herri-kirolak –lokotx-biltzeak, zaku-lasterketak, txingak eta beste–, 3x3 futbola, doitasun-jokoak, eta ibilaldiak Argan zehar, Caparrosoko Errotako piraguismorako gunetik.

Guztira 13.180 erabiltzaile zenbatu ziren. Hilaren 6tik 14ra bitartean, geroz eta erabiltzaile gehiago bertaratu ziren, eta, azkenean, hasierakoa halako 7 baino asistentzia handiagoa izan zuten jarduerak. Hala, lehen egunean –uztailaren 7an– 400 parte-hartzaile izan ziren, 8an 630, 9an 1.500, uztailaren 10ean 1.750, Adingabeen Egunean 1.850, eta hilaren 11n, azkenik, 2.950 lagun bertaratu ziren; gainerako egunek antzeko zifrak izan zituzten. Aurrekontua 55.000 eurokoa izan zen, gutxi gorabehera.

GABONAK. Sanferminetan planteatu zen bezala, Komunitate Garapenerako Arloak, Gabonetako programazioa osatze aldera eta hiriko auzo batzuetan zehar ibiltzeko helburu nabarmena izanik, kirol-federazioei deialdia egin zien berriz ere, Kirol Ari ekimeneko lau jardunaldi egiteko (2018ko abenduaren 26tik 29ra).

Lau leku aukeratu ziren horretarako: Arrotxapeko kiroldegia, Mendillorriko kiroldegia/trinketa, Burgoen plaza eta Mañuetako frontoia eta Ezkabako kiroldegia. Kirol egokituak, golfa, badmintona, eskrima, eskubaloia, xakea, taekwondo, saskibaloia, mahai-tenisa, arku-tiroa, hipika, futbola, gimnastika eta pilota izan ziren.


1.100 gaztek parte hartu zuten jarduera horietan: Arrotxapean, 150 erabiltzaile; Mendillorri, 500; Burgoen plazan, 150; eta Ezkaban, 300. Gastuari dagokionez, 23.500 euro izan ziren gutxira, gutxi gorabehera.

3.5.2. UDALERRIAK. KOMUNITATE GARAPENA. GAZTERIA.

—


ZERBITZUAK, GUZTIRA	2017	2018	Aldakuntza	
			Erabiltzaileak	Ehunekoa
	98.145	96.833	- 1.312	- 1 %

Cómputo global de la Casa de la Juventud



JARDUERAK

JARDUERA MOTA	Número		
	2017	2018	Variación
Aisialdiko eta denbora libreko ikastaroak	98	101	+ 3 %
Doako informatika-lantegiak	44	44	0 %
Programazio Zerbitzuaren ekitaldiak	24	27	+13 %
Erakusketak	10	12	+20 %
Aisia-larunbatak	10	10	0 %
Gazte-elkarteen ekintzak: «Antolatu zure ekitaldia»	64	53	-17 %
Beste jarduera batzuk	34	32	- 6 %
Jarduerak, guztira	284	279	- 2 %



INFORMAZIO-ZERBITZUAK

	ERABILTZAILAK		
	2017	2018	Aldakuntza
Gazteendako Informazio Bulegoa	8.569	8.781	+ 2 %
Aholkularitza Juridikoa	480	490	+ 2 %
Gazte Elkartegintzari buruzko aholkularitza	255	259	+ 2 %
Aholkularitza Psikologikoa	109	196	+ 10 %
Ikasketa-aholkularitza	135	168	+ 25 %
Bidaiategia	133	83	- 38 %
Boluntarioendako Argibide Bulegoa	643	691	+ 7 %
GUZTIRA	10.325	10.668	+ 3 %

ESPAZIO-LAGAPENAK

	ERABILTZAILAK		
	2017	2018	Aldakuntza
Aretoak lagatzea, eskaera iraunkorrak	51.045	46.123	- 10 %
Aretoak lagatzea, noizbehinkako eskaerak	10.505	13.220	+ 26 %
Ikasketa-gela	981	1.224	+ 25 %
GUZTIRA	62.531	60.567	- 3 %

PRESTAKUNTZA-PROGRAMAZIOA

	ERABILTZAILAK		
	2017	2018	Aldakuntza
Ikastaroetako parte-hartzaileak	1.659	1.752	+ 6 %
Informatika-lantegi irekiak	467	621	+ 33 %
GUZTIRA	2.126	2.373	+ 12 %

GIZARTE- ETA KULTURA-EKITALDIAK

	ERABILTZAILEAK		
	2017	2018	Aldakuntza
Kultura-jarduerak	1.617	1.714	+ 6 %
Erakusketak	957	1.246	+ 30 %
Aisia-larunbatak	1.142	1.347	+ 18 %
Gazteen taldeen jarduerak: «Antolatu zure ekitaldia»	4.293	3.331	- 22 %
Beste jarduera batzuk	699	963	+ 38 %
GUZTIRA	8.708	8.601	- 1 %

ZIBERGELA

	ERABILTZAILEAK		
	2017	2018	Aldakuntza
Zibergela	8.080	8.696	+ 8 %
WIFI erabiltzaileak	4.944	5.136	+ 4 %
Iruña Gaztemaker Space	1.431	792	- 45 %
GUZTIRA	14.455	14.624	+ 1 %

Usuarios/as servicios Casa de la Juventud



GAZTEENDAKO DIRULAGUNTZAK ETA LAGUNTZAK

EKINTZAILE GAZTEENDAKO DIRULAGUNTZAK. Dirulaguntza hau 50.000 euroko zuzkidurarekin deitu da. 25 eskaera aurkeztu dira, eta horietatik 23k eskuratu dituzte laguntzak; guztira 34.292,32 euro eman dira. Ekintzaileen profilari dagokionez, gazte ekintzaileen % 44 31-35 urtekoak dira, eta % 42, berriz, 25-30 urtekoak. Sexuari dagokionez, % 51,8 emakumeak dira, gehienak autonomoak (21). 27 lanpostu sortu dira.

DIRULAGUNTZAK, GAZTEENDAKO JARDUERAK EGITEAGATIK. Dirulaguntza hau 51.000 euroko zuzkidurarekin deitu da. Orotara, 15 eskabide aurkeztu dituzte, eta diruz laguntzeko 68 jarduera. Dirulaguntza zer jardueratarako eskatzen zen aztertu ondoren, elkarteei proiektuak edo jarduerak garatzeko diruz lagun dakizkiekeen zenbatekoen batura 77.947,15 € izan da guztira; beraz, % 65,26 hainbanatu da, kontzesioa gehieneko aurrekontu-kreditura egokitzeko.

Honako erakunde hauek jaso dute laguntza: Jóvenes para Cristo elkarte, Garaiz gazte-elkar-tea, Mikael Eskaut Taldea (gazte-elkar-tea), Nuestra Señora de la Paz taldea, Club Albatros gazte-elkar-tea, Scouts de Navarra Movimiento Scout Católico taldea, Nafarroako Eskaut Ka-tolikoak federazioa, Dendari Izar Eskaut Taldea gazte-elkar-tea, Antitele Aisialdi Kluba, I Becchi gazte-elkar-tea, G. Scout V^a Tropa gazte-elkar-tea, Baracea Eskaut Taldea eta Barrerarik Gabeko Musika.

BESTELAKO JARDUERAK ETA PROGRAMAK

- **Lehiaketak.** Udalak antolatutako gazteendako literatur lehiaketara 46 olerki-lan aurkeztu zituzten (39 gaztelaniaz eta 7 euskaraz); 28 lan 14-16 urteko gazteen kategoriari zegozkion, eta beste 18ak, berriz, 17 eta 18 urteko gazteen kategoriari. Bestalde, 77 narratiba-lan aurkeztu zituzten (63 gaztelaniaz eta 14 euskaraz); 58 lan 14-16 urteko gazteen kategoriari zegozkion, eta beste 19ak, berriz, 17 eta 18 urteko gazteen kategoriari.

- **Berriemaileen Programa.** Gaztediaren Etxeak eta Gazteria Unitateak elkarrekin jarri dute abian, ikasturtearen hasieran beti egiten duten bezala, ikastetxeetan eta ikastetxe nagusietan gazte-informazioa sustatzeko programa hau; halaber, 2016-2017ko ikasturtean egin zuten bezala, gazteendako, gazte-elkarteendako eta beste gazteguneko batzueendako profesionaltasun-ziurtagiriak eskaintzen dituzten erakundeei ere parte hartzeko aukera eman zaie.

2017-2018ko ikasturteko parte-hartzeari dagokionez, 38 ikastetxek parte hartu zuten guztira, 76 pertsonak orotara; 2017-2018ko ikasturtearen hasieran, berriz, 44 ikastetxek parte hartu zuten eta 88 berriemaile hautatu ziren.

- **«Txankletak» udako programa.** Kirol-jarduerak programatu dira, hala nola urpekaritza, saltin-ga (saltoka), eskalada eta piraguismoa, baita adimena lantzeko jarduerak –Ziudadelako Zon-bien Inbasioa, adibidez, Kultura alorrarekin batera antolatua Harresien Jaialdiaren barruan– eta kultur arlokoak ere –zinemarako sarrerak, besteak beste–.

Kirol-jarduera bakoitzerako 125 bonu indibidual eskaini dira, «Ziudadela: Zonbien Inbasioa» jarduerarako 100 plaza, eta, zinemarako, 1.000 sarrera.

- ESKALADA, RAPPELA ETA ABENTURA-PARKE HANDIA: 70 (G: % 41,43; E: % 58,57)
- URPEKARITZA-BATAIOA: 121 (G: % 38; E: % 62)
- SALTOKA: 106 (G: % 43; E: % 57)
- PIRAGUISMOA: 117 (G: % 45; E: % 55)
- ZONBIEN INBASIOA: 103 (G: % 44,66; E: % 55,34)

«Hamaika plan!» programan 403 gaztek parte hartu dute, eta horrek esan nahi du parte-hartzea % 14 igo dela iazko datuekin alderatuta; zehazki, 115 mutil eta 288 neska joan dira ekimen horretako jardueretara (parte-hartzaileen % 29 mutilak izan dira, eta % 71, berriz, neskak).

- **Entsegu-bonuak.** Musika modernoko talde hasiberriei laguntzeko programaren barruan, Iruñeko Udalak diruz lagundu ditu 228 entsegu-bonu: 16 orduko 222 eta 8 orduko 6. Orotara, 28 taldek eskatu dute zerbitzu hori.

- **Sanferminetako Gazte Eremua.** Kultura Alorrarekin koordinatuta, nerabezaro-aurreko gazteendako eta nerabeendako (12-17 urte) programazioa diseinatu zen, xede harturik populazioaren segmentu horren behar eta ezaugarrietara egokitutako jarduera alternatibo espezifikoak eskaintzea. Ekitaldi honetan programazioa hilaren 7tik 14ra izan da eta, horrenbestez, sanfermin osoak hartu ditu (hilaren 6a izan ezik, egun hori berezia baita). Aurreko urteko leku berean egin zen, Foruen plazan.

Aurten, gainera, beste mota bateko jarduerak ere egin dira, alderdi hezigarrienean eragiteko; kasu baterako, zentzumenen ibilbidea egin da, eta Zaska Nafarroako Zurrumurruean Aurkako Sareari, berdintasunari, alkoholaren eta beste droga batzuen kontsumoari eta abarri buruzko informazioa eman da.

Bi (2) animatzaile arduratu ziren eremua dinamizatzeaz, Community Manager bat, berriz, sare sozialetako jarraipenaz.

- **Prebentzioko esku-hartze proiektua sanferminetan.** Hegoak elkartearen bitartez, jai-inguru-nean –bereziki, sanferminetan– alkohola eta bestelako drogak kontsumitzeak dakartzan arriskuak gutxitzeari buruzko sentsibilizazio-kanpainarekin jarraitu da. Gazteei zuzenduta dago kanpaina hori, eta zenbait hedabidetara egokitutako mezu zehatzez osatutako komunikazio-ildo bat sortu eta diseinatzeko jomuga du.

Kanpaina horretan, alde batetik, kontsumoarekin lotutako gaiak lantzen dituzten kolektiboek parte hartu dute, eta, bestetik, jaien antolaketan parte hartzen duten kolektiboek. Errekoleten plazan, informazio-puntu finko bat gaitu, eta bereziki gazteendako informazioa eta hezkuntza emateko esku-hartze bat egin zen. Egunak eta ordutegia hauek izan ziren: uztailaren 6an, 15:00-19:00, eta uztailaren 7tik 13ra, 23:00-03:00.

Gune finkoko datu orokorrak:

Banatutako materialak, guztira	1054
Gunera hurbildu diren eta bertan parte hartu dutenen kopurua, gutxi gorabehera	677
Gizonak	480
Emakumeak	197
Galderak zituzten pertsonak, gutxi gorabehera	520
Adin-tarteak	16-49

Halaber, informaziorako 2 gune ibiltari instalatu ziren, eta informazio- eta hezkuntza-lana egin zen aurreko urteko behaketaren bitartez gazteen kontzentrazio eta joan-etorri handiena zute-la detektatutako eremuetan. Egunak eta ordutegiak hauek izan ziren: uztailaren 6an, 16:00-18:00, eta uztailaren 7tik 13ra, 23:00-03:00; beste gunean, berriz, hauek: uztailaren 6tik 13ra, 19:00-23:00

Auzoetako jaietan prebentzioan esku hartzeko proiektua. Jai Batzorde eskatzailearekin batera, auzo bakoitzerako berariazko programazio-proposamen bat egin zen, inguruko beharretara egokituta eta esku hartzen duen elkartearen eta gizartearen errealitatea kontuan hartuta. Auzo bakoitzean prozesu bat egin da, eta, horren bidez, auzo bakoitzean zeuden beharrak gogoetaren bidez landu ahal izan dira.

Programa auzo hauetan egin da: Sanduzelai, Txantrea, Arrotxapea, Donibane, Azpilagaña, Iturrama, Mendillorri eta Alde Zaharra.

Beste auzo batzuetan, hala nola Lezkairun, Buztintxurin eta Etxabakoitzen, saiakerak egin dira eta ekimenaren berri eman da, eta, esku-hartzerik egin ez bada ere, lanerako oinarri bat ezarri da hurrengo urteetarako.

- **Pirinioetako zeharkaldirako dirulaguntza.** SCDR Anaitasuna elkarteak urtero antolatzen du jarduera hau; Gazteria Unitateak, bere aldetik, 16-30 urteko gazteei dirulaguntza ematen die: ekimen horretan izena emateko kostuaren % 40.

Diruz lagundu zaien parte-hartzaileen kopurua: 4.

- **Mendi-proiektzioak.** Iturramako Kultur Astean proiektzio bat egin da auzoko jaien aurreko astean, eta antolatzaileek oso balorazio positiboa egin diote proiektzio horri.

- **MusiKa en Martxa.** Aurten Creacityko lantaldeari musika-talde gazteei laguntzeko programa aurkeztu zitzaion, eta 2019rako urratsak egin dira Baionako eta Iruñeko musika-taldeen arteko trukeak egiteko. Horrez gain, Bayonne Live lehiaketa zabaldu da hiriko taldeen artean, musika-ren munduan aukerak eta sareak sortzeko.

Bi kontzertu eta itxiera-ekitaldi bat antolatu ziren, Civivoxekin (Iturramako Civivox dagoen plazan egindako kontzertua) eta Gaztediaren Etxearekin (Sarasate pasealekua, «Etxea kalera ateratzen da!» ikasturte-amaierako emanaldien barruan) koordinatuta, eta zerrendako talde guztiek parte hartu zuten. Eta kontzertu horien amaiera gisa, taldeekin batera topaketa bat antolatu zen ekainaren 29an Zitudadelan, Kultura Alorraren lankidetzari esker, lekua eta instalazioak (agertokia eta komunak) laga baitzituen. Topaketa horretan, taldeen emanaldiez gain, gazteek beraiek proposatutako jarduerak ere antolatu ziren.

- **Sanferminetako eta Gabonetako Kirol Ari.** Ekitaldi honetan sanferminetako programak izan dituen berrikuntzen artean, 8 eta 14 urte (gutxi gorabehera) bitarteko neska-mutilendako aisialdi-programazio espezifikoko bat garatu beharretik sortutako ekimen bat izan da, zehazki, populazio-talde hori erakarriko zuten kirol-jarduerak.

Kultura Alorrak, Komunitate Garapenerako Arloarekin koordinatuta, Nafarroako kirol-federazioen lankidetzara eskatzea planteatu zuen, kirol-sustapenean espezializatuenak dauden erakundeak diren aldetik (bakoitza bere kirol-modalitatean), izaera ludiko, plural eta irekiko programa baten bidez. Programa horretan, kirol-jarduera sustatzea zen asmoa, inolako baldintzarik gabeko jai-giroan, diskriminaziorik gabe adina dela-eta, eta parte-hartzaileek eskainitako modalitateekin harremana izateko aukera izango zuten, betiere jokoaren bidez.

Jarduerak Medialuna parkeko hobietan egin ziren, jokalarien kopuruari dagokionez gutxien-goan dauden kirol modalitateak hartzeko leku aproposa izaki; izan ere, horrela, ikusgarritasun handiagoa izango zuten gutxiengo kirol horiek, kirol nagusiak ere egin baitziren leku horretan, hala nola futbola edo saskibaloia.

Gunea egunero 11:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:00etara egon zen zabalik, uztailaren 6an izan ezik, egun horretan arratsaldez bakarrik ireki baitzen.

Parte-hartzeari dagokionez, balorazio orokorra da ekimen horrek arrakasta handia izan zuela. Guztira 13.180 erabiltzaile zenbatu ziren. Hilaren 6tik 14ra bitartean, geroz eta erabiltzaile gehiago bertaratu ziren, eta, azkenean, hasierakoa halako 7 baino asistentzia handiagoa izan zuten jarduerak. Hala, lehen egunean –uztailaren 7an– 400 parte-hartzaile izan ziren, hilaren 8an 630, hilaren 9an 1.500, 10ean 1.750, Adingabeen Egunean –hilak 11– 1.850, eta hilaren 12an, azkenik, 2.950 lagun bertaratu ziren; gainerako egunek antzeko zifrak izan zituzten. Aurrekontua 55.000 eurokoa izan zen, gutxi gorabehera.

Sanferminetan planteatu zen bezala, Komunitate Garapenerako Arloak, Gabonetako programazioa osatze aldera eta hiriko auzo batzuetan zehar ibiltzeko helburu nabarmena izanik-federazioei deialdia egin zien berriz ere, lau Kirol Ari ekimeneko lau jardunaldi egiteko (2018ko abenduaren 26tik 29ra).

Lau leku aukeratu ziren horretarako: Arrotxapeko kiroldegia, Mendillorriko kiroldegia/trinketa, Burgoen plaza eta Mañuetako frontoia eta Ezkabako kiroldegia.

Parte-hartzeari dagokionez, 1.100 erabiltzaile izan ziren, honako banakapen honekin: Arrotxapean, 150 erabiltzaile; Mendillorri, 500; Burgoen plazan, 150; eta Ezkaban, 300. Gastuari dagokionez, 23.500 euro izan ziren guztira, gutxi gorabehera.

- **Rubiken Kuboaren Lehiaketa Nazionala.** Gaztediaren esparruko lan-ildoetako bat gazte-jarduerak eta -proiektuak babestea da, eta, horri dagokionez, urriaren 12an, 13an eta 14an Labriten egindako Rubiken Kuboaren Lehiaketa Nazionala ekimena babestu da. Ekimen hartan 148 lehiakidek parte hartu zuten dauden 18 modalitate arautuetan, eta 9 errekor lortu ziren lehiaketan.

- **Gabonetako Zinema.** Iruñeko 14 eta 30 urte bitarteko gazteendako 1.000 zinema-sarrera erosi ziren Gabonetarako.

- **«Fauna 2018: The Rewood» hiri-artearen erakusketa.** Maiatzaren 17tik uztailaren 1era hiri-arteari buruzko erakusketa bat egin zen Iruñeko Zitudadelako Labean, asteartetik ostiralera 18:30etik 21:00etara, larunbatetan 12:00etatik 14:00etara eta 18 30etik 21:00etara, eta igandeetan, 12:00etatik 14:00etara.

FAUNA jaialdia 2017ko azaroaren 24an, 25ean eta 26an egin zen. Hip hopeko jam bat izan zen, eta lantegiak egon ziren, baita breakdanceko eta new styleko txapelketak, DJak, skatea, rap-kontzertuak eta grafiti-erakustaldi bat ere.

The REWOOD atzerabegirakoa izan zen, non Faunan parte hartu zuten grafiti-idazleen –talde askotariko eta heterogeneoa– lanen zatiak jaso baitziren. Euren artea eta sormen-prozesua zuzenean eskaini zuten, ekitaldirako prestatutako egurrezko bi gainazal handiren gainean margotu baitzuten.

Helburua grafitia den bezala –arte bat– ikusarazteko aukera ematea izan zen.

- **Horma-irudi komunitariorako proiektua Sanduzelai eta Arrotxapean.** Aurten zenbait espaziotan artearen bidez esku hartzeko lan-ildo bat ireki da, komunitate-esparruko dinamikak sortzeko eta hondatutako eremu batzuk biziberritzeko; proiektu horietarako, oraingoz, udal-erakinetako hormak aukeratzeko dira, hobetu beharra duten instalazio propioak ere egokitu nahi baitira.

Sanduzelaiko bi artistak proposatuta, «Sanduzelaiko pintzelkada» proiektua diseinatu da, Karrikaguneko fatxadan horma-irudi komunitario bat egiteko, baita frontoian beste horma-irudi bat ere lantegi-formatuan, tokiko artista baten erakusketa batez gain, aipatutako lokalaren ondoko horma batean.

Proiektua Umetxea auzoko Prebentzio Zerbitzuarekin batera diseinatu eta egin da, eta neska-mutilek prozesu osoan parte hartu dute (10 neska-mutil inguru).

Lantegietan gazte horiek parte hartu zuten, baita gazte migratzaileek eta ijito etniakoek ere (kolektibo horiek normalean ez dute lantegietan parte hartzen, aisialdi-dinamika desberdinak izan ohi baitituzte); guztira 20 bat gaztek parte hartu zuten.

Horregatik, ontzat jo da ekimena, beste gazte batzuegana iristea lortu den aldetik, topaketarako, elkarbizitzarako eta kulturen arteko ezagutzarako jarduerak izan baita.

- **Mendillorriko DJ-ikastaroa.** Gazteak aktibatze eta musika-esparruari buruzko prestakuntza eskaintzeko asmoz, Gazteria Unitatean harremanetan jarri ginen Mendillorriko gazteekin, musika elektronikoaren inguruan ikaskuntza partekatuko prozesuak sortze aldera.

13 gaztek eman zuten izena, eta 10 joan ziren ikastarora. Ikastaroa Gabonetan egin zen, abenduaren 26an eta 27an eta urtarrilaren 3an eta 4an, 18:00etatik 20:00etara. Lehen bi egunetan teoria eman zen batez ere, eta azken bietan, berriz, praktika.

Ikastaroan parte hartu zutenen balorazioa oso positiboa izan zen.

- **Zurumurruen Aurkako Estrategia.** 2018an Zurumurruen Aurkako Estrategia garatzen jarraitu da Iruñean, Herritarren Partaidetzako eta Gizartea Ahalduetzako Alorrak 2017an abian jarri zuen estrategia, hain zuzen.

Hainbat ekintza egin dira:

- Zurumurruen aurkako III. Gazte Topaketa Iruñean egin zen (Topaketaren Memorian jasota dago informazioa).
- Zurumurruen aurkako Gazte Taldeari jarraipena eman zitzaion, 2017ko Zurumurruen aurkako Gazte Topaketaren 2017ko edizioan (Getxon) parte hartu zuten gazteez osatua zegoen taldeari, hain zuzen. Talde hori handitu egin zen 2018ko topaketan parte hartu zutenekin. Gaur egun hainbat gazte-elkartetako 10 gaztek osatzen duten talde horrek honako hauetan parte hartu du:
 - Zurumurruen aurkako estrategia sustatzeko eta estrategia hori sare sozialetan hedatzeko bideo bat diseinatzeko eta sortzeko ikus-entzunezko lantegia.
 - Estrategia hurbilen dauden gunetan aurkezteko prestakuntza-saioak diseinatzea eta egitea (ikasle-talde bati, eskola-proiektu bat egite aldera; SiñarZubi federazioan bilera bat...).
 - Zurumurruen aurkako Topaketa diseinatzeko eta hura sustatzeko lanean parte hartzea.
- Prestakuntzak diseinatzea Ahalduetze eta Partaidetzako Udal Eskolarekin (APUE) koordinatuta, eta lehen harremanak Civivoxen sarearekin, halako prestakuntzak programazioetan sartzeko.
- Zurumurruen aurkako Nafarroako Sarean aktiboki parte hartzea.

- **Gazte Elkartegintzari buruzko Gidaliburua.** «Gazte Elkartegintza. Bidaia bat Gazte Elkarteen Eraketan eta Kudeaketan Barna» gidaliburua berrargitaratu da. Paperezko gidaliburuaz eta gidaliburu digitalaz gain, poltsiko-neurriko zabalgarri bat ere egin da, non gidaliburuaren edukia laburbilduta dagoen, eta QR kode baten bidez, gida osoa ikus daitekeen.

- **Etxabeen gidaliburua.** 2018an, Nafarroako Kirolaren eta Gazteriaren Institutuko lantalde batean parte hartu da, etxabeen gidaliburu bat egiteko. Gidaliburu horretan, bete behar duten araudia jasotzen da, baita eskakizun guztiak betetzeko aholku praktikoak ere. Gidaliburu horrek Nafarroa osorako araudi komuna jasotzen du. Horrela, Udalak diptiko bat prestatu du gidaliburu hori Iruñeko Ordenantzaren araudiarekin osatzeko.

- **Sexu-hezkuntza eta horrekin lotutako arriskuen prebentzioa.** Gazteria Unitateak lan-ildo berri bati ekin dio 2018an, sexualitatea gazteekin eta gazteentzat lantzeko.

Egindako ekintza batzuk:

- Sexu-hezkuntzari buruzko kanpaina, Hiesaren aurkako Batzordearekin eta Nafarroako Gazteriaren Kontseiluarekin batera, bai sanferminetarako, bai auzoetako jaietarako: prebentzio- eta informazio-materiala besteak beste. Gizarte-eragileekin eta gazteekin pres-takuntza-lantegiak egitea balioetsi eta gazteendako kanpaina espezifiko bat egiteko ideia kontuan hartu da.
- Gozamenaz programa: Nafarroan ibilbide luzea duen eta Nafarroako Gobernuaren Osasunak finantzatzen duen programa hau sustatzeko interesa ikusita, programa hirian garatzen hasi gara aurten, jarduera espezifiko baten bidez (Zentzumenen Ibilbidea), Gazte Eremuaren programazioaren barruan. Jarduera hori abiaburu izan da Iruñeko auzoetan ildo horretan elkarrekin lan egiteko.

- **Iruñeko gazteen emantzipazioari buruzko inkesta.** 2017an inkesta hori egin zen, eta aurten inkestaren analisia egin da. Emaitzak argitaratu dira eta emantzipazioaren alorrean dihardu-ten eragile, erakunde eta arloen artean zabaldu da (etxebizitza, enplegua, etab.), Iruñeko gaz-teen egoeraren errealitatea ezagut dezaten.

- **Jarduerak espetxeetan.** Aurten urtarriletik ekainera eta irailean egin da ekimen hori; ikas-turteko jarduera izanik, Gizarte Ekintza Arloak kudeatu du, jarduera horrek arlo horretan leku handiagoa duela iritzi baita.

2018ko lehen seihilekoan, 50 eta 42 orduko 2 ikastaro eman ziren espetxean, Gaztediaren Etxeak kudeatuta. Guztira 40 pertsonak hartu dute parte ikastaroetan.

- **Moteco.** NUP harremanetan jarri zen Komunitate Garapenerako Arloarekin, Partaidetzako Arloarekin eta Gizarte Ekintzarekin baita esparru komunitarioan lan egiten duten beste eragi-le batzuekin ere: Burlatako Udala, Sakanako Mankomunitatea, Nafarroako Gazteriaren Kont-seilua, etab. Horren helburua MOTECO–Nafarroa talde eragileko kide izatea da. Proiektuaren helburu nagusia sinergiak sortzea, lan komunitarioaren esparru adostu bat zehaztea eta gai horren inguruan prestakuntza-beharrak zehaztea da. Partzuergo moduko zerbait da, ondoko lurraldeetako unibertsitateetako (Zaragozako Unibertsitatea, Errioxako Unibertsitatea eta NUP) ikerketa-talde batzuk biltzen dituen, eta Iberus nazioarteko bikaintasun-campusaren (CEI) aintzatespen-zigilua lortu duena.

Iruñeko Udalak bi jardunalditan parte hartu du: batetik, ekainaren 21ean, Zaragozan, ekintza-talde autonomikoen jardunaldian; eta, bestetik, urriaren 19an, «Politika publikoak, dibert-sitatea eta esku-hartze komunitarioa. Esperientziak Pirinioen bi aldeetatik» izeneko jardunal-dian (Frantziako erakundeen parte-hartzea izan zuen jardunaldi hark).

3.6.1. UDALERRIAK. HIRI-EKOLOGIA ETA MUGIKORTASUNA. INGURUMEN-HEZKUNTZAKO ZERBITZUA.

— INGURUMEN-HEZKUNTZAKO ZERBITZUA

Egindako ekintza nagusiek 5 lan-ildo hauei jarraitzen diete: ingurumen-hezkuntza; hiri-bio-dibertsitatea zaintzea; udal-kontratuetan jasangarritasun-irizpideak sartzea; mugikortasun jasangarria eta bizikletaren sustapena; eta proiektu berriak abian jartzea: hiri-baratzeak eta edalontzi berrerabilgarria.

INGURUMEN-HEZKUNTZA

IKASLEENDA KO JARDUERAK

Esku hartu da hezkuntza-komunitatean: 9.156 parte-hartzaile, Ingurumen Hezkuntzako Zerbitzuak garatutako hezkuntza-programetan.

PROGRAMAK	PARTE-HARTZAILE KOP.
Eskola-baratzeen programa	2.217
Mendillorriko Aintzirako hezkuntza-programa	301
IGA prestakuntza-programa	1.737
Ecozine Nazioarteko Film Jaialdiaren Gazteendako Atala programa	358
Sirènes-Itsas Laminak-Sirenas programa	117
Jasangarritasuna lantzen elkarrekin programa	3.795
Beste batzuk	630
GUZTIRA	9.156

- **ESKOLA-BARATZEEN PROGRAMA:** 2018an, pilotu moduan garatu da programa Arrotxapea eta Sanduzelai ikastetxe publikoetan. Ebaluazioa egin ostean, eskola-baratzeen hezkuntza-programaren proposamen sendotu bat proposatu da 2018-2019 ikasturterako; hala, Iruñeko Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe guztiendako irekiko da programa. Azkenik, sei ikastetxe hautatu dira 2018-2019 ikasturtean parte hartzeko, zentro horiek dituzten curriculumeko prestakuntza-premiak eta/edo prestakuntza-premia teknikoak kontuan hartuta.

IKASTETXEAK	PARTE-HARTZAILE KOP.	
	Ikasleak	Irakasleak
Arrotxapea HLHIP	380	36
Sanduzelai IP	218	26
García Galdeano HLHIP	229	26
Doña Mayor HLHIP	612	55
Mendillorri HLHIP	420	40
Mendigoiti IP	200	25
GUZTIRA	2.059	158
		2.217

- **IRAKASLEAK PRESTATZEKO PROGRAMA.** 2017-2018 ikasturtean harreman bat hasi zen Nafarroako Gobernuako Hezkuntza Departamentuarekin, eskola-baratzeen udal-programan parte hartu behar zuten irakasleen prestakuntza egiaztatzeko. Bi erakundeen lankidetzako esparruan, 2017-2018 ikasturtean, eskola-baratzeei buruzko prestakuntza-ikastaro bat egin zen, Hezkuntza Departamentuaren Urteko Prestakuntza Planean integratua. Bi hizkuntzatan egin zen ikastaroa, euskaraz eta gazteleraz. Ekimena berriro antolatu da 2018-2019 ikasturtean, bi hizkuntzetan.

PROGRAMAK	PARTE-HARTZAILE KOP.	
	Irakasleak	Ikasleak
2017-2018 ikasturtea	34	1.675 *
2018-2019 ikasturtea	28	2019an lortuko da datu hau
GUZTIRA	62	1.675
		1.737

(*) Irakasleek parte hartu zuten 67 ikasle talde erregistratu zituen. Ikasle guztien kopurua lortzeko erabili den ikasle kopuruaren batezbestekoa talde bakoitzean: 25 ikasle talde bakoitzeko.

- **MENDILLORRIKO AINTZIRAKO HEZKUNTZA-PROIEKTUA.** Mendillorriko ikastetxeetako proiektu integratzailea da, Hiri Ekologiako Zerbitzuak aintziran egindako esku-hartzetik sortua. 2018ko martxoaren eta ekainaren artean, parte hartzeko prozesu bat egin zen aintziraren ingurunea hobetzeari buruz, eta Mendillorriko lau ikastetxeetako lehen hezkuntzako 5. eta 6. mailetako ikasleek hartu zuten parte. Ingurumen Hezkuntzako taldeak, guztira, 13 tailer dinamizatu zituen ikasleekin; 3 tailer ikastetxe bakoitzeko, eta Mendillorriko Civiox-en egin zen amaierako tailer bat, non lau ikastetxeetako ikasleen ordezkariak jardun baitziren. Mendillorri BHIko ikasleak prozesuan parte hartzen hasi dira ikasturte hone-tan, 2018ko udazkenean. Iazko ikasturtean egindako lana jakinarazi zaie, parte hartzeko prozesuaren bigarren fasean integra daitezen –ekintza lehenetsien garapena–. Ikasleek proposatutako hainbat ekimen gauzatu dira, hala nola interpretazio-ibilaldiak.

IKASTETXEAK	PARTE-HARTZAILE KOP.	
	Parte hartzeko prozesua	
	Ikasleak	Irakasleak
El Lago HLHIP	46	2
Mendillorri HLHIP	84	2
Elorri IP	53	2
Mendigoiti IP	38	2
Mendillorri BHI	68	4
GUZTIRA	289	12
	301	

- **SIRÈNES-ITSAS LAMINAK-SIRENAS PROGRAMA.** Itsas Laminak–Sirenas–Sirènes programan sartu da Ingurumen Hezkuntzako taldea, Biarritzeko Malandain Balletarekin eta Donostiako Cristina Enea Fundazioarekin batera. Programaren helburu nagusia da DBHko lehen zikloko ikasleak kontzientziatzea hondakin plastikoek itsas ekosistemetan duten inpaktuaren aurrean. Parte hartzen duten hirietako bakoitzean (Biarritz, Donostia eta Iruña), Bigarren Hezkuntzako lehen zikloko 5 taldek egingen dute ibilbide pedagogiko hau. Mugaz gaindiko lankidetzaproiektua da eta Akitania Berria, EAE eta Nafarroa Euroeskualdearen finantzaketa jaso du.

IKASTETXEAK	PARTE-HARTZAILE KOP.
Iturrama BHI	117

- **ECOZINE ESKOLA-EREMUAN.** 2018an, lehen aldiz egin zen Iruñean zinema eta ingurumenaren Ecozine Jaialdia, ordura arte hamar urtez jarraian Zaragozan egindako jaialdia. Jaialdiko gazteen atala Bigarren Hezkuntzako ikasleek zuzentzen dute, eta horren helburua da ingurumen-gaietan sentsibilizatzea ikus-entzunezko ekoizpenen bidez.

IKASTETXEAK	PARTE-HARTZAILE KOP.
Basoko BHI	10
Ilundain Fundazioa	24
Jesuitinas	21
Cuatrocientos BHI	22
Eskola Sanitarioa	41
Iturrama BHI	100
Sagrado Corazón ikastetxea	100
Eskolapioak ikastetxea	40
GUZTIRA	358

- **JASANGARRITASUNA LANTZEN ELKARREKIN.** Ikastetxeei zuzenduta dago programa hau. Bi ikastetxerekin egin da lankidetza Museoa zeureganatu esparruan. Zehazki, Larraonarekin jardun da lankidetzan, zaratari buruzko erakusketa bat egiteko, eta Eskola Sanitarioarekin, hezkuntza-jardueren baterako programazioa lantzeko. Guztira, 54 ikastetxetako 3.795 lagunek (158 taldetan) hartu dute parte jarduera horietan.

PROGRAMAK	PARTE-HARTZAILE KOP.
Museoan dinamizatutako jarduerak	2.851
Maleta ibiltariak	944
GUZTIRA	3.795

1 IPES: lankidetza bat ezarri da, garapen jasangarriko helburuei buruzko prestaketa bat egiteko, IPES 4 ikastetxerekin lantzen ari den «Ikastetxe solidarioak» programaren barnean.

2 Red de Pirineos Vivos de Navarra: lankidetza bat egin da POCTEFA ADN Pirinioak programaren esparruan abiarazi nahi den hezkuntza-proiektuarekin, besteak beste Nafarroako Gobernuako Ingurumen Departamentuak sutatuta. Lankidetzaren helburua da Ingurumen Hezkuntzako Museoko ekipamendu publikoa eskaintzea, eta ingurumen-hezkuntzako proiektua hedatzea, Ingurumen Hezkuntzako taldeak bere esku dituen tresnen bidez.

3 1º Encuentro de Huertas Escolares, Tudela: Eskola-baratzearen proiektuen inguruan lanean dabilzan erakundeekiko lankidetzaren eta harremanen esparruan, Helianto kolektiboak eta Germinando kooperatibak –topaketa antolatu zuten erakundeak– eskatu zioten Ingurumen Hezkuntzako Taldeari hitzaldi bat eman zezala Iruñeko udaletxean, eskola-baratzearen esperientzia aurkezteko. Urriaren 26an egin zen aurkezpen hori.

4 Proyecto Naturart: Hiri Kontserbazioko alorrak, Ingurumen Hezkuntzako Zerbitzuaren bidez, Naturart hezkuntza- eta arte-proiektua sustatu du. 2018-2019 ikasturtea klima-aldaketaren gaiaren inguruan ardaztu zen, eta Ingurumen Hezkuntzako Taldeak prestatu zuen ikasle parte-hartzaileendako sentsibilizazio- eta prestakuntza-saioa.

HERRITAR GUZTIEN DAKO JARDUERAK

Herritarrei zuzendutako ingurumen-hezkuntzako jardueretan, 7.957 lagunek hartu dute parte. 2017an, 6.919 parte-hartzaile izan ziren; beraz, % 15eko igoera egon da.

PROGRAMAK	PARTE-HARTZAILE KOP.
Jasangarritasun Eskolaren programa	4.992
Talde antolatuendako programa	718
Bisita partikularren programa	1.241
Espazioak lagatzeko programa	551
Ecozine Nazioarteko Jaialdiaren programa	352
Edalontzi berrerabilgarriari buruzko komunikazio-kanpaina	49*
Beste batzuk	56
GUZTIRA	7.959

*Oharra: edalontzi berrerabilgarriari buruzko komunikazio-kanpainan, Ingurumen Hezkuntzako Taldeak egindako 3 zuzeneko esku-hartze puntual ikusten ahal dira, eta ez haren irismena.

- **JASANGARRITASUN-ESKOLA.** 2018an, 4.749 lagunek hartu dute parte Jasangarritasun Eskola programako jardueretan.

JARDUERAK	JARDUERA KOP.	PARTE-HARTZAILE KOP.
Hitzaldiak	31	732
Donibane	31	34	38	38	38	44	25	34	35	1	4	9
Txantrea	105	149	179	137	179	210	55	77	73	2	10	8
Guztira	749	922	1077	948	1.146	1361	613	373	676	30	79	72

NAFARROAKO GOBERNUAREN TITULARTASUNEN PRESTAZIOAK ESKURATZEA: kotizaziopekoa ez den baliabide-pentsioa; Gizarteratze errenta/Errenta Bermatua eta gizarteratze ezohiko laguntzak, familia-esparruan mendekotasuna duten pertsonak zaintzeko eta desgaitasuna dutenendako.

- **Kotizaziopekoa ez den erretiro-pentsioa.** 65 urtetik gorako 580 pertsonak jasotzen dituzte pensio horiek Iruñean; horietatik 90 2018an izapidetu ziren.

- **Kotizaziopekoa ez den baliaezintasun-pentsioa. 2018an, 439 pertsonak zuten aitortua prestazio hori Iruñean; horietatik % 51 emakumeak ziren. 2018an, 34 izapidetu ziren.**

- **Errenta bermatua.** 2018an, Errenta Bermatuaren 8.053 eskaera egin ziren hirian; horietatik 4.868 emakumeek egin zituzten (% 60), eta 3.185, gizonek (% 40). Guztira, 16.199 pertsonak jaso zuten laguntza.

- **Ezohiko dirulaguntzak.** 2018an, 566 ezohiko laguntza eman ziren; guztira, 912.605,59 euro.

NAFARROAKO GOBERNUAREN PRESTAZIO EKONOMIKOAK		
	ERRENTA BERMATUAK	EZOHIKO LAGUNTZAK
ALDE ZAHARRA	711	17
TXANTREA	908	72
ETXABAKOITZ	396	33
ZABALGUNEA	415	22
ERMITAGAÑA	267	12
ITURRAMA	255	9
MENDILLORRI	367	85
ARROSADIA	1376	51
ARROTXAPEA	1448	112
SANDUZELAI	815	84
DONIBANE	576	14
BUZTINTXURI	519	55
	8053	566

- **Desgaituendako dirulaguntzak.** 2018an, 48 hartzaile zeuden Iruñean.
- **Mendekotasuna duten pertsonak familia-esparruan zaintzeko dirulaguntza.** 2018an dirulaguntza horien 3.708 onuradun zeuden; urtean zehar, 614 izapidetu ziren.

Oinarrizko gizarte-zerbitzua	Guztira
BUZTINTXURI	29
ALDE ZAHARRA	122
TXANTREA	355
ZABALGUNEA	405
ERMITAGAÑA / MENDEBALDEA	288
ETXABAKOITZ	75
ITURRAMA	346
MENDILLORRI	115
ARROSADIA - AZPILAGAÑA	336
ARROTXAPEA	320
SANDUZELAI	169
DONIBANE	383
GUZTIZKO OROKORRA	2.943

3.7.2. UDALERRIAK. GIZARTE EKINTZA. ZERBITZU ESPEZIALIZATUAK.

GIZARTERATZE ETA LANERATZEKO IBILBIDEETAKO ENPLEGU-PROGRAMAK

GIZARTE-ENPLEGU BABESTUA

Programak 195 pertsonako taldea izan zuen 2018. urtean. 195 pertsona horiek honela daude banatuta: programan parte hartzen duten pertsonak (peoi kontratatuak) eta programari laguntzeko teknikariak: lantalde-arduradunak eta -ofizialak, eta talde teknikoa.

- **Programako parte-hartzaileak:** 2018an, 164 pertsona kontratatu ziren peoi gisa programan. Urteko iraupena duen programa denez, baina sartzeko aldi desberdinak dituenetz, 2018an, 95 plaza oso eduki ziren, urtebeteko iraupenekoak (1140 hilabeteko kontratazioa). Parte-hartzaile guztiak Alorreko gainerako programetatik bideratu ziren, eta bertatik landu da haiekin aldez aurreko ibilbidea. Programa arautzen duen deialdiak jasotzen duen bezala, parte-hartzaileen % 50 baino gehiago emakumeak izan ziren (% 54), eta, % 90 baino gehiago, programan sartzeko unean, Errenta Bermatuaren hartzaileak ziren.
- **Laguntzarako teknikariak:** Honako hauek izan ziren 2018. urtean programari laguntzeko teknikariak:

Profil profesionala	Lang. kop.
LANTALDE-ARDURADUNAK	9
LANTALDE-OFIZIALAK	16.5
ARKITEKTO TEKNIKOA	1
ADMINISTRATIBOA	1
GIZARTE-LANGILEAK	2
PROGRAMAREN ARDURADUNA	0.8

Programako jarduerak:

Programak 9 lantaldeetan –lanbide eta/edo espezialitate desberdinetakoak– banatzen du bere jarduerak, eta haiek udal-alor desberdinetarako, beste administrazio publiko batzuetarako eta, zenbaitetan, irabazi-asmorik gabeko erakunde/elkarteetarako lanak egiten dituzte. Hauek dira lantaldeak eta egiten diren jarduerak:

- **Obrak eta etxebizitzak zaharberitzea:** Udal-titulartasuneko eraikin eta lokalak eraikitzea eta zaharberitzea da lantalde horren jarduerak nagusia. 2018an egindako jarduerak nagusietako bat udal-titulartasuneko hainbat etxebizitza birgaitzea izan zen, etxebizitza sozialetara bideratzeko.
- **Koadernaketa eta serigrafia:** Koadernatzeko, inprimatzeko, liburutegi-sareko liburu zaharrak zaharberitzeko lanak; udal-artxiboko lanak (aktak eta prentsa); laneko arropak eta beste elementu batzuk inprimatzeko eta serigrafiatzeko lanak (oihalezko poltsak, paperezko poltsak, etab.); bulegoko materiala egitea (koadernoak, liburuxkak, paper-zorroak, etab.); txartelak, liburuxkak, triptikoak eta kartelak maketatzea, inprimatzea eta tolestea.
- **Pintura:** Lantaldearen jarduerak nagusia udal-lokal, -eraikin eta -bulegoetako pintura-lanak dira, eta, batzuetan, hiri-altzarien elementuren bat margotzea. 2018. urtean, gizarte-larrialdiko etxebizitza gisa erabiltzeko birgaitutako udal-etxebizitzak margotzen eta adinekoendako udal-apartamentu tutelatu batzuk pintatzen lagundu zuten, besteak beste.
- **Ibaia, lorategiak eta udal-mintegia garbitzea:** Lan hauek egin dituzte: Arga ibaiaren ertzak garbitu, sastrakak kendu eta ureztatu; lorategi-eremuak garbitu eta mantendu, eta udal-mintegian zainketa-, mantentze- eta landatze-lanak egin.
- **Tapizgintza:** Udaleko alor ezberdinendako lanak egiten ditu, baita beste administrazio publikoendako ere. 2018an, hauek izan ziren lantaldearen jarduerak nagusiak: aulkiak eta besaulkiak tapizatzea, besaulkietarako eta kuxinetarako zorroak egitea, ibilgailuen eserlekuak tapizatzea eta gortinak egitea (210 inguru).
- **Joskintza eta jantzigintza:** Programako lantaldeen eta arloarekin zerikusia duten beste programa batzuetako laneko arropa guztia antolatzeaz, tailatzeaz eta banatzeaz arduratzen da. Era berean, arropak konpondu, mantentze-lanak egin, garbitu eta lisatu egiten ditu, eta zenbait jantzi egiten ditu (373 jakatxo etxez etxeko udal-arretarako taldearendako, eta jantziak eta haur-eskoletarako elementuak egiten ditu).
- **Soldatzea:** Udal-eremuetarako eta beste administrazio publiko batzuetarako metalezko hainbat elementu fabrikatzea, diseinatzea eta muntatzea: sartzeko ateak, eskudelak, barandak, lorategiak, aparkalekuak, zuhaitz-babesak, euskarri-egiturak, arrapalak, etab.
- **«On egin» udal-jantokia.** Gizarte-bazterketako egoeran dauden pertsonen bideratutako udal-jantokiko gosariak, bazkariak eta afariak banatzeaz eta antolatzeaz arduratzen dira. 2018an, 17.423 gosari, 19.862 bazkari eta 16.985 afari banatu ziren.
- **Garbiketa eta atezaintza.** Udalaren jabetzakoak diren lokalak, bulegoak, atariak eta erabilera anitzeko guneak garbitzen ditu, ohikotasunez. Halaber, ohiz kanpoko garbiketak egiten ditu lokaletan, udal-etxebizitzetan eta bulegoetan, obra- edo eraberritze-aldien ondoren. Era berean, hainbat destinetan, atezaintza-lana ere egiten da (pertsonak aurrez aurre eta telefonoz hartzea).

— LANGABETUAK INTERES OROKORREKO ETA SOZIALEKO OBRETARAKO KONTRATATZEKO DEIALDIA.

Laneratze-ibilbideetako enplegu-programetako ekintzen barruan, Udalak langabetuak kontratatzeiko deialdian parte hartu du, interes orokorreko eta sozialeko obrak egiteko, Nafar Lansare – Nafarroako Enplegu Zerbitzuak bultzatuta. Deialdi horren bidez, 4/6 hilabetez langabezian egon diren pertsonak kontratatzen ditu, bertan lehentasunezko kolektibo gisa definitutakoetatik (emakumeak, errenta bermatua jasotzen dutenak, 45 urtetik gorako langabeak, desgaitasuna duten pertsonak, etab.)

2018an, bi proiektu aurkeztu ziren deialdi horretara:

- **Buruko patologia larria duten pertsonak kontratatzeiko programa.** Programa hori Elkarkide erakundearekin lankidetzan egin zen, eta 4 hilabetez 10 pertsona kontratatu ziren, % 33tik gorako minusbaliotasunaren aitortzea zutenak osasun mentaleko patologiagatik, nekazaritza-jarduerak egiteko eta ibilgailuak aparkatzeko seinale horizontalak jartzeko.
- **Langabetuak kontratatzeiko programa, garbitegiako udal-lokalaren erreforma amaitzeko eta gizarte-larrialdietarako udal-etxebizitzak birgaitzeko.** Horren bidez, 8 pertsona kontratatu ziren: 1 obra-zuzendari, 3 igeltserotzako ofizial, 1 elektrizitateko ofizial eta 3 peoi. Deialdian kontrataziorako lehentasunezko kolektibo gisa islatutako kolektiboetakoak ziren pertsona horiek guztiak.

EMAKUMEENDAKO UDAL LAGUNTZA-ZERBITZUA

2018an, 588 pertsonak jaso zuten laguntza; haietatik, 254 berriak izan ziren (248 emakume eta 6 gizonezko). Gainerako 334ek aurreko urteetan irekitako espedientea zuten. Horiei dago-kienz, banakako 1.990 artatze egin dira, eta horietatik 19 larrialdikoak izan dira.

ARTATUTAKO KASU BERRIEN TIPOLOGIA


Tipología	Emakumeak	Gizonak	Guztira
Genero-indarkeria	139	-	139
Aholkularitza biktimen familiari eta inguruneari	2	2	4
Amek pairatutako indarkeriak eragindako seme-alabak	3	0	3
Maitasun-harremanetako desorekak	10	--	10
Haustura-prozesuetako zailtasunak	36	1	37
Zailtasunak guraso-ahala eta zaintza gauzatzeko orduan	28	3	31
Prostituzioa uztea	24	--	24
Gizarte-zailtasuneko egoera	57	0	57
Beste batzuk	17	0	17
Daturik gabe	2	0	2
Diagnostikoak, guztira	320	6	326
Espedienteak, guztira	248	6	254

Aukera Eman Zure Buruari programa (AEZB). EUAZk berriazko baliabide hori du, lehiaketa pu-bliko bidez kudeatua, eta gizarte- eta hezkuntza-arloko esku-hartze bat egiten du EUAZn arta-tutako arazoren bat duten emakumeekin eta haien seme-alabekin, arazo hori gizarte-zailtasun bereziko egoera baten ondorioz larrituta dagoenean. Udal-apartamentu batean aldi baterako ostatua eskaintzeko aukera ematen du programak. 2018an, AEZBk 40 emakumerekin eta 52 adingabekoekin esku hartu zuen.

HAUR ETA NERABEENDAKO LAGUNTZA-TALDEAK

Udal-programa espezializatu honek arreta ematen die familian babesgabetasun moderatuko egoerak dituzten Iruñeko haur eta nerabeei, bai eta norbere buruarekin, gizartean eta eskolan ez moldatzeko sintoma larriak dituzten haur eta gazteei (18 urte arte), horren ondorioz deli-tu-jokabideak garatzeko arrisku adierazgarria dutenei, alegia.

2018an landutako 158 kasuak honela banatu ziren auzoetako unitateen arabera:



ENPLEGURAKO PRESTAKUNTZA

2018an, 803 pertsonak parte hartu zuten Iruñeko Udaleko lanerako prestakuntza-programan. Ekintzen ardatz nagusia hau da: Iruñean zailtasun erantsiren bat duten pertsonen lanerako irispidea sustatzea, pertsona horiek gizarteratu eta lanera daitezten lortzeko, lan-merkatuan baloratzen diren gaitasun profesionalak, pertsonalak eta sozialak garatuz, eta lanbide-kualifikazioa erdiets dezaten.

Programa	Parte-hartzaile kop.
Hargintza eta Biltegiatzea LE eta Igeltserotza ELE (Landabenero Prestakuntza Zentroa) – 2017ko ekainetik 2018ko azarora	30
Enplegurako prestakuntzako udal-programa: Arotzeria eta Altzarigintza (Landaben Prestakuntza Zentroa) – 2017ko martxotik 2018ko martxora	15
PEPI espresa, igeltsu laminatuzko plaka aurrefabrikatuak muntatzeko oinarrizko ikastaroa (Landaben Prestakuntza Zentroa) – 2018ko martxotik ekainera	15
PEPI espresa, Arotzeriako oinarrizko ikastaroa (Landaben Prestakuntza Zentroa) – 2018ko apiriletik ekainera	15
Lorzaintza LE (Arantzadi Prestakuntza Zentroa) – 2017ko ekainetik 2018ko azarora	15
Soldadura PEPI – 2017ko ekainetik 2018ko apirilera	20
Soldadura PEPI – 2018ko ekainetik 2018ko irailera	20
Lorzaintzako ikastaro autofinantzatua (Arantzadi Prestakuntza Zentroa) – 2018ko abendutik 2019ko apirilera	18

Programa	Parte-hartzaile kop.
Mendekotasuneko prestakuntza-programa (Errotazar Prestakuntza Zentroa) (2017ko abendutik 2018ko ekainera)	15
GLT-GLBZ	535
Interes orokorreko eta gizarte-intereseko lanak	19
Langabeendako ikastaroak	15
Emakumeen espetxeko prestakuntza-ekintzak	52
Gazteen espetxeko prestakuntza-ekintzak	19
GUZTIRA	803

	2014	2015	2016	2017	2018
Lantegi-eskolak eta PEPlak	117	117	75	65	145
Guk finantzatutako prestakuntza-programak			57	87	18
GLT-GLBZ	660	836	968	683	535
Espetxeko prestakuntza-ikastaroak eta lantegiak	113	116	90	144	86
Interes orokorreko eta gizarte-intereseko lanak	21	19	17	19	19
Onuradunak, guztira	911	1.088	1.207	998	803

LANTEGI-ESKOLAK, ENPLEGURAKO PRESTAKUNTZAKO PROGRAMA INTEGRATUAK ETA GUK FINANTZATUTAKO ENPLEGURAKO PRESTAKUNTZA-PROGRAMAK

Las Escuelas Taller son programas mixtos de formación y empleo financiados por el Servicio Navarro de Empleo y cofinanciados y promovidos por el Ayuntamiento de Pamplona y el Ministerio de Empleo y Seguridad Social. El alumnado, con la cobertura de un contrato de formación, recibe una formación teórico-práctica e instrucción en materias transversales (competencias clave, formación socio-personal, búsqueda activa de empleo, etc.).

IZENA	ESPEZIALITATEAK	PROFILA	LEKU KOPURUA
Landaben Prestakuntza Zentroa	Hargintza eta Biltegiatzea LE	16 eta 30 urte bitarteko gazteak	15
	Eraikinak zaharberritzeko igeltserotza LE		15
	Arotzeria eta altzarigintzako prestakuntza-programa	Gizarte-zerbitzuetatik bideratutako pertsonak	15
	PEPI espresa, igeltsu laminatuzko plaka aurrefabrikatuak muntatzeko oinarritzko ikastaroa	Kotizaziopekoak ez diren errentak jasotzen dituzten langabetuak, gizarte-zerbitzuetatik bideratuak	15
	PEPI espresa, arotzeriako oinarritzko ikastaroa		15
Arantzadi Prestakuntza Zentroa	LANTEGI-ESKOLA Lorezaintza – 2017ko ekainetik 2018ko azarora	16 eta 30 urte bitarteko gazteak	15
	Soldadura PEPI – 2017ko ekainetik 2018ko apirilera	Gizarte-zerbitzuetatik bideratutako pertsonak	20
	Soldadura PEPI – 2018ko ekainetik 2018ko irailera		20
	Lorezaintzako ikastaro autofinantzatua – 2018ko abendutik 2019ko apirilera	Gizarte-zerbitzuetatik bideratutako pertsonak	18
Errotazar Prestakuntza Zentroa	Mendekotasuneko prestakuntza-programa	Gizarte-zerbitzuetatik bideratutako pertsonak	15

GIZARTERATZE ETA LANERATZE TALDEA (GLT)

2018. urtean Gizarteratze eta Laneratze Taldeak 535 espediente aktiborekin lan egin zuen, eta horietatik % 16,70 alta berriei dagozkie. Horietatik, % 51,60 emakumeak dira, eta, % 48,40, gizonak (iaz baino % 8,60 emakume gehiago). Eta artatutako pertsonen ia % 64 migratzaileak dira; Estatuko pertsonak, berriz, % 36. Talde horren barruan Gizarte eta Lan Arloko Bitartekaritza Zerbitzua ere (GLBZ) badago; hautatze-prozesuak egiten ditu, urtean zehar eta zenbait postutarako, GLTren erabiltzaileak kontratatuzko. Guztira, 226 lan-eskaintza jaso ditu zuzenean 250 plazatarako. Eskaintza horien ondorioz 155 laneratze izan dira, eta eskaintako lanpostuen % 62 estali dira, batez beste.

INTERES OROKORREKO ETA GIZARTE-INTERESEKO LANAK

Udalak langabetuak zuzenean ere kontratatzen ditu interes orokorreko edo gizarte-intereseko lanak egiteko (Nafarroako Gobernuaren toki-erakundeendako diru-laguntzen deialdiaren barruan). Helburua da langabeak kontratatzea, eta, horrela, haien enplegarritasuna hobetzea, lanerako gaitasunak emanez. 2017an diruz lagundu ziren bi proiektuak gauzatzeko, 19 pertsona kontratatu zituzten lehentasunezko zat jotako kolektiboen artean (30 urtetik beherakoak, 50etik gorakoak, langabezian luzez daudenak, desgaitasuna dutenak, etab.). Pertsona horien bitartez, Errotazarreko etxabea, «Garbitegiak» deitutako aldean, egokitze lanek aurrera jarraitzen dute, udal gizarte-zerbitzuak handitzeko, eta seinale horizontalak eta nekazaritzako jarduera lagungarriak mantentzeko zerbitzuari berrekin zaio, Elkarkiderekin elkarlanean.

LANGABEENDAKO PRESTAKUNTZA-IKASTAROKAK

Enplegurako Prestakuntza Zerbitzuak lanerako prestakuntza-jarduerak egiten ditu, langabeak lehenetsita, pertsona horien laneratzea lortu nahian. 2018an, guztira, 15 pertsonak parte hartu zuten 1. mailako Profesionaltasun Ziurtagiria lortzera bideratutako ikastaro batean.

Espezialitatea	Ordu kopurua	Hasiera eta amaierako data	PZ Maila	Leku kopurua
Oinarrizko zereginak jatetxe eta tabernetarako (PZB osoa)	210	03/07tik 05/15era	1	15
GUZTIRA	210			15

LANTEGIAK ESPETXEAN

1. EMAKUMEEN MODULUA

2018an, Iruñeko Udalak prestakuntza-ekintzak antolatu, koordinatu eta finantzatu zituen Iruñeko Espetxeko emakumeen moduluan. 52 emakumek parte hartu zuten lantegietan, otsailetik abendura bitartean; guztira, 238 ordu eskaini ziren urtean.

ESPEZIALITATEA	Egunak	Ordu kopura	Hasierako data Bukaerako data	Nº de plazas
I. Moda eta jantzigintzako lantegia	24	48	02/15etik 05/24ra	13
II. Moda eta jantzigintzako lantegia	30	60	07/18tik 12/20ra	12
I. Eskulan-lantegia	36	72	02/13tik 06/29ra	17
II. Eskulan-lantegia	29	58	06/04tik 12/21era	10
GUZTIRA		238		52

2. GAZTEEN MODULUA

2018ko erdialdetik, Gizarte Ekintza Alorrak bere gain hartu zituen, halaber, gazteen moduluan antolatutako prestakuntza-ekintzak. 19 pertsonak parte hartu zuten; urritik abendura bitartean egin ziren, eta, guztira, 42 ordu eskaini ziren.

ESPEZIALITATEA	Egunak	Ordu kopura	Hasierako data Bukaerako data	Nº de plazas
I. Eskulan-lantegia	21	42	10/02tik 12/21era	19
GUZTIRA		42		19

BAZTERKETA LARRIA PAIRATZEN DUTEN PERTSONAK ARTATZEKO PROGRAMAK

ETXERIK GABEKO PERTSONAK ARTATZEKO ZENTROA. 2018an, zentroan 3.119 pertsona artatu zituzten (ibiltariak, erroldatuak eta hotzaren aurkako protokoloagatik). Artatutako pertsonetako askok programa batean baino gehiagotan parte hartzen zuten; horregatik, artatutako pertsona ezberdinen kopurua txikixeagoa izan zen: 2.034. Horietatik, 225 baino ez ziren emakumeak (% 11,06).

2018an, 156 gautan aktibatu zen hotzaren aurkako protokoloa; aurreko urtekoaren antzeko kopurua, beraz.

Pobrezia eta Gizarte Kohesioa Programa	2014	2015	2016	2017	2018
Ibiltariak	1.524	1615	1.359	1.478	1.508
Erroldatutakoak	65	64	65	72	51
Arreta, kalean	127	141	137	176	182
Hotz-oldea	479	206	275	250	293
GUZTIRA	2.445	2.026	1.834	1.976	2.034
Autobus-txartelak	1.020	1005	977	872	720

«ON EGIN» UDAL-JANTOKIA. Iruñeko Udalaren udal-jantokia Carmen kaleko 25 zenbakian dago, eta 215 erabiltzaile artatu zituen urte guztian. Erabiltzailearen profilak ezaugarri hauek ditu: gizonezkoa (% 60,5 gizonak dira, eta % 39,5, emakumeak), espainiar nazionalitatea (% 46,51) eta ezkongabea (% 46,5). Artatutako helduen % 46,51k ez du inolako prestaziorik jasotzen administrazioaren eskutik, eta ia % 80 hirian erroldatuta dago. Erabiltzaileak 23 nazionalitatekoak dira. % 53,95ek Europar Batasuneko herrialderen bateko nazionalitatea du. Nazionalitateen arabera, Espainiako nazionalitatea duten 100 lagunez gain (% 46,51), jantokian izaten dira, besteak beste, 25 marokoar, 11 errumaniar, eta Venezuelako eta Senegalgo 8 pertsona. 2018an, 54.270 zerbitzu eman ziren (19.862 bazkari, 16.985 afari eta 17.423 gosari). Abenduan eman zen gosari, bazkari eta afari gehien, eta ekainean gutxien.

PRESTAZIOEN BESTE UDAL-DEIALDI BATZUK ETA SINATUTAKO HITZARMENAK DIRULAGUNTZAK, IRABAZI-ASMORIK GABEKO ENTITATE ETA ELKARTEENDAKO

- **Gizarte Ekintza.** Iruñeko Udalak gizarte-ekintzaren arloko jarduerak garatzen dituzten 47 proiektu lagundu zituen diruz: 28 proiektu (desgaitasuna eta mendekotasuna) eta 19 (gizarteratzea). Deialdiak, guztira, 290.000 euroko aurrekontua zuen.

- **Komunitate arloko prebentzio- eta sustapen-proiektuak, haurren eta gazteen aisialdiaren eta denbora librearen esparruan.** Udalak diruz lagundu zituen 3 proiektu, 45.000 euroekin, guztira.

HITZARMENAK ETA KONTRATUAK

- **Nafarroako Elikagai Bankua Fundazioa.** Haren jarduna finantzatu zen, zehazki laguntza emanaz elikagaiak doan bildu, gorde eta banatzeko egoera sozio-ekonomiko larrian edo gizarte-bazterketa zein pobreziaiko egoeran dauden Iruñeko herritarren artean. 40.000 euroz zegoen hornitua.

- **CERMIN – Nafarroako Elbarrituen Ordezkarien Batzordea.** 15.000 euroko dirulaguntza jaso zuten desgaitasunaren gaineko informazio, aholkularitza, prestakuntza, sentsibilizazio eta koordinazioko programak eta desgaituen eta haien familien elkarte-mugimenduaren jarduerak eta zerbitzuak jakinarazteko proiektuak.

- **Gobernuz Kanpoko Erakundeen Koordinakundea.** 36.000 euroko dirulaguntza jaso zuten Garapenerako Lankidetzako informazio- eta koordinazio-programak, Nafarroan lan egiten duten erakundeek beraiek gauzatua.

- **Ijitoen Idazkaritza Fundazioa.** 30.000 euroko dirulaguntza jaso zituen ijitoen etniako familiekin garatu beharreko esku-hartze proiektu batek, familia-nukleo batzuek duten gizarte- eta familia-arazo larria modu globalean geldiarazteko, eta bizikidetzeta eta gizarteratzeko zailtasunak zein haien adingabeen defizit sozialeko egoerak arintzen saiatzeko.

BANAKAKO ETA LEHIAKETA BIDEZKO UDAL-DIRULAGUNTZAK

Prestazioak	2013	2014	2015	2016	2017	2018
Gizarte-larrialdiko egoeran dauden familiak	306.176	382.319	393.836	652.179	586.221	684.953
Eskola-jantokiak	580.000	495.000	402.137	567.977	778.138	529.242,88
Familia ugarien eskola-jantokiak	91.000	-----	-----	-----	-----	-----
Alokairuak: provivienda	170.000	250.000	361.223	366.554	379.348	344.214
Tratamenduak errehabilitazio-etxeetan	36.000	36.000	26.161	58.608	55.149	50.795,36
Adingabeen arreta (0-12)	40.000	40.000	8.660	4.017	9.264	7.829,31
Gizarte-ekintzako erakundeetarako dirulaguntzak, haur eta gazteendako aisia eta denbora librea barne, 2015era arte	290.000	290.000	290.000	290.000	290.000	290.000
Haur eta nerabeen prebentzioa eta sustapena, aisialdi eta denbora libreko jardueren bitartez	-----	-----	-----	45.000	45.000	45.000
Taxi-bonua	140.000	160.000	115.823	141.621	144.872	123.190,34
Guztira	1.653.176	1.653.319	1.597.840	2.125.956	2.287.992	2.075.224,98

3.7.3. UDALERRIAK. GIZARTE EKINTZA GARAPENAREN ALDEKO NAZIOARTEKO LANKIDETZA

Urtero, kontu-sail bat bideratzen da Garapenaren aldeko Nazioarteko Lankidetzaren Udal Programara, eta, 2018an, 1.570.203 eurokoa izan zen, hau da, Iruñeko Udalaren aurrekontu guztiaren % 0,76 (2017an, % 0,72). Horrek erran nahi du lortu egin dela Nazio Batuen Erakundeak garapenaren aldeko nazioarteko lankidetzara bideratzea gomendatzen duen gutxieneko ehuneko. Horrenbestez, hiriko auzokide bakoitzeko, 7,89 €-ko ekarpena egin da urtean (7,19 €, 2017an).

Programa horren barruan, diru-laguntzetarako bost deialdi izan dira 2018an, Iruñean finkatuak dauden eta jarduerak bertan egiten dituzten Garapenerako Gobernu Kanpoko Erakundeak (GGKE) laguntza emateko. Bi deialdi Iruñean garapenerako sentsibilizazio- eta hezkuntza-proiektuak egiteko dira; beste bi, beste herrialde batzuetan garapenaren aldeko nazioarteko lankidetzaproiektuak egiteko, eta bosgarrena, berriz, giza larrialdietarako jarduketetara bideratua dago. Lankidetzahitzarmen bat ere garatu da Nafarroako GGKEen Koordinakundearekin, arlo horretako Informazio eta Koordinazio Bulegoa sortzeko, eta gure erkidegoko beste toki-erakunde batzuekin batera parte hartzen dugu Nafarroako Udallerri eta Kontzejuen Federazioak (NUKF) kudeatzen duen Lankidetzarako Tokiko Funtsean.


LAN-ILDOA	Kop.	Exekuzioa 2018	Ehunekoa (%)
GARAPENAREN ALDEKO SENSIBILIZAZIOA ETA HEZKUNTZA	23	142.195	9,1 % / 9,8%
- Dirulaguntzetarako deialdia: Unean uneko jarduketak	5	4.708	0,3%
- Dirulaguntzetarako deialdia: Urteko proiektuak	15	98.384	6,6%
- Lankidetzahitzarmena: Informazioa eta Koordinazioa	1	36.000	2,5%
- GNLPren berezko jarduketak	2	3.103	0,2%
TOKIKO GARAPENA	43	1.200.466	76,5% / 82,7%
- Dirulaguntzetarako deialdia: Urteko proiektuak	35	1.036.466	71,4%
- Dirulaguntzetarako deialdia, Hegoaldeko toki-entitateendako	2	120.000	8,3%
- Garapenaren aldeko Lankidetzarako Tokiko Funtse (NUKF)	6	44.000	3,0%
GIZA LARRIALDIETARAKO LAGUNTZA	7	84.000	5,3% / 5,8%
- Dirulaguntzetarako deialdia: Giza Larrialdiak (GLL)	7	84.000	5,8%
GLUP-REN KUDEAKETA-JARDUERAK: Planifikazioa eta jarraipena	4	24.094	1,5% / 1,7%
- Garapenaren aldeko Nazioarteko Lankidetzaren Plan Zuzentzailea	1	23.812	1,5%
- 2017ko GNLPren memoria eta 2018ko Urteko Plan Operatiboa egitea	2	282	0,02%
- Udalaren GNP zerbitzu-gutuna egin eta onestea	1	-	-
GLUP-REN JARDUKETEN GUZTIZKO PARTZIALA	77	1.450.755	92,4% / 100%
GLUP-REN JARDUNAREN GUZTIZKO PARTZIALA		119.448	7,6%
GUZTIRA GAUZATUA		1.570.203	100%

Garapenaren aldeko nazioarteko lankidetzarako udal-funtsak nora bideratu diren, eremu geografikoa zein jarduera-sektorea aintzat hartuta, honako taula hauetan azalduta dago.

FINANTZAKETAREN BANAKETA GEOGRAFIKOA

Geografia-esparrua	€	%	Geografia-esparrua	€	%
Hego Amerika	459.305	32,2%	Afrika	478.063	33,5%
Bolivia	121.457		Burkina Faso	19.382	
Brasil	29.596		Txad	110.156	
Kolonbia	142.870		Boli Kosta	37.783	
Peru	165.382		Ginea Bissau	42.333	
Erdialdeko Amerika, Mexiko eta Karibe	245.571	17,2%	Mozambique	35.000	
El Salvador	112.450		Niger	55.252	
Guatemala	27.650		Errefuxiatu sahararrak	96.783	
Honduras	12.711		Kongo (DR)	35.000	
Mexiko	29.406		Ruanda	46.374	
Nikaragua	63.354		Asia	89.527	6,3%
Ekialde Hurbila	12.000	0,8%	India	44.635	
Irak	12.000		Indonesia	12.000	
Europa	142.195	10%	Pakistan	32.892	
Iruña (Sentsibilizazioa)	142.195				

Guztira: 1.426.661 euro



FINANTZAKETAREN BANAKETA, JARDUERA-SEKTOREAREN ARABERA

SEKTOREA	IZENA	Kop.	€	%
100	Gizarte-azpiegiturak eta haiei loturiko zerbitzuak	34	934.960	65,5%
110	Hezkuntza (oinarrizkoa, bigarren hezkuntza, lanbide-heziketa, etab.)	4	84.832	
120	Osasuna (oinarrizko laguntza, espezializaturak, etab.)	9	243.835	
130	Biztanleriari eta ugalketa-osasunari buruzko programak eta politikak	1	27.650	
140	Ur-hornidura, saneamendua eta hondakin solidoen tratamendua	11	300.198	
150	Gobernua eta gizarte zibila (giza eskubideen sustapena-salaketa, kooperatibak...)	8	258.225	
160	Bestelako gizarte-zerbitzuak eta -azpiegiturak (enplegua, etxebizitza...)	1	20.220	
200	Azpiegitura ekonomikoa eta zerbitzuak	1	30.450	2,1%
210	Garraioa eta biltegiatzea	1	30.450	
300	Ekoizpen-sektoreak	2	47.711	3,4%
311	Nekazaritza	2	47.711	
400	Sektore anitzeko programak	3	119.972	8,4%
430	Sektore anitzeko beste batzuk	3	119.972	
500	Laguntza ondasun-horniduretan eta laguntzarako programa orokorrak	2	60.040	4,2%
520	Garapenerako elikadura-laguntza / Elikadura-segurtasuna	2	60.040	
700	Larrialdietarako laguntza	8	91.333	6,4%
720	Bestelako laguntzak larrialdi-egoeran eta hondamendietan	7	79.333	
730	Laguntza berreraikitze-lanetarako	1	12.000	
998	Garapenaren aldeko sentsibilizazioa eta hezkuntza	23	142.195	10,0%
	LANKIDETZA-JARDUKETEN GUZTIZKO PARTZIALA	73		100%
910	EMAILEEN KOSTU ADMINISTRATIBOAK (GNLUPren kudeaketa eta funtzionamendua)	4	143.542	
	GUZTIRA GAUZATUA (2018)	77		

Jarduera-sektoreak hartu dira ELGEko Garapenerako Laguntza Batzordeak (GLB) ezarritako sailkapenetik.

GARAPENAREN ALDEKO NAZIOARTEKO LANKIDETZAREN PLAN ZUZENTZAILEA 2018-2021

2018an, Garapenaren aldeko Nazioarteko Lankidetzaren 1. Plan Zuzentzailea (2018–2021) onestea izan zen GLUPren berrikuntza nagusia, hura baita hurrengo lau urteetarako laneko estrategia-tresna, betiere azken xedetzat harturik garapenaren aldeko udal-politika sendoagoa eta kalitate hobekoa egitea.

Ondoren, Gobernu Taldeari aurkeztu zitzaion (TGB): 2018ko otsailaren 20ko TGB, eta aho batez onartu zen Udalaren Osoko Bilkuran, 2018ko martxoaren 1eko bilkuran: 2018ko martxoaren 1eko Osoko Bilkura (4AS).



Amaierako emaitza 6 ildotan eta 31 helburu estrategikotan egituratutako Plan Zuzentzailea da.

Plan Zuzentzailearen egitura	Estrategia-ildoak
6 ildo eta 31 helburu estrategiko	1º Hegoaldeko ekintzak orain baino jasangarritasun handiagokoak eta koherenteagoak izan daitezen ahalegintzea, eta enfasia jartzea tokian tokiko lanean eta eskubideen ikuspegian
	2º Garapenerako hezkuntza eta sentsibilizazioa indartzea, GLUPren estrategia nagusi gisa
	3º GLUPk babesten dituen ekintzen kalitatea handitzea eta GGKEak indartzea, eragile funtsezko diren aldetik
	4º Sendoago egitea GLUPk beste erakunde eta ekimen batzuekin duen koordinazioa eta elkarrekiko osagarritasuna
	5º GLUPren gaineko ezagutza eta gardentasuna handitzea herritarren artean eta Iruñeko Udaleko beste alor batzuetan
	6º. GLUK aktibatzea, Iruñeko lankidetzako eragile nagusiek eztabaidatzeko eta informazioa trukatzeko funtsezko foro gisa.

2018an hasi zen ezartzen, eta, horri esker, lan-ildo berriak sustatu ahal izan dira, bereziki GN-LUPren sentsibilizazio-arloko jarduerak, hala nola:

- **Latitudes irakurketa-kluba.** San Frantzisko liburutegi publikoarekin (Alde Zaharra) koordinatuta, eta Hegoaldeko autore eta irakurgaietan ardaztuta. Espazio eta xede-populazio berriak bilatzeko datza, sentsibilizazioa lantzeko. Irakurketa-klub horretan, lankidetzan dihardu Nafarroako GGKEen Koordinakundeak, eta hura arduratzen da «21. irakurlea» bidaltzeaz (taldeari batzen zaio, eta liburua irakurri ez ezik, lan egiten duen GGKEaren ikuspegia azaltzen du). GNLUPren teknikari bat da taldearen dinamizatzailea. 2018an abiatu zen klubba, eta Nafarroako irakurketa-klubaren sareko kide da.
- **Esperientzien trukea, Hegoaldeko proiektuak gure hirira hurbilduz.** Nazioarteko lankidetzako urte anitzeko programen osagarri gisa, eta laguntza jasotzen ari diren esperientziak gure hirira eta beste udal-espazio batzuetara hurbiltzeko, ekimen bat hasi zen 2018an, esku hartzeko eremuetatik (Nikaragua eta Kolonia) etorritako bi ordezkariarekin. Proiektuez arduratzen diren Iruñeko GGKEekin batera hauek antolatu ziren: bisita instituzionalen astea (alkatea, Herritarren Gaietarako Batzordea, Garapenerako Lankidetzarako Udal Kontseilua, GNLUP); jarduera publikoak (hitzaldiak eta komunikabideei arreta ematea), eta bisitak eta barne-jarduerak GGKEekin.

3.8.0. UDALERRIAK.

HIRI BIZIGARRIA ETA ETXE BIZITZA. JARDUERA NAGUSIAK

JARDUERA NAGUSIAK

Pio XII.aren etorbidea berrurbanizatzea	1.953.710
Mendillorriko hiri-igogailua	1.061.227
Lehengo hiltegiko parkea	842.109
Redin Cruzat jauregia eraberritzea	536.225
San Frantzisko HLHIPko patio estalia	299.799
Txantreako komunitate-zentroa (Salestarrak) egokitzea	970.757
Gizarte-jantokia eta eguneko zentroa	187.573
Donejakue bidearen interpretazio-zentroa	234.329
II. Zabalguneko auzo-unitatea eraberritzea	242.475
Ziudadelako Armen Aretoa egokitzea	184.087
Plazak urbanizatzea Zidakos ibaiaren kalean eta Monjardin zeharkalean	220.227
Zebra-bideak hobetzea	178.138
Pump track pista Trinitariosen	157.796
Mendillorri-lorategi jangarriko hegala	93.251
Beste lan batzuk	

3.8.1. UDALERRIAK.

HIRI BIZIGARRIA ETA ETXEBIZITZA. JARDUERA NAGUSIAK

— PIO XII.AREN ETORBIDEA BERRURBANIZATZEA

Proiektua: Pio XII.aren etorbideko bidea eraberritzeko obrak.

Aurrekontua: 1.595.072,66 euroan esleitu ziren lanak. Obran zehar 358.637,35 euroko gastu handiagoa onartu zen.

Deskribapena: Obraren xedea Pio XII.aren etorbideko bideak eraberritzea zen; alegia, ibilgailu pribatuaren aurrean garraio-modu alternatiboak lehenestea (oinezkoa, garraio publikoa, bizi-kleta), galtzadan norabide bakarreko bidegorria sortzea eta bi noranzkoetan aparkaleku-zerrenda kentzea. Garraio publikoa lehenesteko neurriak ere txertatzea aurreikusten zuen proiektuak. Jarduketa irekia eta malgua da, «kostu txikiko» esku-hartzearekin, proposamenean atzera egiteko aukera egon dadin. Esku-hartze horren ondorioz, egungo espaloiak oinezkoendako soilik diren espazio gisa finkatu dira, eta, oro har, zirkulazioa hobetu da, bidegurutzeetan oinezkoendako pasabideak aldatuz eta berriz diseinatuz. Era berean, aparkaleku-zerrenda bidegorria sortzeko erabili da. Egungo eskuineko erreia (aparkaleku-zerrendaren ondoan) funtzio anitzeko espazio malgu bihurtu da. Ibilgailuendako bi errei egonen dira noranzko bakoitzeko. Garraio publikoa, ahal dela, kanpoko erreetik ibiliko da, eta han egingen ditu geldialdiak, bazterbiderik gabe. Bidegurutzeak semaforoen bidez lehenetsi dira garraio publikoarendako. 2018ko uztailaren 3an hasi ziren lanak, eta abenduaren 31n bukatu.

— MENDILLORRIKO HIRI-IGOGAILUA

Proiektua: Mendillorri hiri-igogailu bat jartzea.

Aurrekontua: 817.440,69 euroan (BEZa barne) esleitu ziren obrak. Obran zehar 243.786,45 euroko gastu handiagoa onartu zen.

Deskribapena: 2018ko uztailaren 4an, Mendillorri auzoko irisgarritasuna hobetzea helburu zuen ekimen honen obra-amaiera esleitu zen, beheko aldearen –lehen eta laugarren faseak– eta goiko aldean dauden gainerako faseen artean, non auzoko zerbitzu gehienak baitaude. Ekimenaren xedea zonak komunikatzea zen, hiri-igogailu baten bidez. Obraren irismenaren barruan zegoen igogailura sartzeko eremuak urbanizatzea, igogailura sartzeko bideetan arkitektura-oztopoak kentzea eta eragindako eremuan dagoen landare-ezponda garbitzea eta egokitzea. Goiko aldeko bideen zati batzuk ere leundu ziren, eta, horrela, konexio ugaritan irisgarritasun egokia izatea lortu da.

LEHENGO HILTEGIKO PARKEA

Proiektua: Iruñeko Udal Planeko ARS-3ko S.O-1 unitatea urbanizatzeko proiektua.

Aurrekontua: 842.109,8 euro (BEZa kanpo)

Deskribapena: 2018an, garai batean La Protectora SA hiltegia hartzen zuen eremua urbanizatzeko obrak egin ziren, eta, aurreikuspenen arabera, 2019ko maiatzean amaituko dira lan horiek. 13.300 m²-ko parke handi bat, jarduera ekonomikoko gun bat eta zuzkidura-lursail bat hartuko du espazioak.

Parkea Iruñetik gertuen dagoen zatian sortu da, mendi-hegal batean. Hegal horri tratamendu naturala emanen zaio, inguruko eremua landa-eremua dela kontuan hartuta. Lekuaren orografia lehengoratu da, eta bertako espezieetako zuhaitz eta zuhaixka-masak dauden belardi bat osatu da. Parkearen goiko aldean bankuak dituen begiratoki bat jarri da, eta hegoaldean, berriz, egoteko, piknikak egiteko eta haurrentako jolasak dituen gun txiki bat egin da, erabiler horietara egokitutako altzariekin. Espazio hori inguruko mendi-hegaletako landa-irudian txertatzea da asmoa. Zuhaitz eta zuhaixkak tantaka ureztatzeko sistema bat aurreikusi da, parkearen ezaugarriekin bat etorritik. Proiektuak, gainera, jasotzen du errepidetik gertuen dagoen eremua aparkalekuekin, espaloi berri batekin eta bidegorriarekin urbanizatzea, Iruña-Orkoien ibilbidean mugikortasuna eta oinezkoen lotura errazteko. Era berean, urbanizazio berriak, plangintzaren antolamenduaren arabera, jarduera ekonomikoetarako lurzati bat sortuko du, errepidetik gertuen eta Orkoienekin mugan dagoen zatian, bai eta zuzkidura-lurzati bat parkearen ondoan ere.

REDIN CRUZAT JAUREGIA ERABERRITZEA

Proiektua: Redin Cruzat jauregia eraberritzea, Gizarte eta Kultura Zentro Komunitario gisa erabiltzeko. Plazara! proiektua

Aurrekontua: 536.225,64 euro (BEZa barne).

Deskribapena: Tokiko Gobernu Batzarrak 2018ko irailean erabaki zuen Kale Nagusiko Redin Cruzat jauregia eraberritzeko lanak esleitzea. Obren bidez, Redin Cruzat jauregiaren eraikineren erabilera Plazara Proiektua izeneko partaidetza-prozesuan planteatutako beharretara egokitu nahi da. Prozesu hori 2016. urtearen amaieratik aurrera joan da garatzen, Iruñeko Udaleko Herritarren Partaidetza eta Gizartea Ahalduntzeko Alorraren lankidetzarekin. Obrak 2018ko urriaren 15ean hasi ziren. Zazpi hilabeteko iraupena aurreikusi zen.

SAN FRANTZISKO IP-KO PATIO ESTALIA

Proiektua: Patio estali bat eraikitzea Iruñeko San Frantzisko ikastetxe publikoan.

Aurrekontua: 299.799,28 euro (BEZa barne).

Deskribapena: Irailaren 28an hasi ziren San Frantzisko HLHIPko patioa estaltzeko lanak, eta abenduaren 31n amaitu ziren. Obra horien bidez, duela urte batzuetatik dagoen behar bat konpondu nahi zen. 2003. urteaz geroztik, ikastetxeko Zuzendaritza Udalari eta Nafarroako Gobernuari jolastokian leku estali bat jartzeko eskatzen aritu zen, euria egiten duen egunetan ikastetxearen berezko jarduerak egiteko.

SALESTARREN KOMUNITATE-ZENTROA

Proiektuak: Bi proiektu gauzatu ziren Maria Auxiliadora ikastetxea (Salestarrak) Txantreako komunitate-zentro gisa egokitzeke. Batetik, Maria Auxiliadora ikastetxeko irisgarritasuna eta ekitaldi-aretoa hobetzeko lanak. Eta, bestetik, eraikinaren hegal bat eraberritzea, bertan bulegoak jartzeko.

Aurrekontua: Lehenengoan, obrak 513.439,30 euroan (BEZa barne) esleitu ziren, nahiz eta obran zehar 99.767,08 euroko gastu handiagoa onartu zen. Bigarren proiektua 325.172 euroan esleitu zen, baina 32.379,47 euroko gastu handiagoa onartu zen.

Deskribapena: Lehen proiektuak hiru jarduketa aurreikusten zituen. Alde batetik, eraikinean dagoen ekitaldi-aretoa indarreko araudira egokitzea, Iruñeko Udalak Civivoxen estiloko ekitaldi-areto gisa erabili ahal izateko, eta, horrela, auzoko erabilera publikoko espazioen udal-sarean integratzeko. Bestalde, irisgarritasunaren arloko jarduketak aurreikusten ziren Iruñerria kaleko sarrera nagusian, bai urbanizazioari dagokionez, bai barrualdeei dagokienez. Azkenik, igogailu berri bat ere aurreikusten zen, jende guztia sarrera nagusitik ekitaldi-aretora iritsi ahal izateko. 2018ko maiatzaren 22an hasi ziren lanak, eta abenduaren 31n bukatu. Bestalde, bulegoak jartzeko eraikinaren ekialdeko hegala eraberritzeko proiektuaren bidez, herritarrei zerbitzuak emateko izaera administratiboko gune bat sortzea zen asmoa. Batera hasi ziren bi proiektuetako lanak, baina bigarren proiektu horretakoak azaroaren 6an amaitu ziren.

GIZARTE-JANTOKIA ETA EGUNEKO ZENTROA

Proiektuak: Carmen kaleko 25 zenbakiko lokala egokitzea, gizarte-jantokia eta eguneko zentroa jartzeko.

Aurrekontua: 187.573,52 euro (BEZa barne).

Deskribapena: 224 m²-ko lokal huts bat da; ez da erabili eraiki zenetik. Zerbitzu eta hartune guztiak ditu. Egokitzapen-proiektua Gizarte Ekintza eta Komunitate Garapeneko Alorraren gidalerroetan oinarrituta garatu zen. Proiektuaren helburua honako espazio hauek gaitzea zen: jantokia jartzeko gune bat, 50 lagunendako edukiera izanen duena (bi txandatan); otorduak zerbitzatzeko gune bat, jantokitik bereizita; jantokiko arduradunaren mahaia jartzeko beste gune bat; baxera garbitzeko eta gauza gutxi batzuk gordetzeko gune bat; kaleko hezitzaileen-dako bi bulego; bilera-gela txiki bat; eguneko zentro gisa erabiltzeko espazio zabal bat; eta langileendako komun bat eta aldagela txiki bat. 2018ko martxoaren 5ean hasi ziren lanak, eta ekainaren 14an bukatu.

DONEJAKUE BIDEAREN INTERPRETAZIO-ZENTROA

Proiektuak: Kale Nagusiko 20 zenbakian dagoen lokala egokitzea, Donejakue bidearen interpretazio-zentroa bertan jartzeko.

Aurrekontua: 234.329,80 euro (BEZa barne).

Deskribapena: Esku-hartzearen xede nagusia: Kale Nagusiko 20 zenbakiko beheko solairuan eta sotoan dagoen udal-lokalaren barnealdea eta hara sartzeko bideak egokitzea; horrela, % 100eko irisgarritasuna ahalbidetu da, Donejakue bidearen interpretazio-zentro gisa duen erabilera berrira egokitzeko. Behe-solairuan eraikitako azalera 158,27 m²-koa da, guztira. Bi gune ditu altuera desberdinetan, eskailera eta arrapala bidez komunikatuko direnak. Era berean, lokaleko sarbidea aldatuko da, arrapala egokitu baten bidez. Lokalak hiru gune itxi izanen ditu, eta horietako batean komunak eta sarrerako ataria egonen dira. Gainerakoa argia eta librea da, eta interpretazio-zentroaren edukien edukiontzi eta erakusmahai gisa erabiliko da. Aldez aurreko eraispenak: beharrezkoa izan zen Kale Nagusiko fatxada ixteko arotzeria eta barruko itxiturako pertsiana kentzea, eta fatxadan bao bat irekitzea, aireztapen-sareta jartzeko. Proiektuan garrantzi berezia ematen zaie isolamendu termikoei eta hezetasun-isolamenduei, gelaren kalitatea hobetzeko eta lokalaren energia-gastua murrizteko. Ezinbesteko baldintza izan da indarrean dauden irisgarritasun-arau guztiak betetzea. Martxoaren 5ean hasi ziren lanak, eta 2018ko azaroaren 3an amaitu.

II. ZABALGUNEKO AUZO-UNITATEA ERABERRITZEA

Proiektuak: II. Zabalguneko auzo-unitatea egokitzea.

Aurrekontua: 227.704,46 euroan (BEZa barne) esleitu ziren obrak. Obran zehar 14.771,29 euroko gastu handiagoa onartu zen.

Deskribapena: Auzo-unitatearen egungo banaketaren berrikuntza integrala egitea; bi bulego Aita Calatayud kalera ematen duen aldean mantentzea, eta beste laurak, berriz, etxadiko barne-patioko ipar-mendebaldeko fatxadara ematen duen aldean. Instalazio guztiak eguneratzea. Itzaroteko eremu bat, administrazio bat, sei bulego, bilera-gela bat eta komun bat sortzea, 194,80 m²-ko azalera erabilgarrian. 2018ko ekainaren 5ean hasi ziren lanak, eta uztailaren 4an bukatu.

ZIUADELAKO ARMEN ARETOA

Proiektuak: Sarrerako langa jartzea Armen Aretoan, eta biomasa bidez beroa ekoizteko zentrala jartzea Ziuadelaan.

Aurrekontua: 184.087,50 euro (BEZa barne).

Deskribapena: Esku-hartzearen xede nagusia da Ziuadelaan biomasa bidezko beroa ekoizteko zentral bat jartzea, jarraian Armen Aretoaren eraikineko berokuntza-sistema instalatu ahal izateko. Biomasa bidezko beroa ekoizteko zentralaren proiektuarekin batera, jarduketa-eremuan beharrezkoak diren beste jarduketa osagarri batzuk aurreikusten zituen proiektuak; batzuk haiekin batera gauzatu beharrekoak, eta beste batzuk, berriz, haiekin batera edo modu berezian gauzatu zitezkeenak. Galdara-gela zentralizatua San Anton gotorlekuko kasamata zaharrera sartzeko tunelean jarri zen. Horretarako, kasamata zaharrera sartzeko tunelaren ganga iragazgaizteko lanak egin ziren, eta pellet bidezko galdaran keak husteko tximinia bat eraiki zen. Tuneletik irteteko egurrezko ate bat jarri zen, biltegietan pelletak kargatu ahal izateko. 2006. urtean egindako berokuntza-zirkuituaren estankotasuna egiaztatu zen, zirkuitu hori Armen Aretoraino eramateko. Eta ate automatikoa duen langa bat eraiki zen ate nagusian, etorkizunean, berogailuaren erabilera optimizatzeke. 2018ko irailean hasi ziren lanak, eta abenduaren 12an bukatu.

PLAZAK URBANIZATZEA ZIDAKOS IBAIAREN KALEAN ETA MONJARDIN ZEHARKALEAN

Proiektua: Iruñeko ARZ-3 banaketa-eremuko XVI/ZN1 eta XIX/ZN6 eremuak urbanizatzea.

Aurrekontua: 220.227,00 € (BEZa kanpo).

Deskribapena: Obra horiek 2018ko maiatzaren 30ean jaso zituen Udalak. Bi plaza egin ziren: bata, Monjardin zeharkalearen ondoan, eta, bestea, Arrosadian, Zidakos ibaiaren kalearen ondoan. Lehenengoan, Monjardin zeharkalea luzatu zen, egungo sekzioarekin: 2,00 metroko espaloia, 9,20 metroko galtzada eta 1,50 metroko espaloia. Kalea noranzko bakarrekoa denez, baterian aparkatzeko zerrenda aurreikusi da eskuineko aldean, eta lineako aparkalekua ezkerreko aldean; beraz, zirkulatzeko eremua 2,50 m-ra murriztu da. Sekzio hori Tenis Klubaren mugara iritsi arte mantendu da; leku horretan, 90 graduko bira egiten da eskuinera, eta kalearen sekzioa txikitu da, 8 metroko galtzada eta 1,50 metroko espaloia izatera pasatuz. Galtzada berri horrek 2 m-ko lineako aparkalekua dauka bi aldeetan, eta 4 m-ko zirkulatzeko eremua erdialdean. Joan-etorri gutxiko kale berri horrek, Mutiloabeiti kaleak eta etxadia osatzen duen eraikin berriak mugatzen dute plaza berria. Plaza bi gunetan geratu da banatua: bata, portxearen ondoan egoteko gune bat, banku eta farola batzuekin; eta, bestea, zuhaitzez osatutako gune bat.

Zidakos ibaiaren ondoko plaza argi eta garbi bereizitako bi eremutan banatuta geratu da. Alde batean, egoteko zolatutako eremu bat, bankuak dituena, non lau zuhaitz handi landatzea proposatzen den; eta, bestean, gune lorategidun bat, mehelinak estaltzen dituzten zuhaitzekin. Plaza 50 x 33 x 6,5 cm-ko hormigoizko lauza aurrefabrikatuez zolatu zen, eta zuhaitzendako txorkoak utzi ziren, bai eta bi parterre ere, soropil, tapizatzaile eta zenbait zuhaitzekin, plazari landaretza eta itzala ematen diotenak. Espaloirik ez zen egin, plazako zoladura galtzadarekiko mugaraino eraman baizik. Etxebizitzetara sartzeko espaloi bat mantendu zen, baina plazaren zoladura berarekin zolatuta.

OINEZKOENDAKO PASABIDEAK HOBETZEA, ITURRAMAN, ARROSADIAN ETA ARROTXAPEAN

Proiektua: Iturrama, Arrosadia eta Arrotxapea auzoetako oinezkoendako pasabideen bide-segurtasuna hobetzea.

Aurrekontua: 178.138,81 euro (BEZa barne).

Deskribapena: 2018ko ekainaren 15etik abenduaren 28ra bitartean, oinezkoen ibilbideak aldatzeko eta oinezkoen pasabideen egungo egoera aldatzeko beharrezkoak ziren hainbat obra egin ziren Iturrama, Arrosadia eta Arrotxapea auzoetan. Neurri horien bidez, segurtasun-koefiziente handiagoak lortu nahi dira. Horretarako, espaloiak eta galtzadak aldatu ziren, eta espaloietan aitzinamenduak egin ziren oinezkoendako pasabideetan eta/edo posizio-aldaketak egin ziren kokapenik gomendagarriena ez zutenetan. Horri lortzeko, zintarriak, zolatak, zoladurak, hiri-altzariak, galtzadak, ertz-erreten eta bide-seinaleak berritu ziren, berriro gauzatuta.

PUMP TRACK PISTA TRINITARIOSEN

Proiektua: Trinitarios parkean urbanizatzeko lanak egitea eta pump track pista bat eraikitzea.

Aurrekontua: 78.282,58 euro (BEZa barne) urbanizatzeko lanak egiteko, eta 157.796,10 euro (BEZa barne) proiektua idatzi eta pump track pista baten eraikuntza gauzatzeko.

Deskribapena: Uztailaren 16tik irailaren 12ra bitartean, Trinitarios parkearen perimetroa urbanizatzeko lanak egin ziren. Bertan, pump track pista bat eraikitzea aurreikusten zen. Hau zen urbanizatzeko lanen xedea, funtsean: oinezkoendako bide batzuk urbanizatzeko, eta espazioa aldatzeko, bi obren bidegarritasuna eta errematea lortzeko, eta, horrela, eremua erabilera publiko egokitzeko. 78.282,58 euro (BEZa barne) bideratu ziren. Lehen aldian, 2018ko uztailaren 31tik irailaren 26ra bitartean, pump track pista eraikitzeko obrak egin ziren. Proiektuaren eta obraren baterako kontratazioa barne hartzen duen kontratua da. Trinitarios parkeko pump track pista altuera eta luzera ezberdinetako 6 jauzi eta 30 roller dauzka, bai eta bihurtzeko, peralte eta gune izurtuak ere, bizikletarekin, skatearekin edo patinekin ibiltzeko. 40 x 50,25 metroko neurria du. Hurrengo pump track bat ere badu, zirkuitu sinpleago batekin, obalo itxurakoa, bost roller eta bikoitz bat dituena, bai eta ordoki bat ere, hasiberriendako gune seguruago bat eskaintzeko. Trinitarios parkeko berdegunean dago, Biurdana kaleak, Gipuzkoa etorbideak eta Arga ibaiak berak mugatuta, Kosterapea pasealekuaren inguruan.

MENDILLORRI-LORATEGI JANGARRIKO HEGALA

Proiektua: Lezkairuko urbanizatzeko lanen 9. fasea (Mendillorri-Lorategi jangarriko hegala)

Aurrekontua: 93.251,37 € (BEZa kanpo).

Deskribapena: Obra horiek 2018ko maiatzaren 23an jaso zituen Udalak. Lezkairuko Zalduko etxeen ondoan dagoen mendi-hegalaren egokitzapena da. Hirigintza-garapen berriarekin komunikatzeko oinezkoendako bi bide sortzea jasotzen du proiektu horrek.

Lezkairuko Zalduaren etxeetatik gertu dagoen Mendillorriko magalean egin diren lanen helburua da hura egokitzeko urbanizazioan integratzeko. Horretarako, hormigoizko bide batzuk eraiki dira, Zalduko etxeen goiko aldearekiko komunikazioa hobetuko dutenak, eta, horrez gain, argiteria publikoa eta hiri-altzariak ere jarri dira, Hirigintzako Gerentziako zerbitzu teknikoek idatzitako proiektuari jarraikiz. Lorategi «jangarri» bat sortu da, mendi-hegalaren landare-tratamendu baten bidez. Horretarako, zuhaixkak landatu dira espaloiarekin muga egiten duen eremuan, zuhaitz berriak landatu dira eta mantentze-lan gutxi behar duen belardi bat sortu da. Guztira, 115 zuhaitz jartzea eta ureztatzeko sistema bat instalatzea aurreikusi da.

3.8.2. UDALERRIAK.

HIRI BIZIGARRIA ETA ETXEBIZITZA. BESTE LAN BATZUK

— BESTE LAN BATZUK

Plangintza. Gaur egungo hiria berritzeko plangintza-lanei dagokienez, 2018. urtean lan egiten hasi zen XIX. Esku-hartze Unitateko (Arrosadia eta Santa Maria la Real auzoak) Hiri Jarduketarako Plan Bereziaren bigarren fasean (HJPBren antolamenduaren diagnostikoa, aurreproiektua eta balizko alternatibak). Halaber, I. Zabalgunearen eta II. Zabalgunearen Hiri Jarduketarako eta Babeserako Plan Bereziak (HJBPB) idazteko erredakzio-taldearen esleipen-prozesua izapidetu zen.

Erorien Monumentua eraldatzeko ideien lehiaketa. 2018ko urrian, Erorien Monumentua eraldatzeko ideien lehiaketa antolatu zen, monumentuari eta haren hiri-inguruneari buruzko jarduketa-proposamenak lortzeko. Aurretik, 2018ko martxoan, «Erorien monumentuaren eraikineko guneari eta inguruneari buruzko hausnarketa-jardunaldiak» antolatu ziren, ondorengo lehiaketa planteatzeko oinarri gisa balio izan zutenak. 2019an ebatzi zen lehiaketa.

Abiadura Handiko Trenaren UPS. 2018an, hitzarmenak izapidetu ziren Argal fabrika zaharreko (Arostegi etorbidea) lurzatieen jabeekin, eraikin horiek aldeztu aurretik eraistea ahalbidetzeko. Gainera, Partzuergoaren egoitzan erabakiak hartu ondoren, obren lizitazio-prozesua prestatu zen, eta 2019ko ekitaldian egin da.

Hego Txantrea parkearen proiektuaren idazketa. Udalak 144.000 euro bideratu zituen Hego Txantrea parkea urbanizatzeko proiektua idazteko. Arga ibaiaren eta Donejakue bidearen artean dago eremua, Burlatarekiko mugan eta Txantreako hegoaldeko ertzean, eta 101.628 m²-ko azalera dauka. Parke berriaren bidez, hiriko erdigune historikoaren eta erreken arteko –Burlatarekiko mugan– trantsizioak erraztea, konektatzea eta artikulatzea proposatzen da proiektuan; eta Txantreako iparraldeko muga Magdalenako zubiarekin lotzea. Parkea, Arga ibaiaren eta eremuaren punturik garaienaren artean, Burlatarekiko mugatik gertu, elkarri lotutako espazio eta belardi batzuek dago eratua, eta hiriaren profil monumentalaren ikuspegia dauka. Parkeko eremu guztiak izaera eta material desberdineko bide batzuen bidez komunikatzen dira. Parkearen eremuarekiko zeharkakoak diren bi bideek ibilgailu-zirkulaziorako edukiera dute, eta uholdeak gertatuz gero, Magdalena auzoko etxebizitzetarako ebakuazio-bideak dira. Iparraldean daude mugatuta belardiak.

Hobekuntza-lanak hainbat ikastetxe publikotan. 2018an hainbat hobekuntza-lan egin ziren Iruñeko zenbait ikastetxe publikotan. Zehazki, Teobaldoen kaleko 13 zenbakian dagoen Vazquez de Mella ikastetxe publikoko beheko solairuko komunak eraberritu ziren. Iturrama ikastetxe publikoko erdiko patioa osatzen duten fatxadetako arotzerietan beharrezko jarduketak egin ziren, haiek ordeztu, eta, horrela, eraikinaren inguratzailearen elementu batzuk birgaitzeko eta eraikinaren baldintza termikoak, bizigarritasuna eta erabilera hobetzeko. San Frantzisko ikastetxe publikoko komunak, suteen aurka babesteko ekipoa eta eskailera eraberritu dira; horretarako, jarduketak egin ziren sotoan, beheko solairuan, lehen solairuan eta bigarren solairuan. Guztira, 257.844,34 euro (BEZa barne) inbertitu ziren obra horietan, eta 2018ko martxoa eta apirila bitartean amaitu ziren. Horri guztiari beste 108.720,35 euro gehitu behar zaizkio (BEZa barne), Amaiur ikastolako komunak eta haien irisgarritasuna hobetzeko. Obra horiek 2018ko abuztuan amaitu ziren.

Sadar ibaiaren hobekuntza hidraulikoa. 37.449,75 euroko aurrekontua zegoen proiektua idazteko; proiektua Ebroko Konfederazio Hidrografikoaren errekerimendu batetik sortu zen: Sadar ibaiaren ibilguan, Nafarroa etorbidearen parean, sortzen den estutze-puntua konpontzea, eta, horrela, haren ahalmen hidraulikoa handitzea, ur-goraldietan kalteak saihesteko lursail mugakideetan.

Sanduzelai berrurbanizatzea. Udalak 56.000 euro bideratu ditu VI. EUko ZNO-1 eremua (Sanduzelai) eta haren ingurua urbanizatzeko proiektua idazteko. ZNO-1 eremua gaur egun udal-biltegi gisa erabiltzen diren eraikin batzuek osatzen dute, eta erabilera publikoko eremu libre bat da ingurunea, kirol-eremu eta patinodromo izateko bideratua. Txalet txiki bat ere badago, auzo-elkarteak guneko osagarri gisa erabili izan duena. 1970eko hamarraldian urbanizatutako eremua da. Narriatuta dago zona, zaharra baita, eta gerora birmoldatu diren guneko perimetraleetatik deskonektatuta dago. Hauek dira helburuak: eremu hori lehengoratzea, balio handiagoa emateko; auzoa biziberritzea; erabilera publikoko eremu berri eta hobetu batez hornitzea; eta ZNO-1 eremuan sortzen den orube eta bide berria lotzen amaitzea. 4.400 m²-ko berdegunea berreskuratuko da parkean, eta 4.500 m²-ko plaza ireki bat sortuko da, garbia, Salva doktoareneko kalearen mailan. Bertan, egoteko, igarotzeko, paseatzeko, jolas egiteko eta abarretarako eremuak mugatuko dira.

Trinitarios parkeko pasealekua eta igogailua. Idazketa-proiektua 61.382,79 euroan esleitu zen. Dokumentuak aurreikusten du mendi-hegala zabaltzea eta oinezkoendako ibilbide guztiak bertan modu harmonikoan integratzea. Era berean, igogailu bat jartzea planteatzen da, Trinitarioseko komunikazioak hiriko gainerakoekin eta, bereziki, goi-ordokiko hiriarekin antolatzeko. Eremua egituratzen duen elementu bat da, eta erreferentzia bisual garrantzitsua. López Sanz doktoareneko kalearekin lotuko du parkea. Behealdean, Plazaola pasealekuaren pareko oinezkoendako pasealeku berriko plazan egonen da. 20 metro inguruko desnibela gaindituko du igogailuak. Irtenbide bateratua emanen zaio L formako corten altzairuzko egitura metaliko baten bidez eta igogailuaren kabinak daukan beirazko gorputz bertikal baten bidez. Bigarren fase batean, goiko aldea urbanizatzea aurreikusten du proiektuak: López Sanz doktoareneko kalea berrantolatzea eta Larraina kaletik jarraitzea, bai eta Larraina kalearen eta Iratxeko Monasterioaren kalearen arteko bidegurutzeari oinezkoendako pasabideak berriro banatzea ere.

Trinitarioseko trenaren parke tematikoa. 2018ko urtarrilaren 11n amaitu zen beheko solairuko eraikuntza txiki bat egiteko obra, trenaren parkeko lokomotora eta bagoi txikiak biltegitratzeko eta konpontzeko. 47.770,73 euroan (BEZa barne) esleitu ziren obrak.

Muebles Apesteguía enpresaren eraikina eraistea. Muebles Apesteguía enpresaren nabea eraistea, Kale Nagusiaren eta Joaquín Jarauta eta Hilarión Eslava kaleen artean dagoen etxadiaren barruan zegoena, espazio publiko libre bat lortzeko. Pellejerías txokotik Santa Ana plazaraino egokituko da espazio hori, eta, horrela, eragindako eremuko etxebizitzaren bizigarritasun-baldintzak hobetuko dira. Eraispena 101.640 euroan (BEZa barne) esleitu zen, eta 2018ko uztailaren 27tik abenduaren 14ra bitartean gauzatu zen.

Kableatu elektrikoa lurperatzea Jarauta kalean. Urtarrila eta martxoa bitartean, Jarauta kalean, Sanduandia kalean eta Santa Ana plazan partzialki dauden aireko kableak kentzeko lanak egin ziren. 142.019,29 euroan (BEZa barne) esleitu ziren obrak.

3.9.1. UDALERRIAK. BERDINTASUNA ETA LGTBI.

LAN-ILDO NAGUSIAK

Iruñeko III. Berdintasun Plana (2016-2022)

Gobernantza eta berdintasunaren aldeko konpromiso politikoa

Emakumeak ahalduntzea, eta balio-aldaketa

Zainketa-lanak aitortzea eta erantzunkidetasuna, bizitzaren jasangarritasunaren gako

Emakumeen aurkako indarkeriarik gabeko bizitza, hiri seguru batean

GOBERNANTZA ETA BERDINTASUNAREN ALDEKO KONPROMISO POLITIKOA

Gobernantzaren eta Berdintasunaren aldeko Konpromiso Politikoaren eremuaren helburua da Iruñeko Udalak emakumeen berdintasunarekiko benetako konpromisoa bermatzea, berdintasun-printzipioa gobernagarritasun-printzipio bihurtuz.

Aurrekontua: 27.888,00 euro.

Jarduketa nagusien laburpena:

IE1. BERDINTASUNAREN ALDEKO UDAL-EGITURAK FINKATZEA, HAIEN ARTEKO KOORDINAZIOA BERMATUKO DUTENAK

1- 2017an, Berdintasuneko arloa sendotzea izan zen ekintza garrantzitsuenetako bat, honako osaera honekin: hiru teknikariz eta Berdintasun eta LGTBI alorreko zinegotzigo batez osatua. 2018an, Berdintasuneko Unitate hori uztailearen 4ra arte mantendu zen; egun horretatik aurrera, Alkatetza Arloari atxiki zitzaion, eta zinegotzigo berezi eta delegatuaren izaera galdu zuen. Martxoan, pertsona bat sartu zen, unitatea koordinatzeko funtzioarekin.

2- Azaroan, udal-alor guztietako Berdintasuneko 17 arduradunetz osatutako Batzorde Teknikoa eratu zen (13 emakume eta 4 gizon). Abenduan, banakako bilerak egin ziren arlo guztiekin, 2019ko Plan Operatiboa definitzeko. Ez zen eratu batzorde politikoa.

3- 2018ko urteko Plan Operatiboaren jarraipena eta balorazioa egiteko sistema ezarri zen, 12.000 euroko aurrekontuarekin. 2018ko uztailean, Enred enpresari esleitu zitzaion III. Planaren jarraipena.

4- Nafarroako Toki Erakundeetako Teknikarien Sarean parte hartzea, Kanpainen, Transbertsailitatearen eta Prestakuntzaren batzordeetan parte hartzea.

IE2. GAIKUNTZA POLITIKOA ETA TEKNIKOA

1- Udalean genero-berdintasunaren arloan dauden prestakuntza-beharren diagnostikoa egitea, Nafarroako Berdintasuneko Institutuaren dirulaguntzarekin (9.680 €). Diagnostiko horren emaitzak Presidentziako Batzordean aurkeztu ziren 2019ko otsailaren 18an.

2- Generoaren araberako eraginari buruzko txostena jorrazteko bi tailer egitea (aurrekontua, guztira: 907,50 €). Bi tailer horietan 26 lagunek hartu zuten parte, guztira (21 emakume eta 5 gizon).

IE3. UDAL-POLITIKAK BAT ETORTZEA BERDINTASUN-PRINTZIBIOEKIN

1- Genero-ikuspegia plan, programa eta proiektu guztietan txertatzea. Ekintza transbertsalak egin ziren alor guztietan. Genero-ikuspegia txertatu zen Udalaren Haur eta Nerabeendako Planean.

2- Gaur egungo ordenantzak berrikustea eta berdintasunari buruzko konpromiso garrantzitsuenak jasotzen dituzten ordenantza berriak onestea. Berdintasunerako ordenantza bat egin zen, 6.000 euroko aurrekontuarekin. 2019ko martxoan onetsi nahi da.

3- Urteko planak definitzea, eta beste toki-erakunde batzuekin konparatzeko eta hobetzeko mekanismoak ebaluazio-sisteman txertatzea.

EMAKUMEAK AHALDUNTZEA, ETA BALIO-ALDAKETA

Esku hartzeko eremu honen helburua da emakumeek eta gizonek sozializazio-prozesuetan barneratzen dituzten balio androzentrikoak gainditzea.

Aurrekontua: 476.493 euro

Jarduketa nagusien laburpena:

IE4. AUTONOMIA EKONOMIKOA

1- Emakume-elkarteekin haien elkarteendako harrera-protokolo bat egitea, parte har dezaten baztertuta geratzeko arriskuan daudenek. Protokolo pilotu bat egin zen, Maliko emakumeen elkartearekin.

IE5. PARTE-HARTZEA ETA ERAGIN POLITIKOA

1- Emakumearen Udal Kontseiluaren bilerak egin ziren: 2018an, lau aldiz bildu zen ohiko bilkurretan. Ezohiko bilera egin zuten Berdintasuneko Ordenantzari egindako alegazioak azaltzeko.

2- Berdintasuneko dirulaguntzetarako deialdia. Berdintasuneko deialdian, 20 proiektu lagundu ziren diruz 2018an (guztira, 130.000 €). Berdintasunaren arloko prestakuntzarako deialdian, 5 proiektu lagundu ziren diruz (20.000 €, guztira), eta LGTBI arlokoan, berriz, 4 proiektu (13.060 €, guztira).

3- Emakumeen Mundu Martxa (EMM) egitea, 6.855,00 euroko aurrekontuarekin.

4- Emakumeen Etxea sortzea, bai eta emakumeen webgunea ere. Farapi kooperatibarekin Emakumeen Etxea sortzeko prozesu parte-hartzailea (7.260 €) apirila eta ekaina bitartean egin zen. Agoitz kaleko 9 zenbakian antzinako Pablo Sarasate kontserbatorioan jarri zen Emakumeen Etxea, behin-behinean. 2018ko abenduaren 31n, obra eta altzarien proiektua onetsi zen (150.000 €) FJI kontu-sailetatik. Udalaren webgunearen barruan Berdintasun eta LGTBI gaientarako gunea bat egokitu zen.

5- APUE Ahalduntze eta Partaidetzako Udal Eskolaren programazioa (22.000 €). Feminismoen Eskola (I. maila).

6- Dirulaguntza IPESeko Emakumeen Dokumentazio Zentroari eta Liburutegiari (25.500 €), Iruñean emakumeei eta genero-berdintasunari buruzko zerbitzu espezializatu gisa finkatzeko. 2018an, 3.969 erabiltzaile izan ziren.

7- Programazioa EMATICen (101.839,52 euro). Hamabi hilabete horietan, prestakuntzako bost programazio diseinatu ziren (hiru programazio urtean zehar, bat udan eta bat Eguberrietan). Guztira, 66 ikastaro eta tailer, 636 prestakuntza-ordu eta 792 ikasle. Zerbitzu horren erabilera libreko erabiltzaileen kopurua 2.644 izan zen.

8- Martxoaren 8an egiten den Emakumeen Nazioarteko Egunaren inguruko programazioa.

IE6. HEZKUNTZA ETA HEZKIDETZA. ROLAK ETA ESTEREOTIPOAK DESIKASTEA

1- Amatasun eta aitatasunei buruzko ikastaroak eta tailerrak egin ziren Ahalduntze Eskolaren barruan.

2- Maskulinitateei buruzko jardunaldiak. Guztira, 40 gizonek hartu zuten parte.

IE7. BEHARREI EGOKITUTAKO INFORMAZIOA ETA BALIABIDEAK

1- Sexu-aholkularitzako zerbitzu bat sartzea LGTBQI kolektiboari informazioa emateko proiektuan: Harrotu zentroa, 2017ko maiatzean sortua. 18 jarduera antolatu zituen urtebetean, 1.781 parte-hartzailerekin. 722 areto-lagapen egin ziren. 2018an, guztira, 104 kontsultari erantzun zitzaizen aholkularitza juridikoko zerbitzuan.

2- Estatuko XXX. LGTBI Topaketak: 2018ko azaroan, Baluartan.

3- Iruñeko LGTBI errealitatearen diagnostikoa egitea, 14.563,00 euroko aurrekontuarekin.

ZAINKETA-LANAK ETA ERANTZUNKIDETASUNA BIZITZA JASANGARRI EGITEKO FUNTSEZKO ELEMENTUTZAT AITORTZEA

Iruñeko III. Berdintasun Planak mahai gainean jartzen du beharrezkoa dela eredu ekonomikoaren gainean berriz ere gogoeta egitea, bai eta denborak zein lekuak kudeatzeko eredu berriak proposatzea, zainketa-lanetan ari direnen bizi-baldintzak hobetzea, zainketa-lanei lotutako roletan eta estereotipoekin haustea, eta hiriaren gainean gogoeta egitea ere, parametro berri horietatik abiatuta, ekonomia feministaren ekarpenak kontuan hartuz.

Aurrekontua: 9.452 euro

Jarduketa nagusien laburpena:

LE10. ALDEKOAGOA IZAN DADIN MODELO EMANKORRAREN ALTERNATIBAK

1- Zaintzarako espazioak proiektua. 2018an kanpainaren logoa soilik diseinatu zen, 1.452ko aurrekontuarekin, eta 2019an, gotorleku-beharren diagnostiko bat egitea esleitu da, proiektua bere osotasunean jartzeko abian.

2- Elikadura-burujabetzari eta generoari buruzko zikloa. Landa-eremuko emakumeen inguruko sentsibilizazio-jarduketak.

3- Prestakuntza, genero estereotipoak hausten dituzten zainketa-eredu berriak, emakume eta gizon helduei zuzendutakoak, geure gain hartze aldera. Autonomiari eta erantzunkidetasunari buruzko ikastaroak (8.000 €).

IE12. HIRIAZ HAUSNARTZEA, JASANGARRITASUNAREN EREDUA OINARRI HARTURIK

1- Hiri Mugikortasuneko Planean parte hartzea, garraio publikoak emakumeek eta guraso taldeek planteatutako ibilbide, maiztasun eta baldintzen beharrei erantzun diezaien.

2- «Ahalduntzea gorpilen gainean», emakumeei zuzendutako hiri-txirrindularitzari buruzko ikastaroa.

EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIARIK GABEKO BIZITZA, HIRI SEGURUAN

III. Berdintasun Planak hainbat jardun-ildo kontuan hartzen ditu modu koordinatuan esku hartzeko emakumeen eta adingabeen kontrako indarkeriari aurre egiteko, hainbat aldagairi erreparatuta, hala nola aniztasun funtzional, etnia, erlijio, hizkuntza edo gizarte-klaseari, eta horrekin batera prebentzioa ere jorratzen du, errealitateari eusten dioten gizarte-balioak aldatze aldera.

Aurrekontua: 161.076 euro

Jarduketa nagusien laburpena:

IE13. HERRITARRAK PREBENITZEA ETA SENTSIBILIZATZEA EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIAREN ARLOAN

1- Hiriko indarkeria mota guztien mapa sortzea, indarkeria motak zenbakiekin batera agertzea, eraldakuntzak, aurrerapenak edota atzerapenak neurtu ahal izateko.

2- Baluartean, Indarkeria Sexistei buruzko I. Nazioarteko Biltzarra egitea urriaren 18tik 20ra bitartean, 50.000 euroko aurrekontuarekin. 250 pertsona bertaratu ziren; % 81 nafarrak, eta % 91 emakumezkoak eta % 9 gizonezkoak.

3- Azaroaren 25eko Emakumeen Aurkako Indarkeria Desagerrarazteko Nazioarteko Eguneko programazioa, 2.450 euroko aurrekontuarekin.

4- Azterlan bat sustatzea identifikatzen laguntzeko zein egoeratan diren, egun, Iruñean, sexu-merkatua, esplotazio sexuala, eta esplotazio sexualeko helburuz egiten den emakumeen salerosketa.

5- Tokiko protokolo bat onestea politikoki eta herritarren partetik eraso sexistei aurre egiteko. «Pamplona libre de agresiones sexistas-Eraso sexistarik gabe, Iruña aske» estrategia. 2018an, sanferminetako prebentzio-, informazio- eta sensibilizazio-kanpainak ekintza gehiago egin zituen. Kazetaritza Jardunbide Onenen I. Saria antolatu zen.

6- Indarreko arauetan protokoloak txertatzea, tokiko festetan eta bestelako ekitaldietan (karpak unibertsitarioa, kontzertuak eta abar) eraso sexistak prebenitu eta haietan arretea emateko jarduketak ezarri eta koordinatzeko. Protokolo bat abiaraztea, jai-guneetan eta gaueko aisialdi pribatuko guneetan indarkeria sexistari aurre hartzeko eta hari erantzuteko (7.260 €). Hainbatek hartu zuten parte: ostalarien elkarteetako ordezkariak, peñen federazioa, Gora Iruña-Indarkeria sexistaren aurkako emakumeen plataforma, kontzertu-sustatzaileak, ostalaritza-establezimenduak eta Udaleko alorrak, hala nola Berdintasuna, Gizarte Ekintza, Merkataritza eta Herritarren Segurtasuna. Zenbait saio egin ziren, eta lan-dokumentu bat landu zen. Aisialdi-establezimenduetako arduradunendako prestakuntza-tailer bat egin zen.

7- Civioxen programazioaren barruan, emakumeei zuzendutako 8 autodefentsa-tailer egitea (3.879,06 €). Guztira, 34 lagunek hartu zuten parte.

8- Maskulinitatei buruzko jardunaldiak. Gizonei zuzendutako prestakuntza, sozializazioaz eta genero-aginduez.

9- Emakumeendako Udal Arreta Zerbitzuaren parte-hartzea eta koordinazioa, Iruñean indarkeriari aurre egiteko jarduketak eraginkortasunez gara daitezen.

IE15. EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIA SINBOLIKOA KONPENTSATZEA, HORIEK IKUS-GAI JARRITA ETA HIRIAREN GARAPENARI EGIN DIZKIOTEN EKARPENAK AINTZAT HARTUTA

1- Emakumeen izenak sustatzea kaleen, plazen eta erabilera publikoko eraikinen edo aretoen izendapenetan. Emakumeak izendatu Iruñean taldeak proposatuta, zenbait ekitaldi egin ziren (13.940 euroko aurrekontuarekin):

-Urriaren 9an, omenaldia egin zitzaion Carmen Baroja idazleari (plaka bat jarri zen Kale Berriko bere jaiotetxean).

-Ekainaren 5ean, *Ellas las mujeres en la historia de Pamplona* liburuaren XX. urteurrena ospatu zen Descalzos kaleko Erraldoien patioan.

-Emakume haiengandik gugana erakusketa, IPES Elkartearen Dokumentazio Zentroan eta Iturramako Civivoxen.

-Bizitza pilulak ikus-entzunezko proiektuaren barnean, bi dokumental berri egitea; bata, Carmen Barojari buruzkoa, eta, bestea, Emiliana Zubeldiari buruzkoa.

3.10.1. UDALERRIAK. HERRITARREN PARTAIDETZA ETA GIZARTEA AHALDUNTZEA. HERRITARREN PARTAIDETZARAKO ERREGELAMENDUAREN ZIRRIBORROA.

—

TXARTEL HERRITARREKO ARAUDI ZIRRIBORROA

2018an, Iruñeko Udalaren Herritarren Partaidetzarako Araudiaren zirriborroa egin zen.

Lan-ildo desberdinen multzo bat da dokumentua. Alde batetik, Iruñearen antzeko ezaugarriak dituzten beste hiri batzuen adibideak hartu ziren eredutzat, hala nola Donostiakoak eta Gasteizkoak. Bestalde, elkarre-sarearekin, adituekin eta herritar aktiboekin egin zen lan, partaidetza-espazioen bidez, hala nola herritarren partaidetzarako foroak eta koLaboratorioak. Hori guztia hainbat alorretako udal-teknikariek osatu, berrikusi eta amaitu zuten, eta gai juridikoe-tan eta prozedurazkoetan, besteak beste, beren ekarpena egin zuten.

Zirriborroak 5 zati ditu:

- Sarrera
- Partaidetza-organoak
- Partaidetza-prozesuak
- Kontsultak, herritarren ekimenak eta beste batzuk
- Lankidetzaren publiko-soziala

2018ko abenduan, onesteko zegoen dokumentua.

3.10.2. UDALERRIAK. HERRITARREN PARTAIDETZA ETA GIZARTEA AHALDUNTZEA. DEMOKRAZIA PARTIZIPATIBOAREN TOKIKO BEHATOKIA ETA PARTAIDETZA-FOROAK.

— DEMOKRAZIA PARTE-HARTZAILEKO ETA PARTE-HARTZE FOROETAKO BEHATOKI LOKALA

Iruñeko DPTBren helburu nagusia da udalerrian partaidetza bultzatzea, eta, horretarako, partaidetza-esperientziak harremanetan jar daitezzen erraztea, bai eta haien azterketa, hainbat eremu eta ikuspegitatik, egin dadin ere, era horretan lehendik dauden praktikak aberasteko eta izaera inklusibo eta integrala duten esperientzia berriak sustatzeko.

2018an, 6 saio egin ziren Herritarren Partaidetzarako Foroan, hainbat helbururekin; besteak beste, KoLaboratorioetan gertatutakoa itzultzea edo partaidetza-araudi berriari buruzko go-goeta eta proposamenak egitea.

3.10.3. UDALERRIAK. HERRITARREN PARTAIDETZA ETA GIZARTEA AHALDUNTZEA. KOLABORATORIOAK.

—

KOLABORATORIOAK

«KoLaboratorioak» Iruñeko Udalaren Partaidetza Foroak sustatutako ekimen bat da. Bilgune bat da KoLaboratorio bat, esperientzia eta ikuspuntu ezberdinak dituztenen artean solastatzeko, elkarlanetik abiatuta eta errealitatearen azterketa, hausnarketa eta sormen kolektiboa baliatuta, ikaskuntzak sortu eta emaitza berritzaileak lortze aldera.

KoLaboratorioak programa bost lan-esparrutan egituratu zen; bakoitzak bere eduki propio eta zehatzak zituen, eta, aldi berean, bazituzten elkarren arteko loturak. Taldeen arteko eta horien barruko komunikazioa elkarrizketa horizontalean eta sarean egindako talde-lanean oinarrituta dago, betiere moduetan berrikuntzak egiten saiatuta parte hartu nahi duten eragileei eta horien egoera pertsonalei egokitzeko.

KoLaboratorioa: lankidetzak publiko-soziala.

KoLaboratorioa: herritarren partaidetzako guneak.

KoLaboratorioa: komunikazioa eta teknologia.

KoLaboratorioa: gizarte-ehunaren azterketa.

KoLaboratorioa: ebaluazio eta gardentasuna.

3.10.4. UDALERRIAK. HERRITARREN PARTAIDETZA ETA GIZARTEA AHALDUNTZEA. AUZOETAKO FOROAK.

—

AUZOETAKO FOROAK

2018an, auzoetako foroan 2 txanda egin ziren. Lehenengoan, 2018ko martxotik ekainera, 13 auzoetako foro egin ziren, eta bigarreanean, 2018ko urritik abendura, 8 foro, eta 2019ko lehen hiruhilekoan, falta ziren bostak egiten joan dira, 13 auzoetakoak egin arte.

Lurraldean egiten diren administrazio eta erakundeen eta herritarren arteko solasaldi gisa planteatzen dira auzoetako foroak. 2019an, metodologian eboluzionatzen jarraitu zen, eta foroa hainbat ataletan planteatu zen. «Udalak informatzen du» atalean, auzoko zinegotziak eta udal-teknikariak azaltzen zituzten administrazioak hirigintza, mugikortasun eta gizarte-zerbitzu mailan auzoan garatutako ekimenak eta proiektuak, besteak beste. Bigarren zatian, «Auzoak informatzen du» izenekoan, auzoko elkarteei eta ekimenei ahotsa ematen zitzaientzen, auzoan egindako lana azal zezaten. Hirugarren atal batean, zinegotzigoak proposatutako gaiak taldean lantzeko aukera ematen zen, dinamiken bidez. Azkenik eta amaitzeko, «Udalak entzuten du» atalean, herritarrek hitza hartzen zuten, auzoak behar zuena azaltzeko eta eskatzeko.

Guztira, 615 pertsona bertaratu ziren; 271 emakume eta 344 gizonezko. Atalen arabera, 37 esku-hartze egin ziren «Udalak informatzen du» atalean, 16 ekarpen «Auzoak informatzen du» atalean, eta 212 esku-hartze «Udalak entzuten du» atalean. Foro guztiak streaming bidez eman ziren, eta emisioak eta laburpen-bideoak Partaidetza Alorraren «Participa Pamplona» Youtubeko kanalean jarri ziren; guztira, 3.006 bistaratze izan zituen 2019ko apirilaren 1erako. Gainera, bigarren txandatik aurrera, Erabaki izeneko online partaidetza-plataformaren bidez ekarpenak egiteko aukera eman zen, eta 39 jaso ziren guztira.

3.10.5. UDALERRIAK. HERRITARREN PARTAIDETZA ETA GIZARTEA AHALDUNTZEA. KULTURA-ANIZTASUNA

—

KULTURA-ANIZTASUNA

Kulturen kalejira egin zen 2018ko uztailaren 14an; ekitaldi horrek 60 erakunde eta 2.000 parte-hartzaile baino gehiago bildu zituen.

3.10.6. UDALERRIAK. HERRITARREN PARTAIDETZA ETA GIZARTEA AHALDUNTZEA. AHALDUNTZE ETA PARTAIDETZAKO UDAL-ESKOLA (APUE)

AHALDUNTZE ETA PARTAIDETZAKO UDAL-ESKOLA (APUE)

Ahalduntze eta Partaidetzako Udal Eskola informazio, topaketa eta gogoetarako esparruak sortzeko beharraren ondorioz eratu zen, herritarrak parte hartzeko ahalduntzea helburu. Herritar guztiei dago zuzenduta, eta, bereziki, Iruñeko Udaleko Herritar Erakundearen Udal Erregistroan izena emanda dauden sozietate zibileko erakundeei. APUEko ikastaroen hiruhilekoko programazioa hiru gai-ardatz hauetan dago sailkatuta:

1. Ahalduntze pertsonala. Ikaskuntzako guneak, gaitasun pertsonalak eta sozialak garatzeko, betiere parte-hartzeari begira.
2. Taldeen eta erakundearen ahalduntzea. Ikaskuntzako guneak, talde-jarduna bideratzeko, elkarten kudeaketarako, gure erakundearen barneko eta kanpoko komunikaziorako, taldeak dinamizatzeko, eta abarrerako.
3. Gizartearen eta komunitatearen ahalduntzea. Ikaskuntzako guneak, sarean lan egiteko, elkarten arteko koordinaziorako, ekintza komunitariorako eta gizartea eraldatzeko metodologia, teknika eta teknologien garapenerako.

2018an, hiruhilekoko hiru programazio egin ziren: urtarrila – martxoa (13 ikastaro), apirila – ekaina (15 ikastaro) eta urria – abendua (15 ikastaro), eta 619 pertsonak parte hartu zuten.

3.10.7. UDALERRIAK. HERRITARREN PARTAIDETZA ETA GIZARTEA AHALDUNTZEA. DIRULAGUNTZAK.

DIRULAGUNTZAK

DEIALDIA, HERRITARREN PARTAIDETZAREN ESPARRUKO HERRITARREN ELKARTE ETA ENTITATEEI DIRULAGUNTZAK EMATEKO

2018an, hainbat elkartek aurkeztutako 115 proposamenek 545.000 euro jaso zituzten herritarren partaidetzaren arloko laguntzen deialdiaren bidez. Deialdian, dirulaguntzak hiru epigrafe-tan bereizten dira, eta zenbatekoak ere aldatzen dira horietako bakoitzean:

A epigrafea: 100.000 euro. 19 proiektu diruz lagundu dira. Auzo-elkarteek, kultur elkarteek, jai-batzordeek eta kultur koordinakundeek aurkeztutako proiektuak hirietako auzoetako festak, jai herrikoiak zein izaera komunitarioko gizarte- eta kultura-ekitaldiak antolatzeko.

B epigrafea: 295.000 euro. 47 proiektu diruz lagundu dira. Aisialdiaren eta denbora librearen esparruan herritarren bizi-kalitatea eta ongizatea sustatzearen alde lan egiten duten entitate edo elkarteek aurkeztutako proiektuak dira, jarduera iraunkor eta/edo puntualen bidez. Gizarte-partaidetza, herritar aktiboak eta boluntario-lana, gizarte-ehunaren koordinazioa eta sare-lana, lurraldeko bizilagun, talde eta elkarten arteko informazioa eta komunikazioa, eta hedapena eta sentsibilizazioa sustatuko dituzten proiektuak, zeinak ekintza berritzaileak martxan jarriz, proiektuei egokitutako teknologia garatuz eta gizarte-aldaketa ehun sozialetik aldatzeko praktika onak erabiliz egiten baitira.

C epigrafea: 50.000 euro. 19 proiektu diruz lagundu dira. Kultura herrikoia sustatzeko, sortzeko eta hedatzeko proiektu eta jarduerak, Nafarroaren eta eskualdeko beste komunitateen kultur aniztasunaren ordezkari diren entitateek aurkeztuak, hori dena topaketa kulturala eta elkarbizitza lortzeko, aisialdiaren alorrean (gizarte eta kultur, gizarte eta hezkuntza eta gizarte eta komunitatean), lurraldeko gizarte-ehunaren parte-hartzetik abiatuta eta herritar guztiei irekia. Partaidetza-, harrera-, sentsibilizazio-, sustapen-, sormen- eta hedapen-jarduerak, kultura- eta jatorri-aniztasuna sustatzekoak, elkarriketa, elkarbizitza eta ezberdintasunaren errespeturako estrategia gisa, jatorri ezberdinetako pertsonen eta kolektiboen parte hartzea eta ahalduntzea bultzatuz udalerriarren bizitzan.

D epigrafea: 100.000 euro. 30 proiektu diruz lagundu dira. Herritarren parte-hartzea eta adinekoen ahalduntze soziala sustatzen dituzten jarduketak. Aisialdiaren alorrean (gizarte eta kulturakoa, gizarte eta hezkuntzakoa eta gizarte eta komunitatekoa), adinekoen bizi-kalitatea eta ongizatea sustatzearen alde lan egiten duten entitate edo elkarteek aurkeztutako proiektuak. Adinekoen parte-hartzea eta zahartze aktiboa sustatzea xede duten elkarten kasuan, aintzat hartuko dira helduekin eta adinekoekin egitekoak diren jarduera zehatzak.

PRESTAKUNTZA-PROIEKTUETARAKO ENTITATEENDAKO DIRULAGUNTZEN DEIALDIA

Prestakuntzarako dirulaguntzen deialdia irabazi-asmorik gabeko elkarte eta erakundeek egindako jarduerak udalaren esparrutik laguntzeko tresna bat da: honako hauek sustatzen dituzten jardueri bideratuta: gizarte- eta kultura-animazioa, asoziazionismoa, partaidetza eta komunitate-garapena, sormena eta adierazpena, dibertsitate funtzional, sensorial eta intelektuala, dibertsitate kulturala, dibertsitate sexuala eta genero-nortasuna, koheziketa, emakumeen eta gizonen arteko aukera-berdintasuna, gizarte-komunikazioa eta informazioaren eta komunikazioaren teknologiak, gazteak dinamizatzea eta informatzea, gizarte-berrikuntza, beste arlo batzuen artean.

Erakunde eskatzaileek prestakuntza-ekintza baterako proiektu bana aurkez zezaketen modalitate bakoitzean, eta, gehienez 6.000 euro lor zezaketen. 5 proiektu finantzatu ziren, guztira 12.478,18 euroz hornituak.

3.10.8. UDALERRIAK. HERRITARREN PARTAIDETZA ETA GIZARTEA AHALDUNTZEA. KOMUNIKAZIOA.

— KOMUNIKAZIOA

Alorrek participa.pamplona.es/eu webgunea, bai eta erabaki.pamplona.es/?locale=eu parte hartzeko online plataforma ere, kudeatzen du, gaztelaniaz eta euskaraz.

Informazio hori Alorraren sare sozialen bitartez jakinarazten da.

Horretarako, sare sozialetako honako profil hauek sortu dira:

- Twitter: @Participa_pna; @Edusi_pna
- Facebook: @Participa_pna
- Youtube: Participa Pamplona
- Flickr: Participa Pamplona

Webgunea: participa.pamplona.es

- Zenbat bisita izan diren webgunean:

Webgunean, 2018ko abenduaren 31n abian jarri zenetik, 24.577 bisita izan dira guztira.

Twitter: @Participa_pna

2018ko abenduaren 31n, profilak 1.367 jarraitzaile zituen guztira, eta 2.064 txio egin ziren. Aldi horretan, bi une funtsezko egiaztatu ahal izan dira jarraitzaile kopuruaren hazkundeari dago-kionez, koLaboratorioak parte hartzeko prozesuari eta auzoetako foroei lotuak.

Facebook: @Participa_pna

2018ko abenduaren 31n, profilak 393 atsegite zituen guztira.

Youtube: @Participapamplona

104 harpidetza, 26.223 erreprodukzio eta 105 bideo.

FLICKR @Participa pamplona

21 album, 7.960 bisita

Webgunea 2017ko ekainean ireki zen erabiltzaileendako, eta atalak gehitzen doaz zen pixkanaka-pixkanaka. Webgunean gehien bisitatutako atalak APUEko ikastaro-eskaintzarekin lotu-takoak izan dira.

Iruñeko Udaleko elkarten webgunea

Plano horrez gain, asociaciones.pamplona.es webguneak aukera ematen dio Iruñeko Elkarten Erregistroan izena emanda duen edozein elkarteri bere webgunea edukitzeko, doan. Webgunea Udalaren zerbitzarietan dago kokatua, baina elkarteak berak kudeatzen du. Horrela, espazio zentral bat dago, non hiriko elkarte eta kolektiboek buruzko informazio zehatza aurkitu dezakegun.

2018an, 78 elkarte eman diote alta euren webguneari.

Parte hartzeko plataforma digitala: ERABAKI PAMPLONA

<https://erabaki.pamplona.es/>

Erabaki.pamplona Iruñeko Udalaren plataforma digitala da, parte hartzeko plataforma bat, hiri demokratikoagoa eraikitzeari begira sortua. 2017ko maiatzean hasi zen funtzionatzen. Hiri ireki, garden eta kolaboratibo bat sortzeko erreferentziatzeko gunea da, non hiriko bizilagunak baitira protagonista. Erabaki.pamplona parte hartzeko plataforma bat da. Kode irekikoa da, eta, hortaz, edozeinek ikus dezake plataforma nola sortu den, eta plataforma berrerabil edo hobetu dezake.

Plataformaren printzipioak.

- Gardentasuna, trazabilitatea eta osotasuna: eduki guztia da irisgarria, trazagarria eta manipulagaitza.
- Kalitate demokratikoko bermea: diskriminaziorik eza eta abiapuntuko aukera-berdintasuna erabiltzaile eta proposamenetarako.
- Multigeruza: presentziala eta digitala
- Pribatutasuna: Datu pertsonalak ez zaizkie beste batzuei ematen, erabiltzaileek datuak eta jakinarazpenak kontrolatzen dituzte.

Nork hartzen ahal du parte?: Erabaki.Pamplona plataforma herritar guztiei dago zabalik. Hackerren, herritarren, elkarten eta era guztietako erakundeen komunitate ireki eta kolaboratiboa sortzeko tresna bat da.

Sarbide irekia. Pertsona oro modu librean eta anonimoan sar daiteke plataformara, eta bertan nabigatu.

Parte har dezake 16 urtetik gorako pertsona orok, betiere plataforman erregistratu bada, aurrez.

2018ko abenduaren 31n, parte hartzeko 8 prozesu eta herritarren galdeketa argitaratu ziren, 1.570 erabiltzaile daude alta emanda, 1.634 bozketa egin dira, bai eta 119 topaketa ere.

Maiatzaren 21ean eta ekainaren 11n prestakuntza berezia antolatu zen Udaleko teknikarientzako, tresna ezagutarazteko asmoz.

3.10.9. UDALERRIAK. HERRITARREN PARTAIDETZA ETA GIZARTEA AHALDUNTZEA. HERRITARREN PARTE-HARTZEA DINAMIZATZEKO ZERBITZUA.

HERRITARREN PARTE-HARTZEA DINAMIZATZEKO ZERBITZUA

Dinamizatzeko Zerbitzu Komunitarioaren helburua da:

- Herritarren parte-hartzea sustatzea, Udalaren zerbitzu, organo, prozesu, mekanismo eta kanal parte-hartzaileen bidez, Iruñeko Udaleko Partaidetzako teknikarien gidalerroak aintzat hartuta.
- Herritarrek hiriko zerbitzu, organo, prozesu, mekanismo eta kanaletan parte hartzea dinamizatzeko prozesuak eta jarduerak diseinatzea, programatzea, garatzea eta ebaluatzea.
- Parte-hartzearen arloan udalerriarren lurralde- edo sektore-esparruko ezaugarriak eta beharrak identifikatzea eta aztertzea.
- Udalerriko eragile nagusiekin (herritarrak, gizarte-ehuna, ekonomia-ehuna, teknikariak eta administrazioak) harremana ezartzea eta mantentzea, haien arteko elkarrekiko harremana dinamizatuz.
- Esku hartzea gizarte-ehuna sortu eta garatzeko, eta babesa eta laguntza ematea.
- Udaleko herritarren partaidetzarako zerbitzu, organo, prozesu, mekanismo eta kanalen komunikazio- eta hedapen-estrategiak gauzatzea, teknikarien jarraibideen arabera.
- Parte hartzeko saioen dinamika prestatzeko lanak egitea: materialak prestatu, saioa erregistratu eta kontatzea, itzuli eta ebaluatzeko.

HPDZk laguntza teknikoa eman zuen diagnostiko, txosten, organo eta prozesu komunitarioak gauzatzeko eta abian jartzeko, besteak beste. Gainera, hainbat motatako zerbitzu publikoek ere eskatu zioten laguntza, hala nola Auzoko Unitateek, Liburutegi Publikoen Sareak, Civivox Sareak, Polizia Komunitarioak eta gizarte ekimenetarako zentro komunitarioek.

Gainera, zerbitzuak hiriko 21 auzo eta/edo eremu guztietan egoten jarraitu zuen, besteak beste, ehun sozialaren baliabideei buruzko «Iruñategi» izeneko plana amaitzeko, zeina urteko lehen erdian egindako lanaren zati bat izan baitzen. Lankidetzaren horretatik eta beste batzuetatik, gainera, proiektuak eta jarduketak sortu ziren.

3.10.10. UDALERRIAK. HERRITARREN PARTAIDETZA ETA GIZARTEA AHALDUNTZEA. LOKALEN LAGAPENAK.

—

LOKALEN LAGAPENAK

Herritarren Partaidetzako eta Gizartea Ahalduntzeko Alorrak auzo desberdinetako kolektiboek lagundu die 2018an, zentro komunitarioen hitzarmenak sinatu aurreko prozesuan.

Zentro komunitarioak udal-titulartasunekoak dira, auzotarrek erabiltzekoak, irekiak, erabilera anitzekoak eta integratzaileak. Auzoetan lokal batean edo batzuetan eduki dezakete egoitza, eta Iruña zentro komunitarioen sare batez hornitzen dute, elkarre-bizitza sustatzeko eta herritarren parte-hartze aktiboa bultzatzeko xedez. Horiek erabiltzeko eskaera egin dezake jardueraren bat egin nahi duen edozein pertsonak edo irabazi-asmorik gabeko entitatek, unean unekoa ala egonkorra izan, betiere auzo-bizitzan eraginik badu.

Hauek izan dira auzoak: Azpilagaña, Alde Zaharra, Txantrea eta Mendillorri.

3.10.11. UDALERRIAK. HERRITARREN PARTAIDETZA ETA GIZARTEA AHALDUNTZEA. IRUÑATEGI.

IRUÑATEGI – GIZARTE-EHUNAREN AZTERKETA

Iruñategi proiektua «gizarte-ehunaren azterketa» koLaboratoriotik eratorritako lantaldean oinarrituta garatu da, Iruñeko elkarte-mugimenduaren eta gizarte-ekimenaren egungo bilakaera eta egoera aztertzeko eta balioesteko, etorkizunean hura indartzeko tresna gisa.

Iruñategi proiektuak hiriko 13 auzoetako elkarte-baliabideen, erakunde-baliabideen, gizarte-ekonomiako baliabideen eta herritarren ekimenen argazki erreal bat erakusten du. Horrela, auzo bakoitzaren eta hiri osoaren sare komunitarioaren ikuspegia ematen du, haren garapena indartzeko.

14 mapa horiek, 13 mapa (bat, auzo bakoitzeko) eta Iruñeko laburpen-mapa bat, 2017ko otsailaz geroztik hainbat fasetan egindako lanari dagozkio, Herritarren Parte Hartzea Dinamizatzeko Zerbitzuaren laguntzari eta hiriko gizarte-sarearen lankidetzari esker.

Hau izan da baliabideen sailkapena:

- Lurraldea: egungo 13 auzoen zatiketaren arabera.
- Baliabide mota: elkarteena, erakundeena, ekonomia sozial eta solidarioa eta ekimena.
- Herritarrak: haurrak eta nerabeak, gazteak, helduak, adinekoak eta belaunaldi artekoa.
- Jarduera: 19 azpikategoria: herritarren segurtasuna; hirigintza eta etxebizitza; dibertsitate funtzionala; kultura-aniztasuna; turismoa, osasuna eta ongizatea; ogasuna, ekonomia eta enplegua; hezkuntza; alderdi politikoak eta sindikatuak; gizarte-ekintza; erlijioa eta espiritualtasuna; kirola, lanekoa eta profesionala; kultura; ingurumena; administrazio publikoa; aktibismoa; aukera-berdintasuna emakume-gizonen artean, feminismoa eta LGTBI.

Baliabideei buruzko datuak iturri hauetatik eskuratu ziren: Elkarteen Erregistro Nazionala, Nafarroako Elkarteen Erregistroa, Iruñeko Udaleko Elkarteen Errolda eta online bilaketa. Horrez gain, landa-lan zehatza egin dugu auzoetako bakoitzean, tokiko eragileekin elkarlanean, informazioa osatzeko.

2018ko udaberrian, lortutako datuak alderatzeko lan bat egin zen lurralde- eta sektore-eremuetako eragile espezifikoekin, horiek zuzendu eta hobetzeko.

Proiektua garatzeko, marka adierazgarri bat sortu zen, IRUÑATEGI, gaur egungo eta etorkizuneko gizarte-ehunaren analisiaren inguruan egiten diren ekintza guztiak identifikatuko dituen.

2018ko irailaren 26an, errealitatearen argazki finkoa erakusten duten mapen bertsioa aurkeztu zen, 2018ko maiatzari dagokiona. 1,20 x 2,00 metroko tamainako 13 paneletan eta DIN-A1 edo antzeko formatuan inprimatutako mapetan gauzatu zen.

Mapek aurrealdean erakusten dute auzoaren proiektzioa, baliabide guztien kokapen geografikoarekin, ikonoaren arabera zenbakituta eta identifikatuta. Atzealdean, berriz, baliabideak izen osoarekin, deskribapen laburrekin eta posta-helbidearekin daude ordenatuta. Egoitza baldin badute edo gune jakin batean biltzen badira, posta elektronikoa eta web-helbidea. Mapetako informazioa biltzen dute panelek, laburbilduta. Euskaraz eta gaztelaniaz dago mapa eta paneletako informazio guztia.

Kasu gehienetan, udal-eraikinetan egongo dira ikusgai. Leku horietan bertan eskatu ahal izanen dira mapen paperezko kopiak, eta publikoari harrera edo arreta egiteaz arduratzen diren pertsonak banatuko dituzte.

Guztira 1.958 baliabide bildu dira: 1.397, elkarteenak; 507, instituzioenak; 16, ekonomia sozial eta solidariokoak; eta 38, ekimenenak. Auzoka, Zabalgunean eta Alde Zaharrean pilatzen dira baliabide gehien, 396 eta 352, hurrenez hurren.

Mapa horiek honako esteka hauetan kontsultatu eta deskargatu ahal izanen dira: asociaciones.pamplona.es/irunategi eta asociaciones.pamplona.es/eu/. Webgune berean kontsultatu ahal izanen da IGS mapa, baliabide geolokalizatuekin, zeinak IRUSKANen integratuta baitaude, Iruñeko Udalaren baliabideen atarian.

3.10.12. UDALERRIAK. HERRITARREN PARTAIDETZA ETA GIZARTEA AHALDUNTZEA. UDAL-EGUTEGIA.

— CALENDARIO MUNICIPAL

Lankidetzan jardun zen Kultura Alorrarekin, 2019ko udal-egutegia egin eta banatzeko.